



UDAk eta Aloña Mendik derbia jokatuko dute domekan Aretxabaletan | 30

Organikoaren kudeaketa dela-eta, erreferente Leintz Gatzaga | 10

Txantxikua jaitsita, jaiek astelehenera arte segituko dute | 16



Hauteskundeetako emaitzak, herri eta eskualdean | 6 eta 'Herriak' saila



Kooperatibismoaren balioak artearen bitartez: Kooperarock | 32

Aretxabaletan edukiontzia jartzeko data berria

Datorren asteko martitzenean jakinaraziko dute | 24

Antzuolako futbol eskola ofiziala abiarazi dute

Aurten 150 gaztetxok parte hartuko dute | 27

SINADURAK

	Gatazkaz blai 8 XABIER LETONA
	8 Animo! XABIER URZELAI
	Boterea 12 HORAZIO ARGARATE
	16 Ekonomia konfiantza ANDONI GARTZIA
	'Coaching'-a 17 IGOR OIARBIDE
	24 Iruña-Veleiako arrastoen bila INAXIO GARRO
	Hauteskunde bixamona 40 AINTZANE OIARBIDE

DEBAGOIENA 3 | IRITZIA 8 | HERRIAK 10 |
KIROLA 30 | KULTURA 32 | ZURE IRAGARKIAK
34 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | ZORION
AGURRAK 35 | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37
| NON-ZER 38



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Jaiotzek gora egin dute ibarreko ospitalean
- Anne Igartiburu aurkezleari elkarrizketa

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05



Aranzadi ikastolako neska-mutikoak KMK 16ren kartelari eusten.

HERRITARRAK HARTZEKO GERTU

Domekan Kilometroak Bergaran | 4 eta erdiko orriak



JAGOBA DOMINGO

Milaka biktimaren duintasuna ordezkatuta izango da Elgetan

80 urte dira faxistak geldiarazi zituztela; ekitaldiak izango dira | 3

www.multioplicasgipuzkoa.com

2 mō betaurreko graduatu erreflexuen aurkako leiarrekin
97€

BEASAIN • EIBAR • DONOSTIA • ERRENTERIA
IRUN • LASARTE • TOLOSA • ORDIZIA

Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbiztu optikoetan

Maite Agirre | Amagara Estetika Zentroko zuzendaria

"25 urteak bezeroekin ospatu nahi ditugu, eurei esker heldu baikara honaino"

Zilarrezko ezteiak bete ditu Arrasateko Amagara Estetika Zentroak, eta urteurrena ospatzeko promozio eta eskaintza bereziak egingo dituzte urte osoan zehar

Amagara Estetika Zentroak 25 urte bete dituen arren, zuk 40 urteko ibilbidea daukazue estetik munduan. Nolakoak izan ziren zure hasierak? 1976ko azaroan hasi nuen jarduna estetizista modura, Zerkaostetan zegoen ESLU ile-apaindegiaren kabina txiki batean. Orduko nire zereginak oso oinarrizkoak ziren, baina esperientzia eta segurtasuna neureganatu nituen urte haietan. Gainera, formaziorako aukera ere izan nuen eta gorputz zein aurpegiko tratamenduetan trebatu nintzen.

Tratamendu espezializatuagoak eskaintzeko asmoz sortu zen Amagara estetika zentroa?

Hala da; tratamendu espezializatuak eta ikasitako teknika berriak praktikan jartzeko kabina txikiegia neukan. Horregatik erabaki nuen puntako tratamenduak eskaini behar banituen, horretarako aproposa zen leku bat aurkitu behar nuela.

Amagaren kokalekua aurkitzea izan zen lehenengo pausoa, beraz. Buruhauste handien ondoren, gaur egun estetika zentroa dagoen lokala erosi genuen. Obrak egin, beharrezko makineria erosi, lantaldea sortu eta egin beharreko paper guztiak egin eta gero, 1991ko urrian Amagarak atea zabaldu zituen. Ilusio handiz sortutako proiektua errealitate bihurtu zen.

Nolakoak izan ziren Amagaren lehenengo urteak?

Gogorrak, hasiera guztiak bezala; batez ere, lana eta familia kontziliatzeko orduan. Sasoi hartan Amaia eta Garazi -nire



Amagara Estetika Zentroko lantaldea. | BELUN UNE AHAZTEZINAK

alabak- oso txikiak ziren eta familiagatik sakrifizio handiak egin behar izan nituen. Euren omenez jarri nion izena zentroari. Formazioa eta lana tarteakatu behar izaten genuen,

"1991ko urrian zabaldu genituen atea eta ilusio handiz sortutako proiektua errealitate bihurtu zen"

eta askotan asteburuetan ere izaten genituen ikastaroak.

Eta zer da hasiera hartatik poztasunez gogoratzen duzuna?

Gauza asko! Baina batez ere lanerako geneukan ilusioa eta grina. Ordura arte garatu ezin genituen lanak martxan jartzea izugarria izan zen, bereziki gorputzeko tratamenduak. Egungo teknikak eskaintzea izan baita gure bereizgarrietako bat hasiera-hasieratik.

Ze zerbitzu edo lan mota eskaintzen dituzue Amagaran?

Lehendabizi, bezero bakoitzaren diagnosi bat egiten dugu, norberari egokitutako lan pertsonalizatua egin ahal izateko.

Gainera, sasoiaren arabera egituratzen da lana: udazkena eta negua aurpegiko tratamenduen kanpainetarako unerik egokiena da, azalak jasan duen zigorraren ondorioak murriz-

"Duela 25 urteko helburua eta egungoa berbera da: puntako eta kalitatezko tratamenduak eskaintzea"

teko eta bere onera ekartzeko. Udaberri eta udan, berriz, gorputzeko tratamenduek eta solariumak hartzen dute pisu handiena.

Eta zein dira urte osoan zehar eskaera handiena duten zerbitzuak?

Laser makinekin egiten ditugun depilaziorako eta aurpegiko tratamenduak, aurpegiaren itxura edertzeko egiten dugun mikropigmentazioa, manikurak, hidromasajeak, eta abar.

Mediku espezialista baten zerbitzua ere eskaintzen duzue.

Bai; Cristina Arruabarrena medikuarekin elkarlanean egiten ditugu gorputzeko zein aurpegiko terapia mediko-estetikoak.

Zilarrezko ezteiak ospatzeko zer bait berezia egiteko asmorik?

Urrian hasiko gara 25. urteurrena ospatzeko promozioekin. Gure bezeroek zein bertara hurbiltzen diren berriek ere izango dute sorpresaren bat edo beste. Facebook nahiz komunikabideen bitartez ere egingo ditugu eskaintza bereziak. Bestalde, une berezi hau aprobetxatuz, gure logotipoa itxuraldatu dugu.

Bukatzeko, zerbait gehitu nahi duzu, Maite?

Eskerrak emateko aprobetxatu nahiko nuke. Lehendabizi, nire lantaldeari, Itxaso Guerrero eta Elena Azpilikueta, eta urte hauetan gurekin lan egin duten guztiei. Eta nola ez, gure bezeroei. Gurekin jarraitzen dutenei, eta edozein arrazoiengatik gustura gelditu ez direnei ere barkamena eskatu nahi diegu, akats horietatik ere ikasi baitugu.

Frankismoaren aurka borrokan jarraitzeko grina berretsiko dute

- ▶ Duela 80 urte tropa frankistak geldiarazi izana gogoratuko dute Elgetan
- ▶ Jarritako kerilen gainean jardungo dute luxuzko gonbidatuek bihar

MIRARI ALTUBE | ELGETA

Urriaren 4an, orain dela 80 urte, tropa frankistak geldiarazi zituzten Intxortan, Elgetan. Horri esker, urriaren 6an, Euskal Estatutua onartu zen, eta urriaren 7an lehenengo Euskal Gobernu osatu Jose Antonio Agirre buru zela. Hori guztia gogoan, oroimen historikoarekin lotutako ekitaldi bereziak gertatu dituzte aste bukaerarako Elgetan.

Kereilanteen testigantzak

Etorkizunera begira jarriko dira egia, justizia eta erreparazioa helburu duten mugimenduen erronkak, aukerak eta betebeharrak aztertzeko helburuarekin. Eta luxuzko gonbidatuak izango dituzte: Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataformako bozeramaile Josu Ibargutxi, Iruñeko alkate Joseba Asiron, eta Bartzelonako alkateorde Jaime Asens; Bilboko Udaleko ordezkariak ere baiezatu dute parte hartzea. "Hala, lotura historiko bat egingo da Iruñe eta Bilbo artean, gerraren hasiera eta bukaera iru-

dikatzeko Euskal Herrian", argitu du Iraitz Lazkanok, Elgetako alkateak. Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan elkartuko dira mahai-inguruan, bihar, zapatua, 10:30ean. Dagoeneko abian

diren hainbat kereilaren gainean jardungo dute gonbidatuek, eta azken urratsen berri eman. Aurretik, alkateak eta Interpretazio Zentroko gidari Nerea Villak 1936ko gertakarien aurkezpena egingo



Iraitz Lazkano eta Josu Ibargutxi ekitaldien berri ematen Elgetan. | LARRAITZ ZEBERIO

dute eta mahai-ingurua bukatutakoan aureskua eta lore eskaintza izango dira. Gerrako fronteko parte izandako gainerako udalerrietako ordezkariak ere gonbidatu dituzte ekitaldira, Berritxu-

tik hasi eta Aramaiora artekoak. Domekan, ostera, antzetzutako bisita gidatu berezia egingo dute eta orain dela 80 urteko gertaerata eramango dituzte bisitariak. Taldea 10:00etan abiatuko da Espaloia kafe antzokitik.

Lore eskaintza Arrasaten

Debagoiena faxisten esku erori zela 80 urte bete ziren irailaren 26an. Orduko errepresaliatuak gogora ekartzeko lore eskaintza egin zuten Arrasateko Laubide plazako monolitoaren aurrean eta "emakumeek jasandako errepresioa" eta "euskarak izandako ondorioak" salatu zituzten. Aureskua dantatu zuten eta *Eusko gudariak* eta *La Internacional* abestuta bukatu ekitaldia. Bailarako milizianoen eta gudarien senitartekoak eta beste hainbat herritar elkartu zen omenaldian.



Umeak loreak jartzen Arrasaten dagoen monolitoan. | MIREIA BIKUÑA

Epailearen aurrean

"Guretzat oso urteurren garrantzitsua da, 80 urte pasatu eta gero erresistentziaren grina oraindik badagoelako herri honetan. Zoritarrez frankismoaren aztarna guztiak ez dira deuseztatu eta oraindik erantzule piloa daude ezer erantzun gabe", dio Josu Ibargutxik, eta gaineratu du: "Lehenengo historian, frankismoaren erantzule batzuek epaile baten aurrean erantzun beharko diete inputazioei. 80 urte pasa behar izan dira, baina behingoz milaka biktimen duintasuna hor egongo da ordezkatur". Era berean, jakinarazi du orain urtebete Iruñeak kereilan sartzeko hartutako erabakia beste erakunde asko dabilzala hartzen, besteak beste, Elgetako Udala eta Arabako Batzar Nagusiak.

JOSEBA ASIRON
IRUÑEKO ALKATEA



"Biktimei arreta egiteko bulego bat ireki dugu, testigantzak biltzeko"

"Jakina denez, Nafarroan, beste hainbat lekutan bezala, errepresioa bortitza izan zen, eta Iruñean bakarrik 300 fusilatutik gora, 1.000 atxilotu inguru, 260 funtzionario santzionatu eta kargugabetu eta 170 pertsona errepresio ekonomikoaren biktima izan ziren, 1936tik 1939ra. Krimen horiek ez dira oraino epaituak izan, eta kasu askotan ezta ikertuak ere. Orain dela urte bat Madrilgo kereila Argentinarraren Koordinadorearekin bilera bat egin ondoren, Iruñeko Udalak krimen horiek guztiak ikertzeko eta justizia eta erreparazioa behingoz bete dadin kereila bat aurkeztea erabaki zuen, erakundeek ere badutelako zer esanik kausa honetan. Lehen Udala izan zen Iruñekoa, baina orduz geroztik beste hainbat udalek bat egin dute ekimen honekin: Zaragoza, Tarragona, Rivas eta Cadiz, esaterako.

Kereila aurkezteko Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikertzaileek lau hilabetez krimen horiek guztiak ikertu dituzte eta urriaren 4an aurkeztuko dizkigute ikerketa horren emaitzak. Eta gero, Iruñeko Udaleko zerbitzu juridikoek eramango dute aurrera kereilaren defentsa. Horretarako, biktimei arreta egiteko bulego bat ireki genuen maiatzean eta hilabete hauetan guztietan zehar aitortzak, testigantzak eta dokumentazio ezberdina biltzen aritu dira".

JAUME ASENS
BARTZELONAKO ALKATEORDEA



"Bartzelonako bonbardaketek ia 5.000 hildako zibil eragin zituzten"

"Bonbardaketa jasan zuten zibil desarmatuen kontrako krimenek zigorgabe segitzen dute. Denborak ez du ezabatzen egileen erantzukizuna. Gainera, nazioarteko arau guztiak hautsi zituzten. Kereila Altra Italia elkarrekin aurkeztu du, Bartzelonan bizi diren italiar progresisten elkarrekin, biktima batzuekin batera. Bat, adibidez, ume zela zauritu zuten bonbardaketetan. Atake horietan 1.808 eraikin suntsitu zituzten. Adibidez, 1938an, Sant Felip Neri Plaza erabat suntsitu zuen, baita haurreskola ere. Historiadoreek 153 hildako kontabilizatu zituzten, gehienak umeak. Kereilak l'Aviazione Legionararako 21 pilotu seinalatzen ditu, gizateriaren kontrako krimenengatik; 1937-1939 urteetan Bartzelona bonbardatu zuten, eta estimazioen arabera, ia 5.000 hildako zibil eragin. Bat bizi da, eta bere interrogatorioa baimentzearen zain gaude. Denbora kontrari dugu. Baina garrantzitsua da balioan jartzea halako prozesuak: egindako sarraskien gainean eztabaidatzeko espazio publikoa sortzeaz gain, lekukoei ahotsa ematen diete, eta euren samina errepara dezakete. Gainera, kereilak aurrera egingo balu, faxismoak suntsitutako herrietarako aurrekari oso interesgarria litzateke. Horregatik eskaini diegu Gernikari, Durangori edo Elgetari babesa gaia bide judizialek arakatzea erabakitzen badute".

JOSU IBARGUTXI
FRANKISMOAREN KRIMENEN AURKAKO KEREILAREN EUSKAL PLATAFORMAKO KIDEA



"Bederatzi urte egon izanagatik kartzelan aurkeztu nuen kereila"

"Kereila aurkeztu nuen nik bederatzi urte egon izanagatik kartzelan, Ordena Publikoaren Auzitegiak epaitua izateagatik bermerik gabe, gerra kontseiluak izan nituelako bermerik gabe, urte askora kondenatua izan nintzelako eta kartzelako egoera pasatu nuelako.

Goldatu elkarrekin kidea ere banaiz, diktadura garaiko preso, errepresaliatu eta errefuxiatuek osatutako elkarrekin. 2012an Argentinara joan ginen urte bi lehenago frankismoaren aurka irekitako kereila zertan zen ezagutzera eta handik sekulako ilusioarekin itzuli ginenez sortu genuen Euskal Plataforma, kereilaren alde eta orokorrean inpunitatearen aurka lan egiteko. Ehunka kereila daude, batzuk taldeek aurkeztuak, Intxorta elkarrekin eta Goldatuk esaterako, eta beste batzuk norbanakoek, Juan Ramon Garai arrasatearrak, adibidez. Orain Udalei proposatzen gabiltza erakunde lez kereilatze, biktimen izenean eta herri bakoitzak sufritutakoagatik. Salaketa guztiak, bat eginda, frankismoaren aurkako kereila osatu egiten dute. Historiako garai baten aurka gabiltza eta horrek adierazten du milaka biktimen lekukotasuna egongo dela. Horregatik luze doa baina urratsak ematen ari dira; izan ere, hogeitaz lagunen inputazioa erabaki izana Servini epaileak bada zer bait".

Autobus zerbitzu bereziak egongo dira domekan, Kilometroak 2016rako

Garraio publikoa eta bizikleta erabiltzeko dei egin du antolakuntzak

ENEKO AZURMENDI | DEBAGOIENA

Urriaren 2an, domeka, ospatuko da Kilometroak 2016 festa eta antolakuntzak autobus zerbitzu bereziak jarri ditu egun horretarako. Hala, Pesak eta Lurraldebusek indartu egingo dituzte euren zerbitzu-eskaintzak.

Debagoieneko DG03 –Eskoriatza - Aretxabaleta-Arrasate-Oñati-Legazpi - Zumarraga - Antzuola - Bergara - Arrasate - Aretxabaleta-Eskoriatza zirkularra–, DG04 –Eskoriatza - Aretxabaleta-Arrasate-Bergara - Antzuola - Zumarraga - Legazpi - Oñati - Arrasate - Aretxabaleta - Eskoriatza zirkularra– eta DG05 –Gasteiz - Arrasate - Eibar– lineetako zerbitzuak lanegunetako ordutegiarekin ibiliko dira. DG08 lineak ordubetez behin egingo ditu bidaldiak –Oñati - Eibar–. Gainera, DG07 lineako zerbitzua orduro egongo da –Donostia - Arrasate–. DG01 lineako autobusek errefortzuak izango dituzte igandeetako bidaldietan –Bilbo - Bergara–. Horrez gain, zerbitzuak antolatuko dira Eibartik Bergarara, Euskotrenen bidez Eibarrerantz doazen bidaiariak eramateko, eta tratamendu bera izango du Zumarraga - Bergara lineak, Renferen bidez doazen bidaiariak hartzeko.

Bergaran geldialdi bakarria egingo dute autobusek, Ibergarain –autobus geltoki nagusia–. Informazio gehiago www.pesa.net/pesa/ku/horarios webgunean.



Ibergaraiko autobus geltokiko bidegurutzean autobusek bakarrik izango dute baimenduta sarrera. | MAITE TXINTXURRETA

Gomendioa

Bestalde, Donostiatik, Zarautzik, Bilbotik eta Gasteiztik Bergararaino joan behar dutenei gomendatzen zaie bidaia-txartelak aldeztu aurretik erosteko txarteldegietan, salmenta-makina automatikoetan edo bidaia-txartelak Internet bidez erosteko plataforman –www.pesa.net webgunean–.

Autokarabanendako gunea

Antolakuntzatik garraio publikoa eta bizikleta sustatu gura izan den arren –inguruko herrietatik–, autokarabanendako gunea bat ere

ezarriko da, Amillagako Eroskiko aparkalekuan.

Autoendako aparkalekuak ere egongo dira Amillagan, Antxiturrin eta San Lorentzoko industrialdeetan. Horiek betez gero, Larramendikoa erabiliko litzaiteke eta zirkuitura joan-etorria egiteko lotura autobusak erabiliko litzaiteke.

Irisgarritasuna

Bergara ondo kokatuta dago, Euskal Autonomia Erkidegoko errepide nagusien bidegurutze den heinean. Hala, erabili beha-

rreko errepideak honako hauek dira: Gasteiztik datozenek AP-1 autobidea erabiltzea dute onena, herrira hegoaldeko irteeratik sartuta; kostaldetik datozenek, AP-8 autobidea eta Maltzagatik Bergarara AP-1 autobidea, Bergarako Iparraldeko irteeratik sartuta; Goierri aldetik datozenek, berriz, Beasain-Durango errepide ardatza erabilia, autobidez Antzuolaraino joatea dute aukera egokiena eta ondoren, GI-632tik, Bergara hegoaldeko herrira sartu. Nafarroatik datozenei ere gauza bera egitea

gomendatzen die antolakuntzak; Bizkaitik datozenek bi bide nagusi dituzte: batetik, AP-8 autobidea Maltzagaraino eta handik AP-1etik Bergarako Iparraldeko sarreraraino. Beste bidea da Durango-Beasain ardatza erabilia, Kanpanzar pasatu, Bergarara hegoaldeko sartuta. Arrasate aldetik Bergarara, ohiko errepidetik, GI-632tik ere sar daiteke herrira; Eibartik, GI-627 errepidetik; eta Elgetatik ere jaits daiteke. Azken hau beste alternatiba bat da Elorrio eta Durangaldetik datozenentzako.

Nolanahi ere, autoz datozenek Bergarako iparraldean kokatuta dauden aparkalekuetarantz jo behar dute, aurrez aipatutako Amillaga edo Larramendi-koetara, hain zuzen ere.

Erdigunea itxita

Bergarako Udaltzaingoak jakinarazi duenez, herrirako sarrera guztiak itxita egongo dira domekan, 08:15etik 20:00 ingurua arte. Ertzainak egongo dira Ibarako, Tximelako eta Hondartzako biribilguneetan eta Amillagako bidegurutzean –Mekolaldera bidean–. Bestalde, Ibergaraiko geltokiko bidegurutzean autobusek bakarrik izango dute baimenduta sarrera herrira.

Oinez

Bergarako Udaltzaingoak autoa ahalik eta gutxien erabiltzea aholkatu du, oso premiazko kontuengatik ez bada, behintzat. "Sarrera eta irteera guztiak itxita egon arren, premiazko gauzak badira beti egongo da pasatzeko aukera. Hala ere, gure gomendioa da oinez edota herribusean –normal funtzionatuko du– mugitzea", adierazi du Jon Ander Arriola Bergarako udaltzainak.

Forokoop-eko X. jardunaldia egingo dute urriaren 5ean

Kooperatibismoaren ekarpen soziala landuko da bertan; Arrasateko Garaia Gunean izango da

E.A. | DEBAGOIENA

Forokoop kooperatiba-etzabaidarako foro bat da, kooperatiba gaien buruzko hausnarketak teoriko zein praktikoa egiteko sortu zena. Foro honetako X. jardunaldia egingo dute urriaren 5ean, eguaztena, Arrasateko Garaia Gunean.

Kooperatibismoaren ekarpen soziala, parte-hartzea eta nortasuna landuko dira, besteak beste.

Jardunaldiari hasiera emateko, aurkezpena egingo dute Maria Ubarretxena Arrasateko alkateak, Alfredo Ispizua EKGK-ko kideak –Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua– eta Rosa Lavin Konfekoop-eko presidentea –Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa–.

Ondoren, bideo bat erreproduzitu dute, *Zer da zuretzat*

kooperatibismoa?, eta, hori bukatzean, eztabaidarako tartea irekiko da; kooperatibismoak egiten duen ekarpen sozialaren gaineko eztabaida, hain zuzen ere.

Horrez gain, lan elkartuko kooperatibismoa, parte-hartzea eta nortasuna ere landuko dira, Ekoizpeneko eta Zerbitzuetako Kooperatiben Nazioarteko Erakundearen eskutik.

Bukatzean, eztabaidatutako eta landutako gaien gaineko ondorioak aterako dituzte eta gero luntxa egongo da.

Parte hartzeko deia

Foroan parte hartzeko dei egin die Forokoop herritarrei, euren "kezka, hausnarketak, iradokizunak eta kritikak" helarazteko gonbita eginda.

Geoazkorri proiektua aurkeztuko dute Malagan

E.A. | DEBAGOIENA

Atzo hasi eta bihar arte, ACTE-Koben Elkartearen Kongresua izango da Malagan eta bertan Arrikruz-Oñatik Kobak izango dira; Geoazkorri proiektua azalduko dute. Proiektuan, Oñati, Leintz Gatzaga eta Zerain sartzen dira, mendialdea, gatza eta barrunbeak ezagutaraziko ditu eta geologia izango da eskaintza turistikoaren oinarria.

Bihar, zapatua, aurkeztuko dute egitasmoa, Geoazkorri, *Aizkorri-Aratz mendizerraren ondare geologikoa balioan jartzeko ekimen geoturistikoa* izenburuarekin. Oinatur kooperatibako kide diren Leire Garai Urteagak, Borja Abarrategik, Miren Lide Zumaldek eta Ikerne Altubek egingo dute aurkezpena.

Sei hamarkada bailarako etxeak altzariz hornitzen

Grupo Amuebladora Mondragonesak 60. urteurreneko ekitaldi berezia ospatu du

E.A. | DEBAGOIENA

Grupo Amuebladora Mondragonesak 60 urte bete ditu, eta, urteurrena ospatzeko, irailaren 23rako ekitaldi berezi bat antolatu zuten. Ekitaldia Maala kaleko Okendo etxean egin

zuten. Oso giro onean ospatu zuten urteurrena langileekin, bezeroekin eta familiarekin. Grupo Amuebladora Mondragonesakoek "eskerrak" eman nahi dizkie ospatzera joan ziren guztiei.



60 urte hauetan lanean ibilitakoak.. | IMANOL SORIANO

Joxe Etxeberria eta Josu Pereda | Debagoiena Eredu Zabortegirik Ez! Plataformako kideak

"Ez gaude ados nahastuta bildutako hondakinak zabortegietara eramatearekin"

Debagoiena Eredu Zabortegirik Ez! Plataformako bi ordezkari agerraldia egin zuten Batzar Nagusietan, Elkarrekin Podemosek eta EH Bilduk eskatuta

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Batzar Nagusietan ordezkariak ezarri dituzten politikariek eskualdeko plataformaren sorrera eta ibilbidea azaldu ondoren -PPkoari izan ezik, joan egin behar izan zuen-, Josu Pereda eta Joxe Etxeberriak azpimarratu zieten Debagoienean hondakin bilketan izan den garapenaren gako delako "bilketa selektiboa hondakin guztientzat" ezarri izana; eta "derrigortasuna etxeetan hondakinak sailkatzerakoan".

Derrigortasun horrek ze ondorio ekarri du eskualdean?

2011n, eskualdean bilketa selektibo maila %37 zen. Organikoa ez zen berezita batzen, eta herritarri sekula ez zitzaion mezurik bidali esanez etxean hondakinak behar bezala sailkatu behar zituen. 2012an Mankomunitatetik aldaketa abiarazi zen. Oinarrizkoa izan zen organikoa berezita batzen hastea, eta bai zerbitzuetan, industrian eta komertzioetan ere hondakinak sailkatuta batzen hasi ginela. Era berean, ordura arte herritarren eskubidea zen bilke-

taren zentzua aldatu, eta eskubidea izatetik betebehar izatera aldatu zen. Uste dugu herritarra erraz asko jabetu zela aldaketaren beharraz. Horren ondorioz, eta faseka, inbertsioak ere ezin direlako kolpean egin, Debagoieneko zazpi herritan hiru urtetan hondakinak biltzeko era aldatu zen. Berria ezarri eta hilabetean lortu ziren %75etik gorako bilketa selektibo mailak. Gaur egun, %80tik gorako mailak ditugu. Aipatu beharra dago etxeetan sortzen ditugun hondakin artean bakkari %10-15 dela birziklagarria ez dena, hau da, benetako errefusa. Oraindik Debagoienean badugu zeregina hobetzen. Hala ere, oso pozik egoteko moduko emaitzak ditugu eta herritarrei zorionak emateko modukoak.

"Bilketa ganorazkoa" antolatu beharra aldarrikatu zenuten Batzar Nagusietan; zela egiten da hori?

Azpiegiturak eta bitartekoak jartzten, inbertsioak egiten bilketa horren kostuak nor bere gain hartzen eta ahaleginak egiten, batez ere, komunikazioan. Gure

kasuan ere komunikazioan egon zen gako. Mezu bakarra eta bate-ratua eman zitzaion herritarrei eragileen hitzaldi bitartez. Horrek sinistu eragin zion herritarrei betebehar bat zuela, eta ez eskubidea. Hondakin kudeaketan bi fase daude: bilketa eta tratamendua. Batak zelan egin bestea baldintzatzen du. Bilketa ez bada selektiboki egiten, ezin dira berreskuratu, eta hor ez dago birziklapen tasarik, eta alderantziz. Zergatik sortzen dira 165.000 tona hondakin nahasi Gipuzkoan urtero? Ez delako bilketa selektibo egokirik martxan jartzen eskualdeetan. Hori egingo balitz, 165.000 tona horiek izango lirakeke 60.000 tona, asko jota. Guk Zabortegirik Ez Debagoiena Eredu aipatzen dugunean horixe da: Debagoienean posible izan bada bilketa maila honetara iristea, beste edozein eskualdean ere egingarria da. Egin behar duguna da ulertarazi jendeari derrigortasuna nahitaezkoa dela honek funtzionatzeko. Epelen Zabortegirik Ez esaten dugunean da horrelako



Joxe Etxeberria eta Josu Pereda, agerraldirako testuarekin. | UBANE MADERA

zabor motarik ez dugula nahi. Eta hortxe kokatzen dugu aipatu egin izan den *elkartasun* hitzaren esanahia; hau da, eskualde guztiek bilketa selektibo eraginkorrak ezarri ostean egon daitekeen elkartasuna, uste baitugu zaborra ez dena, zabor bihurtzen ari direnen eta ez direnen arteko elkartasuna ezinezkoa da eta.

Asteon jakin dugu Gipuzkoako 100.000 tona hondakin Mutiloara eramango dituztela, ez Epelera...

Ez dio axola. Epelen edo Mutiloan organikoa behar den moduan ez batzeak zabortege bati eta inguruneari dakartzkion arazoak berberak dira.

Zeintzuk dira azpimarratzen dituzten arazo horiek?

1-Despilarroa. Ez gaude ados zabortegeira balioa duten materiala ekartzearekin. Europako mezuen kontra doa, gainera; 2-Beste eskualde batzuetan organikoa berezita batzen ez denez, zabortegeira doan hondakin nahasi horrek izango luke organiko

asko. Eta hondakindegia batean kutsadura sortzen duena organikoa da, lurrean zein atmosferan. 3- Ibilgailuen etengabeko joan-etorria sortuko litzateke inguruan. 4- Epelen jasotzen diren industriako hondakinendako beste bailara bat okupatu beharko litzateke. Mutiloan gauza bera egin beharko da, han hondakin arriskuak jasotzen dituztelako.

Erantzunen bat eman zizueten Batzar Nagusietako ordezkariak?

Espero dugu emaitza positiboak izatea. Esperantza horrekin joan gara. Arrazoi askorengatik: erraza da, egingarria da, eta animatu nahiko genuke beste eskualde batzuetan, eta baita ere beste herrialde batzuetan hondakin bilketa selektiboa martxan jartzeko. Era berean, uste dugu eskualde guztietan bilketa ganorazkoa ez antolatzea dela erabaki politikoa bat. Uste dugu eskualde guztietan bilketa ganorazkoa ez antolatzea dela erabaki politiko bat.



Haritz Azkarraga, Tabakaleran, iazko otsailean. | JAGOBA DOMINGO

Azkarragak dio helburuak bete dituela Tabakaleran

Lau urtean kudeatzaile izan denak dimititu egin du

J. BEREZIARTUA / M. ALTUBE | ARRASATE

"Arrazoi pertsonalak" direla eta aurkeztu zuen joan den martitzenean dimisioa Haritz Azkarraga arrasatearrak, ordura arte Tabakalerako kudeatzaileak: "Kontratatu nindutenean helburu batzuk zehaztu zizkidaten eta horiek bete ditut. Obra bukatzea, enpresa egitura sortzea eta bideragarritasun ekonomikoa bermatzea; horiek beteta daude eta fase baten amaierara heldu gara. Orain, Tabakaleraren kudeaketak haize freskoa behar du", adierazi dio GOIENARI, dimisioa aurkeztu ondoren, eta gaineratu du:

"Naturaltasunez eta normaltasunez aurkeztu dut dimisioa, ez dago arrazoi arrarorik".

Lanarekin "pozik"

Lau urte "intentsu" izan direla Tabakalerako kudeatzaile lanetan onartu du: "Sartu ginenean egoera kaotikoa zen eta horri buelta ematea lortu genuen. Nire gainean jarri ziren lanak, modu batean edo bestean, bete ditugu. Obra esperotako epean eta aurrekontu barruan amaitzea lortu da. Bideragarritasun ekonomikoaren ikuspegitik, kudeaketa aurrekontu estratosferiko batetik aurre-

kontu erreala batera pasatzea lortu dugu eta aurrekontu hori betetzen ari gara", dio, eta gaineratu du: "Beti egin ahal dira gauzak hobeto, baina balorazioa positiboa da orokorrean".

Etorkez "oparoa"

Tabakaleraren kostu finakoari dagokionez, Azkarragak adierazi du "zabaldutako aurretiko estimazioen barruan" dagoela: "Ireki aurretik bideragarritasun plana eta urtetik urterako aurrekontua aurkeztu nizekin administrazio kontseiluari. Zifra hori egoki ikusi zuen eta orain arte egunerokotasunak erakutsi du betetzen ari dela".

Era berean, sinetsita dago Tabakalerak "etorkizun oparoa" duela: "Hasi besterik ez da egin eta egonkortzeko denbora behar du, benetako fruituak ematen has dadin".

Dimisioa onartu

Tabakalerako Administrazio Kontseiluak onartu egin zuen Azkarragaren dimisioa eguaztenean egindako batzarrean. Hala jakinarazi du ohar bidez: "Obraren kudeaketa eta exekuzioan lau urtez lan egin ostean, desadostasun eta irizpide kontrajarrien harira, bi aldeek erabaki dute Tabakalerarentzat hobe dela bere lan kontratua bertan behera uztea". Kudeatzaile berri bat izendatzeko lehiaketa publikoa deituko duela laster gaineratu dute oharrean.

Guardia Zibilak herritar bati heriotza-mehatxua egin diola salatu du Sortuk

AMAIA TXINTXURRETA | BERGARA

Bergaran bizi den Iñigo Akaiturriri Guardia Zibilak heriotza-mehatxua egin diola salatu zuen Bergarako Sortuk martitzenean. Akaiturririk berak kontatu zuen gertatutakoa. Duela hiru aste, Zornotzara lanera zihoala, kontrol batean gelditu zuen Guardia Zibilak, Elorrion. "Autotik aterarazi" eta galdetu zioten ea espetxean egondakoa zen. ETAKO kide izateagatik egon zela erantzundakoa hasi omen ziren galdezka ea zein taldeakoa zen, nortzuek osatzen zuten taldea, nor egin zuten tiro... "Ez niela erantzungo galdera horiei esan nien, eta orduan agindu zidaten Land Rover baten atzean ipintzeko. Bide bazterrean bost bat Land Rover sartuta zeuzkaten".

Geroago, "mehatxua" etorri zen: "Esan zidan ea ordainduta nuen egindakoa; nik baietz eta berak ezetz. Erantzun nion: 'Hori zure arazoa da, ez nirea'. Eta orduan esan zidan ordaintzekotan zelan zen modurik errazena berarentzat: zulo bat egitea, buruan tiro bat ematea eta lurperatzea zulo horretan". Sala-

keta jarri zuen Guardia Zibilaren aurka Bergarako epaitegian.

Biolentzia gelditzeko exijitu

Bergarako Sortuk "babesa" helarazi dio Akaiturriri. Martitzenean gogorarazi zuen gertaera hori ez dela "kasu isolatua", eta biolentzia hori guztia gelditzeko exijitu zuen. Bide batez, Angel Otaegiren familiak deitutako ekitaldian parte hartzeko gonbita egin zuen; bihar da, Azpeitian.



-Zaharberritzeak
-Ikuskaritza Teknikoak (ITE)
-Ziurtagiri energetikoak (CEE)
-Diru laguntzen gestioa
-Ilgailuen proiektuak
-Barne dekorazioa
-Jarduera lizentziak

tel: 677 31 20 57
email: amaiigartua@gmail.com
www.aiarkitektura.wordpress.com
Oñati

Hauteskundeen ondoren, gobernatzeko aukeretan pentsatzeko garaia da

- ▶ EAJ izan da garaile EAEn; Debagoiengan, EH Bildu
- ▶ Abstentzia inoizko handiena izan da: ia %38

MIREN ARREGI | ARRASATE

Atzo hasi zuen EAJk gainerako alderdiekin iragarritako bilera sorta -domekako hauteskundeean Legebiltzarrerako 29 eserleku eskuratu zituen-. Oraingoz, aukera guztiak daude mahai gainean, baita bakarrik gober-

natzearena ere. EH Bilduk hiruko itun bat egiteko eskaintza berretsi dio Arnaldo Otegiaren ahotik eta Elkarrekin Podemos bere burua oposizioan ikusten dutela esan du. Jeltzaleek adierazi dute, bestetik, Alderdi Sozialistarekin Gipuzkoako Foru

Aldundian duten itunak Gipuzkoako diputazioko gobernuari egonkortasuna eman diola.

EH Bildu Debagoiengan nagusi

Debagoiengan EH Bildu izan da alderdi bozkatuena azkenengo urteotan bezala, nahiz eta jeltzaleek -bigarren indarra- murriztu egin duten 2012koetan lehenengoarekiko zuten aldean. EAJ alkatetza duen lau herrietatik hirutan -Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza- irabazle atera da, baina Bergaran EH Bildu nagusitu zaio, ia 200 botoen aldearekin. Ostarantz, EH Bildu nagusitu da Oñatin, Antzuolan, Aramaion, Elgetan eta Leintz Gatzagan.

Ordezkarren balorazioa

Pozik azaldu dira EAJko Debagoiengo ordezkariak hauteskundeean EAJk lortutako emaitzekin. Victoriano Gallastegi bergararrak oso pozik daudela eta programan agindutakoa beteko dutela adierazi du astean. EH Bildu koalizioko Oñatiko alkate Mikel Biainek, berriz, nabarmendu du Legebiltzarrean erabakitzeko eskubidearen aldeko gehiengo dagoela eta horrek ilusioa pizten duela: "Ikusi egin beharko da, baina, zein paper jokatzeko duen EAJk". Podemos alderdiko Salva Gonzalezek, bestetik, kampainan izan dituzten "zailtasunak" ekarri ditu gogora, eta horiek kontuan izanda emaitzekin pozik daudela gaineratu du. PSE-EEko Pacho Gartzia emaitzak onak ez, baina txarrenak ere ez direla esan du.

AINHOA LARRAÑAGA
IRAKASLEA

"Jakín behar da botoa ematen ez duenak zergatik ez duen ematen"

MUko irakasle eta ikertzaile da Ainhoa Larrañaga bergararra. Emaitzengainean aritu gara harekin.



GOIENA

EAJ atera da garaile eta erabakitze eskubidearen aldeko gehiengo izango da Legebiltzarrean. Zer gertatuko da?

Paktuei dagokienez aurreikusten da EAJk Alderdi Sozialistarekin negoziatzea. Nekez ikusten dut beste edozelako akordio. Erabakitze eskubidearen bidean zer gertatuko den? Ezer ez. Esango nuke kontzeptu horren inguruan nahasketa handia dagoela eta ez dagoela sustantziatzeko urratsik egiteko borondaterik.

EH Bildu izan da indar nagusia Debagoiengan eta bigarrena EAJ, 500 botoko aldearekin. Hirugarren indarrekiko alde handia da.

Herri mailan gertatzen diren fluktuazioak gauzak bat dira eta beste gauza bat da plano autonomikoa. Aurreikusten zen EH Bilduren gorakada. Arnaldo Otegiaren figura hor dago; gainera, lider berri eta indartsuak atera dituzte.

Abstentzia inoizko handiena izan da. Ia %38.

Aztertu behar da botoa ematen ez duenak zergatik ez duen ematen. Batetik, konfiantza falta dago; politikak duen desprestigioa... Badago baita ere politikoki aktiboa den sektore bat makineria hori elikatzen aurrerapausorik emango ez dela pentsatzen duena. Abstentzio aktiboa, esan gura dut.

JESUS UGALDE
JAKIUNDEKO PRESIDENTEA

"Lehen bi alderdien mezuak errotuta daude Debagoiengan"

Jesus Ugalde Uribe-Etxebarria (Bergara, 1957). Kimika Fisikoko katedraduna da Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU).



GOIENA

EAJ atera da garaile eta erabakitze eskubidearen aldeko gehiengo izango da Legebiltzarrean. Zer gertatuko da?

Ez dakit. Oso igarle eskasa izan naiz orain arte izan diren hauteskundeen ondorengoak antzemateko. Askotan, "zer gertatuko da?"-ri erantzun ordez "zer gustatuko litzaidake gertatzea?"-ri erantzuten diot konturatu gabe eta gehienetan ez dira berdinak izaten.


EH Bildu izan da indar nagusia Debagoiengan eta bigarrena EAJ, 500 botoko aldearekin. Hirugarren indarrekiko alde handia da.

Bi alderdi horiek eta euren mezu politikoak guzti errotuak daude eskualdean. Gainontzeko alderdienak ez bezala. Baina hau ez da balorazio bat, deskribapen soila baizik.

Abstentzia inoizko handiena izan da. Ia %38.


Boto zuriak izango balira, ongi, baina abstentzioa... Badakit badaudela bainbat elkarre hauteskundeean parte ez hartzea aldarrikatzen dutenak eta ulertzen ditut beren arrazoiak, baina ez zait iruditzen abstenitu diren ehunetik hogei hemezortzi horiek talde hauetakoak direnik. Abstentzioa handiegia izan da, nire gusturako.

DEBAGOIENEN 'LEGEBILTZARRA'



Lehenengo biak botoetan gertuago

Debagoiengan, EH Bildu izan da alderdi bozkatuena. Guztira 12.357 boto eskuratu ditu. Bigarren alderdi bozkatuena EAJ izan da, 11.822 botorekin. Lehen bi indar nagusiak nahiko parekatuta daude eskualdean, 500 bat botoen alde baitago bien artean. 2012ko Legebiltzarretakoetan, ia 3.000koa zen. Hirugarren Elkarrekin Podemos koalizioa gelditu da, 4.059rekin, eta laugarren PSE-EE, 2.448rekin. PPK 1.086 boto lortu ditu eta Ciudadanos 248.



EUSKO
LEGEBILTZARRA
2016



PELLO URIZAR
EH BILDU

Arrasate, 1968. Ingeniaria. Eusko Alkartasuneko idazkari nagusia da 2009tik. 1995etik 1997ra eta 2000tik 2007ra Arrasateko zinegotzi izana da. Legebiltzarkide izan da Eusko Legebiltzarreko X. Legegintzaldian (2011-2016).



REBEKA UBERA
EH BILDU

Elgeta, 1972. Magisteritzan lizentziaduna. Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkidea. 2014ko azarotik Aralarko idazkari nagusia da Zabaleta ordezkatur. Legebiltzarkide izan da Legebiltzarreko X. Legegintzaldian (2011-2016).



LARRAITZ UGARTE
EH BILDU

Oñati, 1976. Zuzenbidean doktorea eta kriminologian aditua. 2011tik 2015era Gipuzkoako Foru Aldundiko Azpiegiturak eta Mugikortasun Foru Diputatua izan da, baita erakunde horretako bozeramailea ere.



MAIDER OTAMENDI
EH BILDU

Eskoriatza, 1976. Ingeniaria. Orendainen jaioa da, baina Eskoriatzan bizi da. Hiru agintalditan izan da Eskoriatzan zinegotzi. Gipuzkoako Foru Aldundiko Finantza eta Aurrekontu alorreko zuzendari izana da.



AITOR URRUTIA
EAJ

Eskoriatza, 1973. 2015eko irailaren amaieraz geroztik legebiltzarkidea da, Maria Eugenia Arrizabalaga ordezkatur. Eskoriatzako EAJren alkategai eta zinegotzi izan da aurreko bi agintaldietan, 2007tik 2014ra.



LUIS JAVIER TELLERIA
EAJ

Antzuola, 1957. Biologian eta ekologian doktorea EHUUn, 1984tik. Azti -Tecnalia eta Neiker -Tecnaliako zuzendari izandakoa 1987tik 1990era. Legebiltzarkide izan da Eusko Legebiltzarreko X. Legegintzaldian (2011-2016).



RAFAELA ROMERO
PSE-EE

Quintana de la Serenan (Badajoz, 1972) jaioa, gaztaroa Arrasaten eman zuen eta zinegotzi izan zen (1995-1998). Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidentea 2007-2011 bitartean. Sozialisten bozeramaile izan da Batzar Nagusietan.

Urriaren 21etik aurrera Goiena aldizkaria indartsuago etorriko da

- + Albisteak zabalagoa emango dizkizu.
- + Orrialde gehiago izango ditu.
- + Neurri erabilgarriagoa izango du.

goiena"

ZABALIK

XABIER LETONA
goiena.eus/komunitatea/



Gatazkaz blai

Gatazka da gizartea mugiarazten duen gurgila, eta zibilizazioaren erronka berau "ahalik eta baketsuen" bideratzea, kontrako muturrean "ahalik eta odoltsuen" dago eta. Gatazka hor da beti, baina ahalik eta urrutien gura da. Gatazkaren kudeaketarako masterrak, oster, gero eta gehiago dira.

Inpresioa dut hauteskunde kanpainan alderdiek ihes egiten diotela gatazkari. Ez da erakargarria. Gipuzkoan, adibidez, erraus-tegiaren inguruan gatazka handia dago, baina ez da ispilatu hauteskundeetan. Beste arazo bat: milaka langile egon daitezke hitzarmen kolektibo barik, eta horrek liskarra sortzen du gehien-go sindikalaren eta Jaurilaritza-ren artean, baina hauteskundeetan jai.

Eskandalu soziala sortzen da argazkiak umetxoia hondartzan hilik azaleratzen duenean. Europar Batasunak eraiki gura duen harresiaren gaiak bat egiten du denboran kanpainarekin, baina hemen berriro ere jai. "Ez dugu eskumenik", esango du batek; "Eta, gainera, gai arantzatsua da", pentsatu besteak: errefuxiatuak, immigranteak... Hobe alfonbra azpira.

Gutxiegi islatu da gatazka soziala hauteskundeetan, baina hori ere bada esanguratsua, noiz eta krisia geratzeko etorri denean. Legebiltzarrerako hauteskundeak eta bere emaitzak hor daude, herritarrek hautatu du eta kito. Baina horrek ez du gatazka soziala ezabatzen, ez eragile sozialen zilegitasuna txikitzen.

Urkullu lehendakariari ez zaio gustatzen "ardurarik gabeko" mugimendu sozialek alderdien jarduna "baldintzatzea". Kontua da hauteskundeek ez dutela beti errealitate soziala islatzen, eta eskerrak; demokrazia ordezkatzailak ezin duela demokrazia parte-hartzailea ezabatu. Eta eskuinaren bake soziala eta egonkortasun mitikoa gatazkaz blai daudela.

Erraus-tegira itzulita, Gipuzkoako errealitate instituzionalak aurrera atera nahi du, baina kontsulta batean gipuzkoarren gehien-goak esango lioke ezetz, argi eta garbi, gainera. Ezetz?

USTEAK USTE


XABIER URZELAI | xurzelai@goiena.eus

Animo!

Badira erreskadan ematen ditugun animo mezuak, sare sozialek horretarako ematen duten erraztasunaz baliatuta. Albiste txar baten berri izan, eta olatua dator segidan. Baina bata bestearen jarraian jasotako *animo!* horrek indarra galtzen duen sentazioa izaten dut maiz, mezuak berak indarra galduko balu moduan, edo errazegi emango bagenitu moduan. Niri, besteak kostatzen zaizkit gehiago; benetan iristen diren animo mezuak, begietara begira ematen direnak, besarkada batekin edo bizkarrean kolpe batekin lagunduta. Egunero ez ditugu halakoak behar, baina tarteka eskertzen dira. Bada, animo! Bai, badakit, errazena egin dut orain ere.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.eus/komunitatea/



GUTUNAK

Eskerrik asko, Gatzaga!

Nerea Altuna, Ainhoa Barandiaran, Jaione Makazaga eta Saioa Urrutia
(Gatzagako Guraso Elkartearen izenean, GUREL)
Leintz Gatzaga

Kaixo!

GURELeko kideok Gatzagako herritar guztiei eskerrak eman nahi dizkizuegu.

Eskerrik asko azken urteetan egin diren ekintzetan parte hartzeagatik –argazki erraldoia, sinadura bilketak, zozketak, Lakuara irteera...–; eskerrik asko eskolak eta herri honek merezi duela gogorarazteagatik; eskerrik asko baxu egon garenean animatzeagatik; azken finean, eskerrik asko emandako babes guztiagatik.

Mundialak zarete!

Duela gutxi jakin dugu aurtengo ikasturterako eskola ez dutela itxiko. Berri oso onak dira! Eta gure poza zuekin partekatu nahi dugu. Arazoei aurre egiteko batzen bagara, nola ez gara ospatzeko batuko?

Eskerrik asko, bihotzez, eta zorionak gatzagar guztioi, eta baita bide honetan lagun izan zaituztegun elkarte, erakunde, sindikatu zein norbanako guztiei ere.

Maitatu eskola, maitatu herria!

Igandean, zatoz Kilometroetara... bizikletan!

Itxaso Fernandez
(Aranzadi Ikastolako DBHoko 2. mailako ikasleen izenean)
Bergara

Igande honetan Kilometroak jaia ospatuko da Bergaran, Aranzadi Ikastolak antolatuta.

Ikastola honen helburuetako bat Kilometroak jai jasagarria ospatzea denez, igandean Bergarara bizikletaz etortzera animatzen zaituztegu.

Kutsadurarik ez du sortzen; garbia da; osasungarria; dibertigarria; bidegorri eta aparkalekuak erabilgarri izango dira; egokia eta eroso

da; talde, lagunekin nahiz familian joateko aproposa; ordutegi aldetik ez dauka mugarik eta nork bere kasa antolatu ahal du joan-etorria; ez dauka kosturik; autobusen edo bestelako ibilgailu edo garraiobideen kopurua murriztea dakar...

Onurak asko dira, hortaz, eta, gainera, bizikleta martxak antolatu dira Oñati, Arrasate, Antzuola eta Sorluzetik. Bi martxa egongo dira: bat, 09:00etan; eta bestea, 10:30ean (Antzuola, 10:00). Martxek gain, norbera nahi duenean ere etor daiteke.

Martxetarako, topaguneak egongo dira: Arrasaten, Eroskiko aparkalekuan; Oñatin, Etxe Aundin; Antzuolan, herriko plazan; eta Sorluzen, bidegorriaren hasieran.

Aparkalekuetan zaindaria egongo dira, 20:00ak arte, sartzen laguntzeko, aparkatzeko, bizikletak zaindu eta ateratzen laguntzeko ere. Bi aparkaleku izango dira: bat, Labegaraian; eta bestea, Agorrosingo kirol eremuan.

Ea, bada, animatu!

Karakterek, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena-abizenak, herria eta telefonoa. Gutuna helarazteko: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagire

Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Uthane Madera
Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Publizitatea Mireia Larrañaga,
Amaia Mundinano, Zieritza Martin,
Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetzea eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain,
Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa


EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-hutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 00
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.850 ale
Difusioa: 18.507 ale

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurilaritza diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Ekideren produktu berriak ikusmina sortu zuen Kolonian egindako Kind & Jungend azokan.

Deki-k, Ekideko marka berriak, Babybalanz kulunkailua aurkeztu du Koloniako K&J Ferian

Babybalanz kulunkailu automatikoen haurtoaren kotxetxo edo sehaska modu seguru eta automatikoki mugitzen dute. Produktua bereziki diseinatu da kulunka-abiadura amaren bihotzaren taupaden antzekoa izan dadin, haurtoaren baretzen laguntzen duen mugimendu suabe eta natural batekin. Gainera, arinak, seguruak eta erabilerrazak dira.

Ekide 25 urtetik gorako ibilbidea duen Arrasaten sortutako enpresa da, ingeniartzaren eta fabrikazio-teknologiaren integrazioan aditua dena.

Duela urtebete, Ekidek Deki marka sortu zuen bere produktu propioak garatu, fabrikatu eta komertzializatzeko helburuarekin

Eguneroko bizitza errazteko eta erosoagoa egiteko produktu teknologikoak garatzen ditu Deki markak. Honela, ingeniartza eta berrikuntza uztartuz, Dekik hemen zein beste herrialde batzuetan oso ezagunak diren produktuak garatuak ditu; esaterako, Dry&Go (lehenengo paraplis), umeen karrotoetan zein gurpil-aulkietan euritakoa jartzeko euskarria.

Produktu hauek nazioartean izan duten harrera ona ikusita, I+G alderdia sustatu eta indartzera bultzatu du Ekide, produktu teknologikoagoak sortzeko, eta, honen fruitu, haur-kotxeak eta sehaskak automatikoki kulunkatzeko gailu automatikoaren garapena izan da.

Ingeniaritza eta berrikuntza uztartuz, Dekik hemen zein beste herrialde batzuetan oso ezagunak diren produktuak garatuak ditu; esaterako, Dry&Go (lehenengo paraplis)



Artikulu teknologiko eta berritzaile hauek mundu mailan erreferente diren Kind & Jungend Koloniako (Alemania) eta Las Vegasko (AEB) azoketan aurkeztu berri dituzte. Azoka hauek mundu osoko haurren sektoreko ia 40.000 bisitari profesional biltzen dituzte. Eta bertan jaso duten harrera eta oihartzun zabala bultzada ederra izaten ari dira hasitako bide berri honentzat. 110 pertsonak osatzen duten enpresa honen jarduna 3 espa-

rru ezberdinetan sailkatua dago: automoziorako kontrol-tresnen diseinua eta fabrikazioa; material eta prozesu ezberdinetan burututako serie laburrentzat ingeniartza eta fabrikazioa; eta azkenik, ikusmen artifiziala, fabrikazio-prozesuari balioa erantsiz eta bezeroei irtenbide globalak eskainiz. Horrela, Ekide hainbat sektoretan presente dago; esaterako, automobilgintza, trenbide, autobus edo elektromedikuntza.



HERRIAK

LEINTZ GATZAGA

Mundu mailako erreferente

- Organikoa konpostaren bidez tratatzeari buruzko txostena aurkeztu dute Belgrad-en
- Leintz Gatzagako hondakinen kudeaketa ereduaz aztertu du Joseba Sanchez teknikariak

ENEKO AZURMENDI | LEINTZ GATZAGA
Leintz Gatzagako Udalak hondakin organikoa kudeatzeko darabilen ereduaz aztertu du Joseba Sanchez ingurumen aholkulariak landutako txostenak. Uztailean Gijonen txostenaren alde soziologikoa aurkeztu zuen Sanchezek eta orain, Belgraden –Serbia–, alde teknikoa aurkeztu du, mundu mailako kongresu batean. Hala ere, bere lankide batek aurkeztu behar izan du, Ramon Planak, Sanchezek ezin izan du eta bertara joan.

Eredu deszentralizatua

Hondakin organikoa sortzen den leku berean kudeatzen oinarritzen da eredu deszentralizatua. "Hondakina jaso eta leku zentralizatu batera eraman beharrean, tokian bertan tratatzea da", azaldu du Sanchezek. Hain zuzen ere, eredu hau da Leintz Gatzagak erabiltzen duena.

Arrakastatsua

Oso erantzun ona izan du lan honek kongresuan. "Bertan zeudenengan interes handia piztu zuen nire lanak; egia esan, ez nuen espero", nabarmendu du Sanchezek. "Udalak egindako lana baloratu zuten. Agian, hemen ez dugu hainbeste baloratzen, baina beste leku batzuetan asko baloratu dute", gaineratu du. Oraindik deiak eta e-mailak jasotzen dituela dio, informazio eske.



Joseba Sanchez txostenaren egilea, Leintz Gatzagako konpost-gunean. | IMANOL BELOKI

Kongresu garrantzitsua

Besteak beste, mundu osotik joandako ingeniariak, politikariak eta teknikariak batu dituen kongresua izan da Belgraden eginkoa, 72 herrialdeetatik hurbildutako 1.300 parte-hartzaile baino gehiago batu dituen. Bertan parte hartu ahal izateko, martxoan eman zuen izena Sanchezek. "Lehenik, laburpena bidaltzen duzu, eta, horren arabera, zure lana

kongresuan aurkezteko aukera ematen dizute edo ez", dio txostenaren egileak. Kongresu horren baitan, ondorengo saioan aurkeztu zen Sanchezen lana: *Hondakin organikoa prozesu biologiko bitartez kudeatzeko eredu deszentralizatuak*.

Erreferente

Leintz Gatzagan erabiltzen den eredu hau mundu mailako erre-

ferente bihurtu da. "Beste herrialde askotan, konpostajea erabiltzen da eta iniziatiba batzuk ere badaude, baina ez da benetako erreminta bat bezala erabiltzen. Beraiendako, konpostaje deszentralizatua da 300 tonako planta bat. Beraz, eskala txikiagoan egin daitekeela eta ondo funtzionatzen duela ikusten dutenean, harritu egiten dira", azaldu du ingurumen aholkulariak. Gaineratu du hemen

Herrian sortutako hondakin organikoa herrian kudeatzen du Leintz Gatzagak

Eredu honek interesa piztu du nazioarteko zenbait profesionalengan

"herri guztian" kudeatzen dela hondakin organikoa, eta hori, leku askotan, planteatu ere ez dutela egin oraindik.

Bailaran, bakarra

Debagoien osoan, Leintz Gatzaga da organikoa kudeatzeko eredu hau erabiltzen duen herri bakarra, nahiz eta herri guztietan kudeatu. "Eskoriatzan, adibidez, auzo-konposta egiten dute, baina, horrez gain, bilketa ere badago. Gatzagan herritarrendako bilketa sistemarik ez dago", azpimarratu du.

ISWako kide

International Solid Waste Association erakundeko bazkide da Sanchez. Horregatik, kongresuetarako harremana "errazagoa" dela aitortu du.

JOSEBA SANCHEZ | INGURUMEN AHOLKULARIA ETA TXOSTENAREN EGILEA

"Ez nuen hainbestearinoko interesik espero, pozik nago"

Joseba Sanchez leizarra da hondakin organikoak kudeatzeari buruzko txosten honen egilea. Bere doktoretza lanaren parte da txosten hau.

Zer da, zehazki, txosten honetan aztertu duzuna?

Orain arte, hondakin organikoaren kudeaketa sistema beti bera izan da; hau da, jaso eta toki zentralizatu batera eraman, bertan tratatzeko. Nik aztertu dudana, ordea, aurkako da; eredu deszentralizatua, hondakin horiek sortutako tokian bertan kudeatzea. Lehenik, sozialki aztertu nuen: jendea pozik zegoen sistema honekin edo ez; jendeak egiten zuen edo ez; ez bazuen egiten, zergatik, eta abar. Txostenaren alde hori Gijonen aurkeztu nuen eta Belgrad-en, berriz, alde tekniko; hau

da, behin eredu horren aldeko apustua eginda, ekonomikoki eta teknikoki bideragarria den.

Zer egin duzu bideragarria den edo ez jakiteko?

Lehenik, edukiontziak aztertu, jendeak egiten duela frogatzeko. Nahiko ongi eginda zegoela ikusi nuen. Ondoren, sistema aurre-eramateko, pertsona baten beharra zegoela konturatu nintzen, eta, kasu honetan, herriko brigada izango litzateke. Azkenik, kalkulatu nuen brigada horrek nolako lan-karga izango lukeen. Baldintza horiek kontuan hartuta, gainontzeko sistemekin konparatu.

Organikoa bakarrik zentralizatu da sistema hau?

Hori da. Legeak dio zabortegira ezin dela bota eta ezin dela erre egonkor-tu gabe dagoen gauza bat. Gaur egun, Guk Gipuzkoan egiten duguna da organikoa eta dena nahastuta zabortegira bota. Beraz, guke egiten duguna da organikoa kendu, legea betetzeko, eta beste modu batean kudeatu, Epelera eraman beharrean, herrian bertan tratatu. Oraingoan, organikoarekin bakarrik egiten dugu, baina hemendik 5-10 urtera estrapolatu egin beharko litzateke gainontzeko frakzioetara.

"Hemendik 5-10 urtera, beste frakzioetara estrapolatu beharko litzateke"

Belgradeko kongresuaren ostean, deiak eta e-mailak jasotzen ari zara, informazio eske.

Bai. Kontua da kongresuan 25 minutu ematen dizkizutela azaldu behar-rekoa azaltzeko. Gainera, normalean jendeak ez du galdetzen eta momentuan jasotako informazioarekin galdetzen da. Gure kasuan, ordea, alde-rantzizkoa izan zen. Deitu egin digute, galdetzeko, interesatzeko eta hobeto azaltzeko. Egia esan, ez nuen espero hainbestearinoko interesik; beraz, oso pozik.

Nondik sortu zitzaizun txosten hau egiteko aukera?

Nire doktoretza lanaren barruan dago kokatuta azterketa hau. Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko



JOSEBA SANCHEZ

sistema guztiak ari naiz aztertzen. Kasu honetan, Gatzagako Udalak aholkulari bezala kontratatatu ninduen eta sakonago eta bertatik bertara aztertu ahal izan dut. Azkenengo urtebetean ni egon naiz Gatzagan eta orain dela bi urte Mankomunitatearekin egiten nuen lan. Beraz, zenbat eta denbora luzeagoa izan, orduan eta sakonago aztertzeko aukera ematen dizu.

Amaia antzokia

Antzerkia
Haur-antzerkia
Musika
Dantza
Zarzuela
Opera

Urria-Abendua

2016



DANTZA

Urriak 1
'Tormenta' / Cía Cielo rasO



OPERA

Urriak 18
'El Barbero de Sevilla' / Ozenki elkarte



ANTZERKIA

Urriak 30
'Mami Lebrun' / Xake produkzioak



ANTZERKIA

Azaroak 6
'Aingeru ala kurriloi?' / Doke antzerki taldea



DANTZA

Azaroak 12
'Vuelos' / Aracaladanza



ZARZUELA

Azaroak 19, 20, 25 eta 26
'La del soto del parral' / Izaskun Murgia Elkarte Liriko



HAUR ANTZERKIA

Abenduak 3
'Moby Dick' / Gorakada



MUSIKA

Abenduaren 8tik 11ra
XXIV. Nazioarteko Akordeoi lehiaketa



MUSIKA

Abenduaren 23
Benito Lertxundi



MUSIKA

Abenduak 31
Arrasate Musikaleko banda



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

Kultura Saila ■

Laguntzailea:



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Sarrerak:
www.arrasate.eus

Euskara "gai estrategikoa" da Udal Gobernuarentzat

- Sail horretan "hausnarketa sakona" egiten dihardute
- Udal barruan zein kanpoan elkarlana sustatuko dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Udaletxean 36 urtez euskara teknikari izan den Joxefe Diaz de Tuestak erretiratu zen egunean GOIENARI emandako elkarrizketaren harira –"Euskara zerbitzua kili-kolo geldituko da; egoera kezagarria da", zioen, besteak beste, oharra kaleratu du Udal Gobernuak, euskararekiko konpromisoa

berretsita: "Euskarak garrantzi handia dauka, gure kulturaren oinarritzat har genezake eta Arrasate euskalgintzan aitzindaritzat jotzen dugu. Udaleko gai estrategikoa da eta momentu egokian gaude sail honetan hausnarketa sakon bat egiteko eta, etorkizunerako erabakiak hartuta, aurrepauso sendoak emateko".

Alkatetzatik zuzenean
Euskara Saila "transbertsala" izan behar dela uste du egungo gobernuak: "Benetan duen garrantzia eman behar zaio, eta, horregatik, Alkatetzatik zuzenean eramango den departamentua izatea proposatzen dugu, horrek ekarriko dituen aldaketa guztiak". Erlojuaren Eraikinera pasatu

nahi den Udal Euskaltegiaren papera ere indartu nahi dute, besteak beste: "Langileen esperientzia erabiliko dugu Euskara Sailean inplikaturik eta aktiboki lan egin dezaten, eta ez irakasle soil bezala". Horrekin batera, Kultura Sailarekin eta herriko elkarteekin zein eragileekin elkarlana "aktiboki" areagotu gura du Gobernuak.

Gainera, Euskara Saileko teknikari guztien lan profesionala eskertu gura du Udalak. "Etor-kizunean ere euren lana eta ezinbesteko kolaborazioa izaten jarraituko dugula espero dugu. Arrasaten baditugu taldeak, elkarteak, komunikabideak, euskararen inguruan gogor eta ondo lan egiten dutenak. Gure hizkuntza minoritarioa izanik, euskararen aldeko estimulazio politikak beharrezkoak dira eta horretan jarraituko dugu", diote oharrean.

NIRE USTEZ

HORAZIO ARGARATE



Boterea

Sexua bezain erotikoa, hura bezain erakar-garria, omen da boterea. Gizakiok "agintzeko grina" hutsa garela oihukatzen zuen Nietzschek. Eta badirudi oker ez zebilela.

Nagusitasun gogoia odolean daramagula dirudi eta ondorioz, obeditzeko zaletasuna patologiatzat hartuta daukagu.

Gutako bakoitzari bere esparruan, arlo umilenean bada ere, baino hartan besterik ez bada, bertako errege izateko sentimenduak gainezka egiten digu.

"Gizona gizonarentzako otso" zioenak abere taldeak mailan funtzionatzen den indarraren hierarkia islatu nahi izan zigun eta desbideratuta ez zebilela aitortu beharra dago.

Aste honetan, gurean, beste behin –azkenaldi honetan gehiegitxo ez bada erbotoen boloa egin dugu.

Haurrak plazan balkoitik botatzen diren gozokiak harrapatzeko egiten duten saiakera bezain zalapartaria, hortxe ibili dira hautagaiak botoen eskukadak bereganatu nahian.

Demokraziaren jokoan patrikak eta poltsak herriaren nahiarekin betetzea nahi izatea zilegi da, baldin eta nagusitasunaren jokoaren amaieran patrika horiek ondo hustuta eta garbi garbiak etxeratzen badira.

Nazaretoko Jesusek aspaldian esan zigun: "Zuen artean nagusi izan nahi duenak bego zuen zerbitzari". Abere izatetik gizaki izateko bidea da.

"Hautagaiak botoen eskukadak bereganatu nahian ibili dira"

115 botorekin, 'Atzerantz begirada' izeneko horma-irudia Elmarako

J.B. | ARRASATE
Udaleko Obrak, Zerbitzuak, Mantenua eta Auzoak batzordeak eman du Gipuzkoa etorbiderako (Elma) hormarendako irudi aukeratuaren berri. Udalak irekitako parte-hartze prozesuan 261 boto jaso dira –173 webgunean eta 88 BAZen–; horietatik 115 boto jaso ditu *Atzerantz begirada*-k, 60 *Basoa*-k, 41 *Arrasateko historia*-k, 32 *Monumentu*-k eta 13 *Udazkeneko basoa*-k. Bilboko Wallart Mural Painting enpresaren ardura izango da horma-irudi berria egitea. "Garbiketa lanak amaitzear dituzte eta ondoak kentzeko tratamendua ere emango diote paretari. Zuriz margotuko dute lehendabizi eta gero gainetik irudi berria marraztu. Eguraldiak laguntzen badu hiru edo lau aste beharko dira lanak

amaitzeko. Azkar bukatu baino gehiago, garrantzitsuena da horma behar den moduan gelditzea", adierazi du Oscar Garciak. Lanek 15.125 euroko aurrekontua dute.

Muralart taldearen aukerak
Mural berri bat egingo zela zabaldu eta gutxira herriko Muralart taldeak beste bost proposamen aurkeztu zituen. "Lanak lehiaketa publiko bidez esleitzea erabaki genuen eta horretarako ezinbestekoa da izaera juridikoa duen elkarte bat izatea. Hala ere, eurenkin egin genuen berba etorkizuneko proiektuetarako eta onartu genuen, kreditu aldaketa baten bidez, 2.000 euroko partida bat irekitzea", dio Garciak. Partida hori Erlojuaren Eraikinean mural berri bat egitera bideratuko da (ikus 13. orria).



Santa Ageda abesbatzako Eugenio Gallastegi iazko Nobenaixuan. | LARRAITZ ZEBERIO

Trikitixa Eskolari jarriko diote inbutu preziatua gaur, Maritxupean

J.B. | ARRASATE
Maritxu Kajoik 40 urte beteko ditu aurten. Urriaren 7an ospatuko da, ohikoa baino gehiago egunik dotoreenerako. Gainera, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan jaieguna izango dela aprobetxatuta, goizeko jai giroa indartzen saiatu da Komisiñua. Lau hamar-kada beteko ditu txikiteroen zaindariak, eta, hasierako urteak gogora ekartzeko, eskapulario karratuak atera dituzte aurten: "Biziberrituta dator Maritxu, gatzetasuna eta lagun artean ondo pasatzeko gogoak ez direlako adinean eramaten, jarreran baizik".

Trikitixa Eskolak 25 urte
Urtero moduan, egun handiaren aurreko egubakoitzean Nobenaixua ospatuko dute Maritxu azpian (18:30). Arrasateko Trikitixa Eskola omenduko dute gaur, aurten 25 urte betetzen dituela aintzat hartuta: "Herrian egin duten eta egiten duten lan guztiarengatik jasoko dute inbutu preziatua".

Komisiñuak jakinarazi duenez, ikasleek trikiti eta panderoak astinduko dituzte Maritxupean. Eta, urteroko ohiturari jarraituz, "primerako" ardoa eta gazta probatzeko aukera egongo da Trikitixa Eskolako kideei esker ona adierazteko ekitaldiaren ostean.



Atzerantz begirada izeneko aukerak jaso ditu boto gehien. | ARRASATEKO UDALA

Zabaldu berria!

Chic
ESTILISTAK

MARITXUTAN ZABALIK!

Txanda eskatu

Ile biltzea +
Makillajea +
Orraztea
45€



Astehenetik asteazkenera: 09:30 – 16:00

Ostegunetan eta ostiraletan: 09:30 – 19:00 | Zapatuetan: 09:00 – 13:00

Tel.: 943 04 10 07 | Antso Abarka 6 | Zigarrola | Arrasate

Martxan da berriro Auzoko egitasmoa, jende berria erakartzeko asmoz

Euskara, aniztasuna eta herritarrek batzen dituen Auzoko egitasmoa gertu dago ikasturte berrirako. "Aniztasuna aitortuz, euskara komunikazio eta kohesio hizkuntza gisa erabiltzeko proposamena da", diote. Jende berria erakarri gura dute; hurrengo hitzordua *Auzokoak* dokumentalaren proiektzioa urriaren 10ean.

Aske geratu dira astelehenean atxilotu zituzten 22 urteko gaztea eta haren aita

J.B. | ARRASATE
Segurtasun Sailak gazte arrasatearrari leporatzen dio azken egunetan Musakola auzoko zenbait garajetan eta lokal baten indarrez sartu eta bizikleta bi, zenbait telebista, golf makila batzuk eta kutxa gotor bat lapurtu izana. Miaketan, agenteak konturatu ziren atxilotutako

gaztearen aitak motxila bat gordeta zuela garajeen; motxila horretan arma bat topatu zuten agenteek, 58 kartutxorekin batera. Jabeak 2017ra arte armak erabiltzeko debekua ezarrita zuela ikusita, hura ere atxilotu zuten, armak legez kontra edukitzea egotzita. Aske geratu dira, epaiketaren zain.



Ezkerraldeko paretan egingo da murala —eraikinari begira eskuinaldean—. | J.B.

Erlojuaren Eraikineko irudi berria, herriko muralisten esku

J.B. | ARRASATE

Kulturola ekimenaren barruan aurreikusita dago Erlojuaren Eraikina guztiz berritzea, eta Gipuzkoa etorbideko muralaren inguruan gertatutakoaren hari- (ikus 12. orria), Udal Gobernuak erabaki du herriko Muralart taldea aintzat hartzea lan horretarako; 2.000 euroko partida bat bideratuko dute.

Gobernuak azaldu duenez, muralista taldeko ordezkari batek Udalarri proposatu zion "horma esanguratsu" horretan mural bat egitea, eraikinak iraganean izandako industria edota trenarekin harremana islatuko lukeena: "Udalak begi onez ikusi zuen muralisten pro-

posamena; izan ere, hainbat kultura talde eta euskaltegia jasoko dituen eraikinean herriko beste artista talde baten lanak balio gehigarria ematen dio eraikinari berari".

"Aukera ikusgarriak"

Gobernuak espero du, Gipuzkoa etorbiderako Muralart taldeak prestatuta zituen "aukera ikusgarriak eta bikainak" ikusita, arrasatearrek "gogoz" hartuko dutela Erlojuaren Eraikinerako proiektua: "Muralista taldeak hainbat lan eginda ditu dagoneko herrian eta Erlojuaren Eraikina zerrenda luze horri gehituko zaion beste lan esanguratsu bat izango da".

Eusko Legebiltzarrerako ere, EAJ lehen indarra

2012koekin alderatuz jeltzaleak dira gora egin duten bakarrak, Elkarrekin Podemos ez zegoela aintzat hartuta

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

EAEn erakutsitako indarraren adierazle, EAJ izan zen nagusi Arrasaten ere. Arrasateko Uri Buru Batzarra "oso pozik" dago jasotako babesarekin: "Boto kopuruaren analisietan sartu barik, zurrira da 2011z geroztik gero eta arrasatear gehiagok eman diotela konfiantza EAJri. Joera horrek gure proiektua sendotzen du eta horrek, beste parametro batzuekin batera, herri honek duen erabakitze eskubidearen gauzatzea geldiezin dela adierazten du. Lortuko dugu; esfortzuarekin, konstantziarekin, perspektibarekin eta izualdi zein muturreko jarraera barik. Arrasatearrei esker on sentituena adierazi nahi diegu; Udaleko zein Mankomunitateko gure ordezkariak lanean jarraituko dute herritarren ongizaterako".

EH Bildu bigarren indarra

Bigarren indarra izan zen EH Bildu: "Azken hauteskundeetako atzerapausoekin alderatuz, etorkizuna beste begi batzuekin ikus-

teko aukera ematen dute emaitza hauek. Orainari eta etorkizunari begiratzea dagokigu, ezkertiar eta independentistok herri honentzako lanean jarraituko dugulako. Gaizki eta ongi egindakoetatik ikasten eta herritarrei entzuten herri egiten jarraituko dugu, librea eta justua izango den herrirako. Elkarlanean arituko gara, herritik eta herrirako, arrasatearrak ezinbesteko aktibo eta helburu izanik".

Elkarrekin Podemos, "pozik"

Espainiako hauteskundeetan Arrasateko aukerarik bozkatuena izan ostean, hirugarren indarra izatera pasatu da Elkarrekin Podemos: "Pozik gaude arrasatearren erantzunarekin. Aurreko bi hauteskundeetan izandako emaitzak ez ditugu errepikatu, baina jakina da erkidego mailan beste ardatz batzuk hartzen direla kontuan. Emaitzak lana zintotasunez egiteko borondatea sendotzen digute. Erroka handia dugu aurretik eta proiektu soziala, feminista eta ekologista ereiten jarraituko dugu".

PSE-EEK nabarmen behera

Arrasaten beherakada handiena izan duen alderdia izan da PSE-EE: "Boto asko galdu ditugu. Podemos min egin egiten ari da bai guri eta baita beste alderdi batzuei ere. Ez dira izan nahiko genituzkeen emaitzak, baina ez dira izan hainbat inkestek aurreikusten zuten bezain txarrak. Itxaropenarekin, herritarren alde jarraituko dugu lanean, horretarako gaude eta".

i25 EMAITZAK

	2016	2012
Errolda	17.446	17.704
Abstentzioa	%38,53	%35,64
EAJ	3.609	3.361
EH Bildu	3.489	4.110
Elkarrekin Podemos	1.601	-
PSE-EE	1.145	2.272
PP	480	561
Ciudadanos	121	-

Buzkantzajana eta beste Garagartzako sanmigeletan

J.B. | ARRASATE

Gaur hasi eta domekara arte sanmigela ospatuko dituzte Garagartzako auzoan. Gaur trikitilarien kalejira (19:30) eta Manex Arriolabengoa zein Maria Izaga eta Azkaiter Pelox trio taldeen kontzertuak izango dituzte (22:00).

Biharkoa izango da egun handia: umeendako jolasak eta I. San Migel ginkana (11:30), Gorriti eta bere animaliak (17:30), trikitilariak (19:30) eta Buzkantzako Rock jaialdia (22:30). Jaialdiaren lau garren edizioan honako musika talde hauek joko dute: Paranoia, Perlata, Krisis, Las Tuerkas eta Kadena Perpetua.

Domekan, berriz, San Migelen omenezko meza (11:00) eta Txikitxu-Arrostaitz dantza taldearen emanaldia izango dira (12:30). Jaiak borobiltzeko auzo bazkaria egingo dute, 14:30ean hasita.

300 bat kilo buzkantza

Ez dago Garagartzako sanmigela ulertzerik buzkantza barik. Aurtun ere, egubakoitzean eta zapatuan buzkantzak tomatearekin dastatzeko aukera egongo da auzo-etxean, 19:00etatik aurrera. Urtero legez, 300 bat kilo buzkantza eskatu dituzte antolatzaileek.

OHARRAK

ITURRITXIPIGAINA EROSTEO ZOKETA

Besaide Mendizale Elkartearen Iturritxipigaina erosteko zoketako zenbaki saritua da 1.466. Ordezko bi zenbakiak honako hauek dira: 1.028 eta 0271.

1954AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 5ean elkartuko dira. Izena emateko 60 euroko ordainketa egin behar da urriaren 28a baino lehen. Kontu korrante zenbakia: 3035 0001 57 0011136853 (Laboral Kutxa).

1956AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 5ean elkartu eta Oiartzunera joango dira. Izena emateko kontu korrante zenbakia: 3035 0202 75 2021046272 (Laboral Kutxa).

1961EAN JAIOTAKOAK

Urriaren 22an elkartuko dira eta Zarauzko Kulixka jatetxean bazkalduko dute. Izena eman behar da urriaren 11 baino lehen. Kontu korrante zenbakia: 3035 0001 50 0011163282 (Laboral Kutxa).

1962AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 5ean elkartuko dira eta Al-Andalus elkartean bazkalduko dute. Izena eman behar da urriaren 24a baino lehen; kontu korrante zenbakia: 3035 0001 51 0010123638 (Laboral Kutxa). 60 euroko ordainketa egin beharko da.

CITROEN JUMPY BERRIA EZ DAGO EZINEZKORIK

HIRU LUZERA: XS - M - XL
1,90 METRO GARAI* / ALBOKO ATE LERRAKORRAK
ESKU LIBREKO IREKITZE SISTEMAREKIN
LUZERAN 4 METRO BAINO GEHIAGOKO ZAMATZEA
MODUWORK-EKIN**



PUERTA DE ALCALA, MADRIL

LASTER, JUMPY COMBI ETA SPACE TOURER GUREKIN IZANGO DITUGU!

CREATIVE TECHNOLOGIE

CITROËN-ek nahiago du TOTAL

*XS eta M neurriak furgoirako eta XS, M eta XL konbinko. **XL neurrian.

Kontsumo mistoa (l/100 km) / CO2 isuria (g/km): 5,1/5,6-133/148



Ondo pasa sanmigela!

TALLERES CHAPIME

San Andres 5, 20500 ARRASATE • Tel.: 943 79 45 22



Benito Lertxundik abenduan emango duen kontzertua izango da egitarauko plater nagusietako bat. | ARRASATEKO UDALA

Dantzaz, musikaz eta antzerkiaz gozatzeko aukera zabala Amaian

Urritik abendura bitartean antzokian izango den eskaintza aurkeztu dute

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE
Urritik abendura bitartean Amaia antzokian izango den kultura eskaintza aurkeztu dute. Urtero legez, garrantzia eman diete herriko taldeei, eta bestelako dantza

ikuskizunak, antzerkiak eta kontzertuak ere izango dira.

Herriko taldeen presentzia
Egitarau horren lehenengo ezau-garria herriko taldeek emanal-

dietan izango duten pisua izango da. Emanaldi hauek egongo dira, zehazki: Ozenki taldearen *El Barbero de Sevilla* opera, Doke taldearen *Aingeru ala kurrioi?* antzerkia, Izaskun Mur-

gia Elkarte Lirikoaren *La del soto del parral* zarzuela, eta urtea amaitzeko egingo den Arrasate Musikaleko bandaren kontzertua.

Dantzak arreta berezia

Egitarauaren bigarren ezaugarri bezala, dantza azpimarratu du Garaik. Zapatu honetan bertan, *Tormenta* dantza garaikide ikuskizuna izango da. Eta aurre-rago, azaroaren 12an, *Vuelos* dantza ikuskizuna izango da, familia osoarekin batera disfrutatzeko.

Antzerkia

Antzerkiari dagokionez, Amaia antzokian hainbat emanaldi izango dira; tartean, *Mami Lebrun*, non Kepa Errasti aretxabaletarra den aktoreetako bat. Urriaren 30ean izango da hitzordu hori.

Bestalde, umeei zuzendutako aukeren artean nabarmentzekoa da urriaren 3an egingo duten *Moby Dick* antzezlanak.

Musika

Eta nola ez, musika hitzorduak ere ez dira faltako egitarau zabal horren baitan.

Askotariko estiloak aintzat hartuta, hainbat emanaldi egongo dira antzokian: hala, urteroko Nazioarteko Akordeoi Lehiaketa egingo da abenduaren 8tik 11ra bitartean, eta Benito Lertxundi kantautore sonatuaren kontzertua ere izango da abenduaren 23an. Gainera, rock musikak ere izango du bere lekua bi kontzertuetan. Sarrerak dagoneko salgai daude.

Mondratek etxeko lehen partidua jokatu du

Pasa den astean hasi zuten denboraldi berria, etxetik kanpo, 3-4 irabazita

XABI GOROSTIDI | ARRASATE
Pasa den asteburu hasi zuen 2016-2017 denboraldia Mondrate taldeak. 3-4 gailendu ziren Hirukide Eskolapioak taldearen etxean. Markagailuan atzetik joan arren, emaitza iraultzea lortu zuten.

Asteburu honetan etxeko lehen partidua jokatu dute Ibarrako Lauburu taldearen aurka. Zapatuan izango da, 18:00etan, Musakolako kiroldegian, eta Arrasateko taldea bigarren garaipenaren bila aterako da.

Aldaketa sakonak

Aldaketa nabarmenekin ekin diote denboraldi berriari. Lehenik eta behin, entrenatzaile aldaketa egin dute aurtien. Iaz atezain lanetan aritutako Josu Uribarren arituko da prestatzaile lanetan, Adei Mondragonekin batera.

Horretaz gain, sarrerak eta irteerak ere izan ditu taldeak jokalariei dagokienez. Beñat Arabolaza, Xabi Lasaga eta Brian Fernandez ez dira taldean arituko, lan kontuengatik, eta haien hutsunea estaltzera etorri dira Igor Oianguren, Adrian Fernan-

dez eta Edu Bujanda fitzaketak.

Helburu konkreturik ez

Aurtengo denboraldirako helburuaz galdetuta, zera adierazi du Jonathan Raso jokalaria: "Ez dugu helburu zehatz bat jarri. Maila mantentzeko asmoz gaude, eta azken hiru jardunaldietan ikusiko dugu ea zerbait gehiago egiterik daukagun".

Amaitzeko, iazko infantilak kadete mailan arituko dira aurtien eta lagunarteko partidua jokatu dute domekan Iturripen, 12:00etan.

Literatura solasaldiak urrian itzuliko dira

M.T. | ARRASATE

Ikasturte berri honetan, aurrekoan moduan, literatura solasaldiak antolatuko ditu Bibliotekak. Dagoeneko aditzera eman dituzte euskarazko taldean datozen hiru saioetan mintzagai izango dituzten lanak. Urriaren 19an, Toni Morrisonen *Maitea*; azaroaren 30ean, Jon Miranderen Haur besoetako; eta abenduaren 15ean, Adur Larrearen *Gabriel Aresti Biografikoa* komikia.

Saio guztiak arratsaldean izango dira. Interesatuak Bibliotekaren eman dezakete izena, Udalaren webgunean edo 943252025 telefonoan.

Denboraldi berria ospatuko dute Beste Bat!-ekoek

X.G. | ARRASATE

St Pauliren jarraitzaileak denboraldi berria hasi dela ospatzeko batuko dira zapatu honetan. Horretarako, bazkaria egingo dute eta 19:00etarako Taupa tabernan kontzertua antolatu dute.

BAR taldea

Bourbon And Roots taldeak Taupako bazterrak blues doinuekin beteko ditu.

Aitor Etxagibekek, Aitor Morenok eta Jaime Lizerranzuk osatutako hirukoteak zeresana emango du.

'El barbero de Sevilla' operako sarreraren bi herenak salduta

Urriaren 18an egingo den *El barbero de Sevilla* operaren sarreraren salmenta martxa onean doa. Bi heren baino gehiago saldu dituztenez, emankizunaren egunean Amaia betetzea espero dute Ozenki elkarteak. Sarrerak Kutxabanen, Udalaren web atarian, Amaia antzokian edo ozenkielkartea@hotmail.es helbidera idatziz eros daitezke.

Kirol kurtso berriaren aurkezpena gaur Monterronen

Arrasateko Udaleko Kirol Zerbitzuak ekitaldi berezia egingo du gaur Monterronen, ikasturte berriaren aurkezpen gisa. 17:00etatik aurrera, umeentzako pilatesa, helduentzako hipopresiboak, nordic walkinga eta krossfita probatzeko aukera izango da. Eguraldia txarra bada, bertan behera geratuko da ekitaldia.

Ointxe!-ko familia denboraldi berrirako prest

Pasa den zapatuan 2016-2017 denboraldiko familia argazkia atera zuten Ointxe! klubeko talde guztiak. Ekitaldian, iazko EBA ligako jokalaria balioetsuenaren Bereiker saria eman zioten Iker Barberori, eta haren ama Begoñak jaso zuen.



PAKO ALVAREZ



Iraileko osoko bilkuran harrobiaren handitzearen proiektuari buruz jardun zuten zinegotziek. | O.E.

Arantzazuko harrobia eztabaida gai izan da

Ustiatzen duen enpresak handitu egin gura du eta txostena aurkeztu du izan dezakeen eragina jasotzeko

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Arantzazuko harrobia handitzeko dagoen proiektuaren kontrako mozioa aurkeztu zuen EH Bilduk martitzenean egindako iraileko osoko bilkuran. Alderdi Jeltzalea ere handitzearen kontra azaldu zen, baina urte eta erdian proiektu horren aurka Jaurlearitzarekin gestio zuzenik ez duela egin kritikatu zion Udala Gobernuari, eta

eztabaida piztu zuen horrek alderdi bietako bozeramaileen artean. "Jarrera nahiko hipokrita iruditzen zait hori, 2006an beraiek onartu zuten jardura hori normalizatzea, arau ordezkoetan jasotzea hori eta inpaktu ikerketa bat egin behar izanez gero udalak hartzea kostu hori", azaldu zuen Mikel Biain alkateak. EAJko bozeramaile berri Lourdes

Idoiagak, berriz, horrek ez duela zerikusirik erantzun zion: "Orain handitzearen espedientea gestionatu behar da gehiagora ez dadin joan. Ezin dira nahastu edozer gauza justifikatzeko, ezta Udala Gobernuaren gestio eza ere". Absentitu egin zen EAJ.

Egun harrobia kudeatzen duen enpresak txosten bat egin du handitzeak naturan ze inpaktu izan

dezakeen jasotzeko. Abuztuan iritsi zen txosten hori udalera, eta horren kontrako alegazioa jarriko du orain Oñatiko Udalak, "forma kontuengatik bakarrik ikusten delako orokortasunean oinarritutako txostena dela". Mikel Biain alkateak azaldu duen moduan, txosten horrek ez du jasotzen inguruko faunan eta florari izan dezakeen eragina, ezta ur baliabideen gaineko azterketarik, eta ez dago eginda horrelako proiektuak egin ohi diren eskalan. Gainera, Oñatiko Udalak salatu du txosten hori ez dagoela eskuragarri, inon ezin daitekeela ikusi, edozein herritarrek ikusi eta aztertu gura izanez gero, ez dagoela ikusgai. Biologo baten laguntzarekin, txosten horren kontrako alegazioa ari da prestatzen Oñatiko Udala eta datorren astean aurkeztuko du.

Diktaduran

Diktadura frankisten krimenen inguruko mozio bateratua aurkeztu zuten EH Bilduk eta EAJk. Hor jasotzen da Oñatiko Udalak babesa emango diela gertaera horiengatik kereila jarriko duten herritarrei eta horretarako behar dituen baliabideak eskainiko dizkie; artxiboko argazki edo dokumentuak, esaterako. Mozioan gertaeren erantzuleen izenak sartzeko eskatu zuten Euskal Memoria taldekoek. Hain justu, joan zen astean bete ziren 80 urte frankistak Oñatin sartu zirela.

Bestalde, Miren Elgarrestaren lekua hartu duen Nekane Maiztegi oñatiarrak martitzeneko osoko bilkuran egin zuen karguaren zina. "Gogotsu eta lanerako prest" dagoela adierazi zuen.

Gai zerrendatik kanpo, jaiak parekidetasunean ospatzeko adierazpen instituzionala onartu zuten alderdiek eta jaietan ondo ibiltzeko gonbita egin zieten herritarrei.

Herrian kartel eta pankarta asko daudela salatu du EAJk

O.E. | OÑATI

"Herriguneko espazio publiko zein pribatuak pankarta, pintada, kartel, pegatina eta abarrek inosita ikusteaz hainbat oñatiar gogaituta" daudela adierazi du Oñatiko EAJk. Eta gaineratu du: "kartelak, inolako errespeturik gabe kolaz itsatsita agertzen dira ia egunero. Aipagarria da, besteak beste, adierazpen libreko guneetan dagoen zikinkeria eta eremu hauen garbikeria eza. Era berean, Kultur Etxeko paretak eta beste hainbat eraikin historikotakoak ere ia beti pintadez apainduta aurkitzen ditugu eta Bidaurrera eta Orbea Etxe ingurua sarritan daude pankartez josita". Jeltzaleek diote "herri ondarea guztiena" dela eta "errespetatu" egin behar dela.

Mendi sailaren argazki lehiaketa zabalik dago

O.E. | OÑATI

Urtero bezala, Aloña Mendiko mendi sailak Mendia eta Natura argazki lehiaketa antolatatu du. Bi atal ditu aurtengo edizioak ere: *Gizakia mendian* izenekoan jasoko dituzte giza-ki egindako ekintzak mendi ingurunean, txapelketak izan ezik: alpinismoa, mendi zeharkaldiak, trekking-a, eskalada eta mendi bizikletako zeharkaldiak, adibidez. *Mendi ingurunea* sailean, paisaiei, mendiei, flori edo faunari ateratako argazkiak onartuko dituzte. Jasotako lanekin hasieran aukeraketa digitala egingo dute. Atal bakoitzean 20 argazki aukeratu dituzte eta aukeratu horiek ikusgai jarriko dituzte. Argazkiak Internet bidez aurkeztu behar dira, www.concursosdigitales.com helbidean. Epea urriaren 9a da.

Lortutako emaitzekin pozik EH Bildu eta EAJ

Irailaren 25ean eurengan jarritako konfiantzagatik eskerrak eman dizkiete alderdi biek herritarrei


O.E. | OÑATI

Duela lau urte egindako hauteskundeetan baino boto gutxiago jaso dituzte Oñatin bai EH Bilduk eta baita EAJk ere. Abstentzioa handiagoa izan da. Hala ere, EH Bildu izan da bozkatuena Oñatin irailaren 25ean egindako hauteskunde autonomikoetan, eta alderdi jeltzalea izan da bigarren bozkatuena. Arrano tabernatik jarraitu zituen emaitzak EH Bilduk eta batzokitik, berriz, EAJk. Biak agertu dira pozik lortutako emaitzekin. Alderdi Sozialistak eta Alderdi Popularrak Oñatin duela lau urte baino boto gutxiago jaso zituzten eta aurtengoetan aurkeztu diren bi alderdien aldeko botoak ere zenbatu dituzte Oñatin, Elkarrekin-Podemos zein Ciudadanos alderdien aldekoak, alegia.

Hauteskunde egunaren biharramunean, EH Bilduk zein EAJk eskerrak emateko mezuak helarazi zituzten. Biek ala biek eskerrak eman dizkiete eurengan konfiantza jarri zuten oñatiarrei.

i25 EMAITZAK

	2016	2012
Errolda	8.871	8.846
Abstentzioa	%33,37	%27,56
EH BILDU	2.554	3.010
EAJ	2.349	2.463
ELKARREKINPODEMOS	553	-
PSE-EE	208	423
PP	138	197
C'S	27	-



MIREIA BIKUNA

Duela hiru mendetako errezetak

Eraberritze lanak egitean ari direla, XVIII. mendeko errezetak aurkitu dituzte Juldain farmazian. Sabaiko habeetako zuloak tapatzeko erabili zituzten, gainera igeltsuarekin berdindu eta habea margotzeko. Orain, habeetako batzuk bistan utzi dituzte, pinturak ikusteko. Barruan aurkitu duten errezeta zaharrena 1777koa da, baina zaharragoak ere egon daitezke.

Zizelkatzen ikasteko beste ikastaro bat antolatu dute

Oñatiko Zizelkatzaileak elkarrekin beste ikastaro bat antolatu du egurra landu eta zizelkatzen ikasteko. Urriaren 5ean hasiko da eta abendura arte iraungo du. Eskolak eguaztetenan emango dituzte, Eltzian; 15:30etik 18:00etara eta 18:00etatik 20:30era. Izena emateko bidea da zizelkatu@gmail.com helbidea.



Marcel Hualde aginduak ematen. | I.S.



Betaurreko moreak jantzita egindako manifestazioa. | I.S.



Haur danborradan txalekoak jantzita irten den konpainia berria. | A.A.



Moia, jaietako zapia ipintzen. | I.S.



Pedro Mari Igartuari omenaldia egin zioten danborradan egindako lanagatik. | A.A.



'Lantzean behin' herri antzerkia. | A.A.

Festak jarrai dezala astelehenera arte

Herri Eguna, Errosaixo eguna eta Errosaixo Bixamona geratzen dira

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

San Migel eta Errosaixo jaiak bat egingo dute gaur, egubakoitza. San Migel Bixamonak lekukoa pasako dio Herri Egunari. Astelehenera arte festa giroan jarraituko dute oñatiarrek.

Doctor Deseo

Jai egitaraua aurkeztu zenean azpimarratu zuten Doctor Deseoren kontzertua zela aurtengo ekitaldi nagusietako bat. Doan, Foruen plazan izango da, gaur, egubakoitza, 23:00etan.

Bilboko taldeak *Igual y diferente*. *Una mirada distinta* diskoa aurkeztuko du. Kantu berriak eta zaharragoak, mitikoak, bat egingo dute. "Abrazame eta Corazon de Tango" entzuteko aukera egongo da. Baina kantu berriak ere egongo dira eta sorpresaren bat edo beste ere bai", esan du Francis Diez abeslariak. Euskarazko kantuak egongo direla ere aipatu du.

Bertsotan

Herri Eguna eta Errosaixo Bixamona izango dira, beste behin, egunik jendetsuenak.

Bihar, zapatua, unibertsitate zaharraren aurrealdean egingo diren azokak eta lehiaketak 10:00etan hasiko dira. Handik herri osora zabalduko da festa: herri bazkaria, herri kirolen jaialdia, Esnalen salbearen interpretazioa eta musika emanaldiak. Tartean, Egan taldeak Foruen plazan egingo duena.

Errosaixo domekan ere askotariko ekintzak egongo dira, eta, besteak beste, bertsozaleek izango dute zertaz gozatu. *Balkoitik balkoira* bertso saioa egingo dute Kale Zaharrean Andoni Egañak eta Beñat Gaztelumendik, 20:30ean.

Bestalde, jaietako bertso saioa hilaren 7an egingo dute, baina dagoeneko salgai daude sarrerak Txokolateixan. Aitor Mendiluze, Mainer Arregi, Amets Arzallus, Alaia Martin, Urko Egaña eta

Maialen Lujanbio ariko dira bertsoan, bertso eskolakoek jarritako gaiei erantzunez.

Karrozendako gunea

Errosaixo Bixamona izango da egunik koloretsuena. Mozorroak izango dira protagonista. Horren harira, egun horretarako egiten diren karrozak eta osagarriak utzi ahal izateko, Olaiturriko aparkalekuan gune bat egokitu duela gogorarazi gura du Udalak. Bestalde, egun horretan, Rockalean taldeak girotuko ditu kaleak. Askotariko bertsoak egiten dituen talde ibiltaria da.

Giltzadun edukiontzia

Iaz egindako moduan, hondakinak batzeko giltzadun edukiontzia ipiniko dituzte herriko hainbat puntutan: Iturritxon, Aita Madina kalean eta azokako biribilgunean. Herri Egunean eta Errosaixo Bixamonean bilketa bereziak egingo dituzte.

NIRE USTEZ

ANDONI GARTZIA



Ekonomian konfiantza

Langabezia da oraindik herritarrek gehien arduratzen dituen gaia, baina beste batzuk ere agertu dira, pentsioen etorkizuna esate baterako.

Gehiengoak uste du krisiaren sasoi okerrena pasa dela eta lehengo arazo larrienek bide ematen diete errekonferazioaren abiadurari, lanpostuen kalitateari edo pentsioen eta gizarte zerbitzuen iraunkortasunari.

Baina kontsumoan eta gastuan oinarritutako ekonomia batean ondo letorke gure dirua kudeatzea 50-20-30 erregela kontuan izanda, gure etorkizun ekonomikoa baretzeko. Hauxe dio erregela horrek:

Irabazten duzun soldataren %50a oinarritzko gastuetarako izango da. Hemen sartzen dira: mailegua, fakturak eta erosketak gastuak, esaterako. Bai ala bai egin beharreko gastuak dira. Ezer sobratuz gero, gehitu hurrengo portzentajeari.

Aurrezkietan sartu %20a. Etorkizunean izan ditzakezun gastuei aurre egiteko lagunduko dizu diru honek, etxeko obrek edo familiako aldaketek ekarritakoak, adibidez.

Gelditzen den %30a gastu pertsonaletarako utzi. Adibidez, arropa erosten, bidaiatzen edo aisialdian gastatzeko. Ezer sobratzen bazaizu, gehitu aurrezkietan sartu behar duzun %20ko zakuari.

Ekin ba horri.

Ondo pasa herriko jaiak eta zaindu gastua.

"50-20-30 erregela kontuan izatea ondo dago"

Gaur arratsaldean jokatuko dira Herriko Pilota Txapelketako finalak kanpoko frontoian

Gaur, egubakoitza, arratsaldean jokatuko dira Herriko Pilota txapelketako finalak. Nesketan, Igonek eta Mireiak Intxausti eta Larrearen kontra jokatuko beharko dute. Mutiletan, berriz, Aramendia eta Larrea, Perezen eta Aranbururen aurka. Txapelketako gainerako partiduak bezala, kanpoko frontoian, azoka ondokoan, jokatuko dira finalak ere. 17:00etan hasiko da lehen partidua. Aurretik, bazkaria egingo dute berdura azokan. Aurtengo txapelketan 49 bikotek parte hartu dute.



ARATZ LOSADA

Eskubaloiko federazioko kide

Gipuzkoako eskubaloiko federazioko kide dira argazkian agertzen diren Francisco Benito eta Mikel Mantxola oñatiarrak. Hauteskundeak egin zituzten Gipuzkoako eskubaloiko federazioan eta hantxe erabaki zen datozen lau urteetarako lantaldea zein izango den. Francisco Barros errenteriarra izango da presidentea eta Mikel Mantxola presidenteordea. Benitok batzordekide lanak egingo ditu.

Etxebizitza saldu eta txiroei laguntzea helburu

Herritar batek eskakizun horrekin emandakoa da eta udalbatzak onartu egin ditu hura saltzeko baldintzak

JULEN IRIONDO | BERGARA

Bergaran osoko bilkura izan zen astelehenean, eta herritar batek hil zenean Udalaren esku utzitako etxebizitza bat -eta trastelekua, Telesforo Aranzadi kalean- saltzeko baldintzen plegua onartu zuen udalbatzak. Gauza berezia da, Udalari etxebizitza eman zion pertsonak adierazi baitzuen haren salmentatik ateratako diruak herriko txiroentzat behar zuela.

Plegua zela-eta eztabaida izan zen alderdien artean. Haren arabera, etxebizitzaren gutxieneko lizitazio-oinarria 143.000 eurokoa izango da. Hortik gora, kopururik handiena eskaintzen duenarentzat izango da etxea.

EH Bilduk eskatu zuen gaia mahai gainean uztea, plegua elkarlanean aztertu eta gutxieneko diru kopuruaz gain beste baldintzaren bat jar ote daitekeen ikusteko, "herriko pobreei mesede egiteko edo, behintzat, ez kaltezeko. Izan ere, une honetan dagoen bezala, irizpide bakarra da diru gehien duenak etxe hori erosi ahal izango duela. Gure ustez, tarte bat egon daiteke bestelako puntu batzuk sartzeko", zioen Agurte Barrusok.

Elena Lete alkateak adierazi zuen ez dela posible pleguan bestelako baldintzarik sartzeko, etxebizitza eman zuen herritararen testamentua irakurrita Udaleko

idazkariak egindako txostenak agintzen duela salmentatik ahalik eta diru gehien atera beharra, gero hori txiroen esku uzteko: "Horrela jokatu ez bagenu, Udak idazkariaren txostenaren kontra joango ginatke, eta Udak idazkariak zerbait esan beharko luke, legezkontrakotasun-ohar-tarazpen bat egin beharko luke", zioen alkateak. Behin salmentako dirua esku artean, orduan bai, diru hori txiroengana nola bideratu alderdien artean adosteko gertu agertu zen.

EH Bilduren irizpide aldaketa

Ez da lehen aldia Bergarako Udak prozesu hau martxan jartzen duena. Aurreko agintaldian Bildu Gobernuan zela ere saiatu ziren etxebizitza saltzen, nahiz eta salmenta gauzatu ez. Orduko baldintza plegua oraingoaren bera zela-eta, orduan bultzatutakoa orain zergatik ez duten babesten galdegin zien Letek EH Bildukoiei, eta adierazi egiten ari zirena zela "argudiorik gabe kontratua egitea".

Agurte Barrusok azaldu zuen baietz, lehen Bilduk bultzatu zuela salmenta baldintza beretan, eta ez daudela ados orduan euren taldeak egin zuenarekin ere, euren irizpidea beste bat dela gaur egun. Irabaziko Aiart Lizarralde ere gaia mahai gainean uztea eskatu

zuen, adieraziz berak aurreko astera arte gaiaren berri ere ez zuela.

Oposizioko alderdiek plegua onartzearen aurka bozkatu zuten. Baina gehiengoak plegua onartuta, lizitazioaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzetik 30 eguneko ia izango da eskaintzak aurkezteko epea -Udaleko erregistroan-.

Beste gai batzuk

Bestalde, taxi zerbitzuaren tarifen gaineko puntua aprobetxatuta, mugikortasunaren arazoa era integral batean landu beharra aldarrikatu zuen Irabazik: "Bergaran, une honetan, autoa da mugikortasunaren zutabe nagusia, eta guk uste dugu poliki-poliki jo behar dugula beste herri mota batera". Alkateak gogora ekarri zuen Mugikortasun Mahai bat badela gai hauek lantzen dituen.

Gainerakoan, Udak aurrekontura ia 213.000 euro gehiago bideratzea onartu zuen udalbatzak EH Bilduren eta Irabaziren abstentzioarekin: diruaren zati handiena izango da zabor bilketarako, informatika ekipamendurako eta baserri bideetarako.

Azkenik, Martinez Irala ikastetxean izandako suteak eragin-dako ia 87.000 euroko gastua ere onartu zuten.

2012tik behera, 2015etik gora, EH Bildu nagusitu da herrian

J.I. | BERGARA

Eusko Legebiltzarrerako 2012ko hauteskundeekin alderatuta, EH Bilduk, oraingoan ere herrian boto gehien jaso duen indarra izan arren, 306 boto galdu ditu; EAJk, berriz, 80. Konparaketa iazko udal hauteskundeekin eginez gero, ostera, 165 boto irabazi ditu EH Bilduk, eta 390 galdu EAJk.

Espainiako Gorteetarako azken hauteskundeetako emaitzei begiratuta, azkenik, EH Bilduk 739 boto gehiago eskuratu ditu, eta EAJk 535.

Gainerako alderdiei dagokienez, PSE-EEK botoen erdia galdu du ia 2012ko Legebiltzarrerako hauteskundeetako emaitzekin alderatuta, eta PPK gora egin du puntu erdi. Elkarrekin Podemos aurreko ekainean Gorteetarako hauteskundeetan Bergaran lortutako botoen erdia baino gutxiago eskuratu du oraingoan, eta ordukoen erdia pasatxo Ciudadanosok.

EH Bildurentzat emaitzak onak direla zioen Agurte Barrusok, Elkarrekin Podemos ere aurkeztu arren lehenengo indarra izateagatik, EAJri ia 200 boto ateratzea "inportantea" dela gehituta. Victoriano Gallastegirentzat, berriz, EAJren emaitzak "oso onak" izan dira. 2012ko boto portzentajea mantendu izana nabarmendu zuen.

i25 EMAITZAK

	2016	2012
Errolda	11.580	11.612
Abstentzioa	%33,01	%31,27
EH Bildu	3.000	3.306
EAJ	2.805	2.885
Elkarrekin Podemos	983	-
PSE-EE	522	969
PP	268	240
Ciudadanos	49	-

'Euskaldun baten hizkuntza bidaia', eguaztenean

J.I. | BERGARA

Jardunen *Hasi etxetik... eta euskaraz mundura* zikloaren barruan, *Euskaldun baten hizkuntza bidaia* izeneko hitzaldia egingo du Karmelo Aiestak eguaztenean, 19:00etan Irizar jauregian. Euskara erabiltzeko batzuetan eman behar izaten den hizkuntza ohituren aldaketan laguntzea da hitzaldiaren helburua.

Udako postal lehiaketa

Nerea Alzelaireren postala saritu du Jardunek. "Begiak itxita entzun daitekeenaren berri" ematen duela-eta, Alzelaik "bete-bete" asmatu duela adierazi dute, helburua "komunikazio informal eta idatzietan euskara erabiltzea" dela kontuan hartuta. Tableta jaso du irabazleak.



Iazko proba pilotuko argazkia. | SAN MARTIN AGIRRE

'Oinezbusa', datorren astetik martxan San Martin Agirre ikastetxean

KOMUNITATEA GOIENA
SAN MARTIN AGIRRE | BERGARA

Datorren astean jarriko dugu martxan *Oinezbusa* egitasmoa. Garraio bide iraunkorrak sustatzea du helburu proiektuak, ikasleek etxetik eskolara egiten dituzten joan-etorriak modu autonomoan eta ibilbide seguru batetik egin ditzaten. Horretarako, bi ibilbide izango dira: San Antonio-Olloboak-Oxirondo plaza-Haur Hezkuntzako erakina-Lehen Hezkuntzako erai-

kina; eta Bolu-Burdinate-Irizar Jauregia-Frontoia-Oxirondo plaza-Haur Hezkuntzako erakina-Lehen Hezkuntzako erakina.

Mugikortasun jasagarria ez ezik, euskararen erabilera indartzea ere badu xede egitasmoak; izan ere, eskolara bidean euskaraz hitz egiteko guneak eskainiko dizkie ikasle zein gurasoei. Udak proposatuta, aurreko ikasturtean egin zuten ekimenaren proba pilotua.

OHARRAK

UNED: MAHAI-INGURUA
Martitzenean, 19:00etan: *Telesforo Aranzadi gogoratuz*. Alberto Santana, Felix Leturia eta Mikel Agirre.

KAFEKONPON
Eguaztenean, 16:00etan.

MAKROBIOTIKA
Jexux Larretxearen hitzaldia, gaur, 19:00etan, Irizarren.

EGUAZTENEKO AZOKA
Jaki izoztuen gaineko saioa,

Asier Latorrerekin (19:30). Pintxo-potea, Kai tabernak.

EAJ-REN ALDERDI EGUNA
Domekan ospatuko dute Forondan, eta Bergarako EAJk dei egiten die alderdikide eta lagunei bertara joateko. Autobusa egongo da: 943-76 47 00.

DYA-REN HITZALDIA
Larrialdi egoeretan nola jokatu azalduko dute, eguaztenean, 16:00etatik 18:00etara, Martokoko egoitzan.

NIRE USTEZ

IGOR OIARBIDE

'Coaching'-a

Bere hasiera kirol munduan eman bazen ere, azkar asko zabaldu zen enpresa eta pertsonal eremura. Baina, zer da *coaching*-a? Gure helburuak lortu ahal izateko, garatzen laguntzen digun metodologia bat bezala definitu dezakegu; kompetentziak garatuz, komunikazioa hobetuz, norberaren gain sakontzen lagunduz...

Coaching-a eta terapia berdina al dira? Ez, zeren *coaching*-a pertsona osasuntsu eta baliabidedunei zuzendua dago, eta terapiak gutxitasun

batzuk sendatu nahi ditu. Gainera, *coaching*-ak bere jarduketan orainaldian zentratzen du, etorkizuneko arrakasta lortzeko, eta konfiantza pertsonak bere soluzioak aurkitzeko duen ahalmenaren jartzen du, zer egin behar duen besteek esan beharrik gabe.

Norentzat da baliagarria? Oro har, jende askorentzat: ondo dauden pertsonentzat baina hobeto egon nahi dutentzat; bere lanarekin edo bere bizitzako zenbait aspektuarekin gustura ez daudentzat; egiteko dagoen zerbait hasteko kemenaren aurkitzen ez dutentzat...

Honi buruz asko dago idatzia eta gero eta profesional aditu gehiago. Zorionez, gizartea ezabatzen ari da profesional hauengana joatea zailtzen duten tabuak, nahiz eta oraindik bidea dagoen egiteko.

Agorrosingo ikastaroetan izena eman daiteke

J.I. | BERGARA

Irailaren 19an hasi ziren Agorrosingo ikastaroak, baina oraindik badao izena emateko aukera. Hori dela eta, Udaletik herritarrek animatu nahi dituzte, bertaratu daitezten eta informazioa eskatu dezaten.

1.038 lagunekin hasi dituzte ikasturte berriko ikastaroak. Berez, 1.200 dira eskainitako lekuak; hortaz, hainbat ikastarotan izena emateko badao aukera oraindik.

'Ekarri laguna' kanpaina

Bestalde, eta jende gehiago erakartzera begira, *Ekarri laguna* kanpaina egiten ari dira aurten ere. Urriaren 6a bitartean, ikastaroetan ari diren ikasleek aukera izango dute begiraleari hala adierazi eta saiora lagun bat eramateko, jarduera probatzeko.

Hamakak jasotzea

Gaur amaituko da, bestalde, udan igerilekuko biltegian hamakak eduki dituztenek haiek jasotzeko epea. 10:00etatik 19:00etara bitartean jaso daitezke hamakak.



Asier Eguren. | IMANOL SORIANO



Xabat Irazola. | IMANOL SORIANO

Eskubaloikoen eta saskibaloikoen estreinaldia etxean

Aurrenekoek Leizaranen kontra jokatu dute eta bigarrenak Ganbara izango dute kontrario

JULEN IRIONDO | BERGARA

Edu Orgazen mutilen eta Leizaranen artekoa bihar –zapatua– 18:00etan izango da Labegaraletan. "Iaz egindakoa hobetzea" izango da aurtengo helburua, Orgazek dioenez: "Nahikoa justu ibili ginen. Zortzigarren geratu eta ozta-ozta libratu ginen, lau talde jaitsi ziren-eta. Aurten lehenengo sei

-zazpietan sartu nahi genuke, nahiz eta ez den erraza izango". Goitik jaitsitako taldeekin, aurtengorako liga "nahikoa gogorra" geratu dela dio entrenatzaileak.

Orain arteko prestaketa partiduetan denetarikoak ikusi dituela dio, baina ez dituztela "60 minutu onak" egin. Litekeena dela lan fisikoak eragina izatea

horretan; txapelketan ze maila ematen duten ikusteko gogoz da.

Taldeari dagokionez, aurreko denboralditik hona aldaketa gutxi batzuk baino ez dituzte izan, eta orduan hasitako lanari jarraipena ematea izango da aurtengo egitekoa: "Zenbait gauza automatizatu ditugula ikusi dut". Defentsan oinarritu nahi du prestatzaileak taldearen lana.

Senior mailako taldearekin batera, infantilek, kadeteek eta gazteek ere jokatu dute asteburuan. Horiei nesken infantilak eta kadeteak gehituta, aurten sei talde izango ditu Bergarak, iaz baino bi gehiago. Dena den, klubeko arduradunek infantilen bi taldeak osatu nahi dituzte, eta dei egin diete neska-mutikoei proba egitera bertara daitezten Labegaraletara, martitzenetan eta eguenetan 17:30ean. Eta gauza bera Eskubaloikoen Eskolaren kasuan: hauek astelehenean hasiko dira, ordu berean.

Saskibaloikoen taldea, hasita

Saskibaloikoen aurreko astean hasi zuten liga Astigarragan –porrotarekin–. Maila galdu eta gero, aurten Gipuzkoako Bigarren Mailan jokatu dute berriro. Xabat Irazolak izango du taldea gidatzeko ardura –jokatu ere egingo du–; gidatzekoa, eta ahal bada berriz ere Lehenengo Mailara eramatekoa: ez du ezkututzen hori dela aurtengo helburua. Bihar, 16:00etan, Labegaraletan dute lehen urratsa egiteko aukera, Ganbararen kontra.

Gipuzkoako Txapelketako lehiak gaur frontoian

Gaur, egubakoitza, Gipuzkoako Txapelketako bi partidu jokatu dira Udal Pilotalekuan. Kadeteen lehenengo mailakoa izango da lehen: Ilunpeko pilotariak izango dira kontrario, eta Bergara ordezkatzuz Gallastegik eta Etxanizek jokatu dute. Bigarren norgehiagoka nagusien hirugarren mailakoa izango da: kasu honetan, Zubizarreta eta Otermin bergararrak izango dira pilotari urnieta-rraren aurka ariko direnak. 19:15ean hasiko da jaialdia.

Pol-Polekin Madrila joateko ordainketa, urriaren 3ra arte

Hurrengo egubakoitzeko jai-eguna aprobetxatuz, hiru eguneko irteera egingo dute Pol-Polekoek Madrilgo mendietara. Cotos-Cabeza de Hierro-Cotos ibilbidea egingo dute lehen egunean; Berzosa de Lozoya-Peña Cabra, bigarrenean; eta Hoces del Duratonen (Sepulveda) egingo dute hirugarren eguneko txangoa. 135 euroko kostua du bidaiak, eta astelehena da ordainketa egiteko azken eguna. Egubakoitzean 05:30ean aterako dira, frontoitik.

CLINICA DENTAL
BERGARA

Izugarri kostatzen zaizu
dentistarengana joatea?

Gurekin ez!

- Lehen bisita doan eskaintzen dizugu.
- Beste iritzi bat konpromiso barik.
- Gertuko tratu profesionala.
- 60 hilabeterainoko finantzazioa.
- Hortz aseguruetan estaldura

(DKV, Mapfre, IMQ/ADESLAS, Santa Lucia, Ocaso, Previsora Bilbaina, Orbita...).

20 urte
baino
gehiagoko
esperientzia
inplantologian



KILOMETROAK 2016



www.kilometroak.eus

Kilometroak 2016 Bergara

@kilometroak

kilometroakbideoak

kilometroak

ANE BARRUSO
ARANZADIKO ZUZENDARIA

"Herritarrekin batera antolatu dugu jaia"

Bi helburu mota jarri genituen duela urtebete: bata, soziala; eta bestea, ekonomikoa. Helburu bat zen Kilometroak herritarrekin batera antolatzea. Eragileei eskaini genien beraiek nahi zutena egitea jaiaren inguruan, eta gauza politak ater dira. Herritarrek, eragileek zein kultur taldeek aktiboki hartu dute parte. Errespetua ere landu dugu: eraso sexisten edota alkohol kontsumoaren gaineko prebentzioa, jasangarritasuna...

Helburu ekonomikoari dagokionez, lortuko dugun diruarekin dauzkagun maileguen kargari aurre egin nahi diegu.



PELLO ZABALA
EGURALDI-GIZONA

"Eguraldiak hobera egingo du domekan"

Oraingo domekan, goizean triste samar egongo bada ere, egun polita izango dugu; hala ematen du. Aurreko egunerako, zapaturako, euria dago emanda, baina domekara bitartean hobetu egingo du. Datorren frontea ez da handiegia ere izango; beraz, goizean lainotuta egon badaiteke ere, orduak aurrera egin ahal arindu egingo du eta gero eta giro hobea izango dugu Kilometroak egunean. Eguraldi txarrik, behintzat, ez du egingo; beraz, pozik egoteko moduan gaude, badirudi eguraldiak lagundu egingo duela eta Bergarako jaietan.



LEIRE LAZKANO
GIZA BALIABIDEAK

"1.500 boluntario arituko gara lanean"

Domeka honetan Bergaran ospatuko dugun Kilometroak 2016 eguna aurrera ateratzeko lanean arituko garen boluntario kopurua 1.500 pertsona ingurukoa izango da.

1.500 pertsona hauek Aranzadi ikastolako gurasoak, langileak, ikasleak, ikasle ohiak eta Bergarako herritarrek dira, eta baita urtez urte eta kilometroz kilometro lanean aritzen diren beste zenbait lagun ere. Horiek guztiak 15 batzorde ezberdinetan banatuta arituko dira, zirkuituan eta berau osatzen duten bost guneeetan zehar lanean.



XABIER ETXEBERRIA
ZIRKUITUA

"Ibilbide lau eta eroso diseinatu dugu"

Bergaran diseinatu dugun ibilaldia laua da, herrigunear barrena, eta eroso egiteko. Mugitzeko zailtasunak dituztenak ere aintzat hartu ditugu, zirkuitu inklusiboa eginez. Ia 5 kilometro ditu eta bost gunek, gehienak elkarren artean oso gertu. Jendeari gauzak errazte aldera eta egitarau oparoz gozatzeko aukera emate aldera.

Bestalde, natura-gunear barrena beste ibilbide zati bat egin dugu trenbide zaharretik, Udalarekin batera. Jai eremutik aldendu eta trankilago ibili nahi duenarentzako.



ITXASO FERNANDEZ
IRAUNKORTASUNA

"Bizikleta martxak antolatu ditugu"

Jaialdi iraunkorra antolatze aldera, Bergarara bizikletaz etortzeko dei egin dugu, AMPOren babesarekin, eta talde horretako txirrindulariak ere gurekin izango dira. Arrasatetik, Oñatitik, Antzuolatik eta Sorluzetik bina martxa antolatu ditugu, 09:00etan eta 10:30ean (Antzuolan 10:00etan). Boluntarioak izango dira martxetan laguntzen. Bestalde, bizikletendako aparkalekuak izango dira Agorrosinen eta Labegaraietan, uneoro martxan eta zainduta. Helburua da taldean joatea, eta ondo pasatzea garraioa osasuntsu eta ez kutsakorra erabilita.



JON ANDER ARRIOLA
APARKALEKUAK

"Nahikoa aparkaleku izango da denondako"

Aurreko Kilometroetan izandako esperientziarekin, esan daiteke nahiko ondo joan zela, eta aparkaleku nahikoa izango da denontzako. Sakabanatu genituen, alde batetik, autobusak Telleria eta Ibarra aldean (Labegaraietan), eta autoak Amillaga eta San Juan aldean.

Aurten, autobusak toki berean, Labegaraietan, aparkatuko dira eta autoak Amillaga aldera bideratuko ditugu. Gune hori betetzen denean, auto guztiak San Juango Larramendi industrialdera bideratuko ditugu. Handik autobusak jarriko ditugu, jendea zirkuitura jaitsi dadin.



2. GUNEA | ESPOLOIA ETA ARRIZURIAGA




"HAURREN BASOA"

- 10:00: Oso fan taldearen emanaldia.
- 11:00: Iker Laurobaren emanaldia.
- 11:00: Erronkaren lehen proba.
- 12:00: Burun Danga taldearen emanaldia.
- 12:00: Blai-blai, Haurren basoa.
- 12:00: Oihal akrobazia.
- 12:30: Ipuin kontalaria.
- 13:00: Perlak taldearen emanaldia.
- 13:00: Erronkaren bigarren proba.
- 14:00: Eraul taldearen emanaldia.
- 14:00: Blai-blai, Haurren basoa.
- 14:30: Anariren emanaldia.
- 15:00: Oihal akrobazia.
- 16:00: Joseba B. Lenoir Gang taldearen emanaldia.
- 17:00: Imanol Ituño magoaren
Magia parrastan ikuskizuna.
- 17:30: Sorkun-en emanaldia.
- 19:00: Itxiera.

3. GUNEA | LABEGARAIETA



- 10:00: Trialsin erakustaldia: FunBox factory.
- 11:00: Kometa taldearen emanaldia.
- 12:30: Autobus Magikoa taldearen emanaldia.
- 14:00: Emon taldearen emanaldia (Demasa
Kilometroak 2016ko abestia zuzenean).
- 14:00: Trialsin erakustaldia: FunBox factory.
- 14:00: Bazkaria Erronkariarentzat.
- 15:00: Oihan Vegaren Dj saioa.
- 15:30: Erronkaren errepeska eta finala.
- 17:30: Skakeitan taldearen emanaldia.
- 19:00: Itxiera.



5. GUNEA | AZOKA



- 10:00: Zzio taldearen emanaldia.
- 11:00: Erronkaren lehen proba.
- 11:00-13:00: Erraldoiak eta Buruhandiak.
- 12:00: Tio Teronen semeak taldearen dantza emanaldia.
- 13:00: Erronkaren bigarren emanaldia.
- 13:00-16:30: Herri bazkaria (Lurlan), 25 euro.
- 13:00-16:30: Herri bazkaria (Frontoian), 15 euro.
- 14:30: Aukeran taldearen dantza emanaldia.
- 15:30: Anje Duhalderen emanaldia.
- 17:00: Oxabi taldearen emanaldia.
- 19:00: Itxiera.

4. GUNEA | MATXIATEGI




- 10:00: Fan & Go taldearen emanaldia.
- 11:00: Erronkaren lehen proba.
- 12:00: Ze esatek!! taldearen emanaldia.
- 12:00: Asier Muniainen carver skate erakustaldia.
- 13:00: Erronkaren bigarren proba.
- 14:00: Doctor Deseo (euskaraz).
- 15:30: Fly Shit taldearen emanaldia.
- 17:00: Azkaiter Trioren emanaldia.
- 19:00: Itxiera.

1. GUNEA | IKASTOLA



- 09:30: Hasiera ekitaldia.
- 10:00: Zirkuitu irekiera.
- 10:00: Erronkaren aurkezpena.
- 10:00-18:30: Puzgarriak.
- 10:30: Moittuai taldearen emanaldia.
- 11:00: Erronkaren lehen proba.
- 12:00: Moises Azpiazu dantza taldearen emanaldia.
- 12:00: Omenaldia eta lekukoa ematea.
- 13:00: Erronkaren bigarren proba.
- 14:00-18:30: Irrien Lagunak.
- 19:00: Itxiera.

IBILBIDE ALTERNATIBOA





GARBIÑE MARTINEZ
ARROPA

"Gune nagusietan izango gara igandean"

Urte osoan barrena ibili gara herririk herri Kilometroetako arropa eta osagarriak saltzen. Eta Bergarako dendan ere bai. Baina, jakina, igandean ibilbideko gunetan jarriko ditugu postuak. Honako gune hauetan: Ikastola (1), Espoloia (2), Labegaraieta (3) eta Matxiategi (4). Azkeneko egunotan asko saldu dugu dendan, baina iganderako izango dugu jeneroa. Demasekoa. Polit askoa. Bestalde, Kilometroak eguna pasatakoan, bi astez-edo Bergarako dendan ere erosi ahalko da. Urriaren 4tik aurrera, arratsalde, eta larunbatetan, goiz eta arratsalde.

MIREIA GALLASTEGI
PREBENTZIOA

"Eraso sexisten aurkako protokoloa osatu dugu"

Gure batzordeak bi arlo nagusi landu ditu: batetik, alkoholarekin eta drogekin lotutako prebentzioa; eta bestetik, eraso sexisten aurkako kanpaina. Hala, protokolo bat eta dekalogo bat egin dugu bi arlo horien gainean, tabernekin eta Udalarekin elkarlanean. Aurreko jaialdietan erabilitakoak oinarri hartuta, guri egokitutako plan bat osatu dugu.

Eraso sexistei lotutako kanpainari dagokionez, prebentzio dekalogoaz gain, zerbait gertatuz gero jarraitu beharreko protokolo zehatz bat prestatu dugu domekako jaialdira begira.



JOSEAN ARENAZA
KOMUNIKAZIOA

"Jaiaren berri emango dugu uneoro"

Kilometroak jaiaren uneoroko jarraipena egingo dugu www.kilometroak.eus webgunearen bidez eta sare sozialen bidez; bereziki, Twitter, Facebook eta Instagramen bitartez. Argazkiak, irudiak, informazioa... nahi beste izango du jendeak gertatzen ari denaren berri izan dezan eta elkarreragin dezan. Bestalde, hiru komunikatu ofizial banatuko dira egunean zehar. Kilometroak eguna argazkiz eta bideoz jasoko dugu eta, esaterako, gaueko 22:00etan, domekan, saio berezia emango da Goiena Telebistan, Goienarekin elkarlanean ekoiztuta.



MAITE ARANTZABAL
BLAI-BLAI

"Jaialdia 'haurrenagoa' izan dadin nahi dugu"

Maiatzean hasi genuen Blai-Blai prozesuaren emaitza da Haurren Basoa. Prozesuaren protagonistak haurrak izan dira, eta helburua beraiek pentsatu eta diseinatutako espazio bat eraldatzea izan da. Azken finean, haurrei parte hartzeko eta erabakitzeko espazio bat ireki diegu eta beraiek sortu dute basoa.

Eskura izan ditugun baliabideak erabiliz eta berrerabiliz, edonork ongi pasatzeko aukera izango duen espazioa da Haurren Basoa. Kilometroak jaialdia *haurrenagoa* izan dadin lortu nahi izan dugu.



MIKEL GOMEZ DE BALUJERA
TXOSNAK

"Euskal produktuen menua izango da"

Lur-Lan baserritar elkartek azokan bertako produktuekin osatutako menua eskainiko du. Hasteko, kalabaza-krema aperitiboa, jarraian udazkeneko entsalada Murietako piper eta tomateekin eta Getariako hegazu eta antxoekin. Bigarreneko, basatxerri-solomoa sasiko barazki eta frutaz bete. Bukatzeko, mahats-sorbetea eta euskal gazta taulatxo izango ditugu.

Beraz, ohiko solomo-ogitartekotik urrundutako eta euskal produktuei atxikitako menu berezia eskainiko dugu domekako Kilometroak egunean.

MAITE FERNANDEZ
IKUSKIZUNAK

"Dr. Deseok euskaraz emango du kontzertua"

Domekako berezitasun handietako bat izango da Doctor Deseo talde bilbotarrak kontzertu osoa euskaraz emango duela. Azkenengo diskoetan beti ateratu du kanturen bat edo beste euskaraz, baina lehenengo aldian izango da hasieratik bukarara kontzertu osoa euskaraz emango dutena. Hori da berezitasuna.

Kilometroak jaialdia euskararen aldeko ekimena denez, balio horiekin lotutako konpromisoa da hartu dutena. Francisek, abeslariak, ez du euskaraz egiten; orduan, konpromiso hau hartzea keinu polita izan da bere aldetik.



ASIER ELORTZA
ERRONKA

"Finaleko probak ikusgarriak izango dira"

Aurtengo erronka ikusgarria eta berri-tzailea izango da; izan ere, Tolosan sortu zenetik, probak berdintsuak izan dira, eta herri bakoitzak bere ukitua eman izan dio probaren bat edo beste aldatuaz. Guk, aurtan, dena berri dugu, eta proba guztiak berri-tzaileak dira. Gainera, beste urte batzuetan ikasleei zehatz-mehatz azaldu izan diete nola izango den proba. Guk aditzera eman ditugu proba bakoitzaren ezaugarri batzuk, baina ez guztiak, sorpresa faktorea bilatze aldera. Aurre-ratu nezake finaleko probak bereziki ikusgarriak izango direla.



Ikastola koloreztatu du Juan Gorritiren 'Aralar itsasmira'-k

Artistak erakusketa jarri du Aranzadin, eta irekiera ekitaldi berezia egin zuen

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Kilometroak 2016 ekimenaren baitan, Juan Gorriti artista nafarrak bere *Aralar Itsasmira* erakusketa ekarri du Bergarara; Aranzadi ikastolara, hain zuzen.

Urriaren 28ra bitartean egongo da zabalik erakusketa. Astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara, ikastolako beheko eta lehen solairuetan, eta baita lorategian, kanpoaldean, Muni-bera ematen duen gunean.

Irekiera ekitaldi koloretsua egin zuten astelehenean. Bertan izan zen Gorriti bera, baita Pirritx eta Porrotx pailazoak ere. Beraiek, ikastolako hainbat neska-mutilekin batera, bi mural margotu zituzten. Mural horiek presente izango dira domekako jaian ere.

Kilometroak bidea

Bestalde, Aroztegi aretoan ikusgai dagoen Kilometroak bidea erakusketa bisitatzeko azken egunak dira. Hain zuzen, urriaren 2ra arte, Kilometroak egunera arte egongo da mostra. Gipuzkoako ikastolen jaiaren 39 edizioetako materiala dago ikusgai: argazkiak, albisteak, leloak...



Gorritiren erakusketa irekiera. | A

'Garden'-en arrakasta

Joan den zapatuan Garden ikuskizuna izan zen Udal Pilotalekuan, eta arrakasta itzela izan zuen. Alos Quartet hari-laukotea, Aukeran dantza konpainia, Oreka TX bikotea eta Eñaut Elorrieta izan ziren agertokian, baita ikastolako umeak ere.

Guztien artean frontoiko harmailetan batutako 700 ikusleak ase zituen espektakulu borobila eman zuten.



Eñaut Elorrieta kantuan. | I.S.



M.T.

Sanmigelel agur Angiozarren

Asteburuan zehar eta atzo, San Migel egunez, jaiak ospatu dituzte Angiozarren. Atzokoan, besteak beste, meza izan zen, eta ondoren San Joxepe abesbatzaren emanaldia. Iluntzean egindako San Migelen zeruratzearekin, datorren urtera arte agurtu dituzte festak.

Zabalotegi aretoan eta gaztetxeko zineklubean, zinemazaleendako aukera ugari urrian zehar

Oscar saridun bi pelikula proiektatuko dituzte Zabalotegin urrian. Hilaren 5ean (20:00) *Spotlight* eta 19an (20:00) *El hijo de Saul*. Gaztetxeko Dynamo zineklubean eguaztenero izango da film bat 21:00etan. Hauek izango dira, hurrenez hurren: *The Brussels Business*, *El jovencito Frankenstein*, *Pride* eta *Donnie Darko*.

OHARRAK

SIMON ARRIETA MOSTRA

Sanmartinetako 43. Ageriko Simon Arrieta margo lehiaketako lanak osoko bilkuren aretoan ikusgai urriaren 6ra arte.

ERAKUSKETAK TABERNETAN

Nahikari: J. Santorcuato; Pol-Pol: X. Larrañaga; Dixula: I. Elexpuru; Raizabal: J. Leturia; Artesan: J. Altuna; Hamaika: *Azur*.

ERREGETXO PLAZA PROMOZIOA

EURIBOR +% 0,75 | LEHEN URTEKO ITNa %1,10

Zure beharretara egokitzen den etxe bat aukeratzeko baduzu, zergatik ez aukeratu hipoteka ere zure neurria

Hipoteka-mailegu pertsonalizatua. Zure beharretara egokitzen dena. Eta baldintza oso lehiakorretan, datozen urteetan zuk merezi bezala bizi zaitzen. Zuk erabaki bezala.

www.bankoa.com

Ibargarai, 3. Bergara.
Tel.: 943 76 38 93

CA bankoa
CRÉDIT AGRICOLE

Edukiontzia noiz jarri martitzenean jakingo dute

Araba ibilbideko 22. atarteko gunea aldatu egingo dute eta horrek eragina izango du kamioien ibilbidean

MIRARI ALTUBE | ARETXABAETA

Edukiontzia berriak iritsi dira herrira. Baina oraindik ez daude kaleetan, biltegian baizik, eta horiek muntatzen dabilta langileak. Debagoieneko Mankomunitateko ordezkariak emandako data, iraileko azken astea, atzeratu egingo da hainbat arrazoi tarteko, eta data berria datorren martitzenean erabakiko dutela jakinarazi dute Unai Elkorok, alkateak, eta Lander Arregik, Debagoieneko Mankomunitateko Ingurumen Batzordeko buruak.

Gune aldaketak

Atzerapenaren arrazoiak hainbat dira. Batetik dago egokitzapen txiki bat egin beharra txipa izango duten edukiontziei, hau da, grisei eta marroiei: "Sarraila berria da eta edukiontzia egokitzapena behar du", jakinarazi du Elkorok.

Eta bestetik, edukiontzia dako zehaztutako bi guneren azken orduko aldaketa. Bata Iralabarri plazakoa da; proposatutakoaren orde orain zintzilikarioak dauden lekuan bertan jarriko dira. Eta bestea da Araba ibilbidearen 22. atarte ingurukoa. Azken aldaketa horrek, gainera, kamioiaren ibilbidean ere eragina izango du. "Orain zintzilikarioak dauden lekua dela-eta kexa asko jaso ditugu, eta horregatik, beste aldera pasatuko da gunea. Kamioiak,



Biltegian dauden edukiontzia gertatzen langilea, atzo. | MIRARI ALTUBE

baina, eskumatik jaso behar ditu edukiontzia eta horrek ibilbide aldaketa ekarriko du".

Horiek guztiak konponduta sistema aldaketaren data zehatza datorren martitzenean erabakiko dutela adierazi dute. Izan ere, zerbitzua ematen duen Cespa enpresarekin ere oraindik hainbat kontu dituzte lotzeko: "Bi langile eta erdiri eragingo die sistema aldaketak. Eta ahalik eta kalte txikiena eragin dezan ahalegintzen gabilta". Behin Aretxabaletan ere sistema aldatuta, "132.000 euro aurreztuko dituela mankomunitateak urtero" uste dute.

Txartelak informazio gunean

Txipa duten edukiontzia zabalteko txartelak herritarren %80k dagoeneko jaso dituzte: "Hori asko da, kontuan hartua %10 inguru ez dela banatzen hainbat arrazoi-erengatik", dio Elkorok. Oraindik jaso ez duenak Durana kaleko informazio gunera jo dezake goizetan (09:30-13:30); aste honetan egunero, eta datorren astean martitzenetan eta eguenetan. Inork eragozpenik izanez gero ordutegi horretan pasatzeko informazio bulegoan edo Mankomunitatean jakinarazi dezala eta txartela Arkupeko harrerara eramango diote.

EAJ izan da nagusi 1.372 botorekin eta gero EH Bildu, 94 gutxiagorekin

Herritarren %65,36 joan dira bozkatzera, orain dela lau urte baino gutxiago

M.A. | ARETXABAETA

Aretxabaletan, Leintz aldean legez, EAJ izan zen garaile joan den domekako hauteskundeetan 1.372 botorekin (%39,14). Atzetik jarraitu zion EH Bildu 1.278 botorekin (%36,46) eta horien atzetik geratu ziren Elkarrekin Podemos 419rekin (%11,95), PSE-EE 262rekin (%7,47) eta PP 105ekin (%2,99).

Kurtzebarri eskolako hauteslekuak lau mahaitatik hirutan gailendu zen EAJ; laugarrenean -baserri-auzoetako eta Txarape ibilbideko boto emailen mahaian-, ostera, EH Bildu. Horrek 353 boto jaso zituen eta EAJk, 256.

Botoa emateko eskubidea 5.404 herritarrek izan dute oraingoan, eta horietatik %65,36 joan ziren; hortaz, abstentzioa izan zen %34,64.

Guztiak "gustura"

Herriko jeltzaleak "pozik" ziren eskuratutako boto kopuruarekin.

"2012koekin alderatuta 122 boto gehiago jaso ditugu, eta laugarren aldiz lehen indarra izaten jarraitzen dugu herrian. Guretzat oso positiboa da hori, eta benetan gustura gaude", jakinarazi zuen Unai Elkorok, alkateak, emaitzak esku artean.

EH Bildukoak "konforme" agertu ziren bigarren geratu arren: "Pozik egoteko moduko emaitza da. Azken hauteskundeetan izandako beherakadari buelta ematen hasi gara esango nuke, eta ia-ia berdinketa teknikoan izan dela EAJren eta gure artean esan daiteke", zioen Anjel Bergaretxek. Era berean, EH Bilduko kideek eskerrak eman gura izan dizkio te botoa emandako herritarrei: "Eskerririk asko, eta zorionak, gure proiektua babestu duzuen guztioi! Aurrera jarraitzeko gertu gaude".

Irabaziko Luis Mariano Gomez ere "pozik" agertu zen Elkarrekin Podemosek jasotako botoekin: "Espainiako hauteskundeetarako jaso genuenaren ia erdia, hortaz, gustura". Eta PSE-EEko zinegotzi Miren Lorea Lanak adierazi zuen "aurretik esandakoa" bete dela sozialisten kasuan.

i25 EMAITZAK		
	2016	2012
Errolda	5.404	5.389
Abstentzioa	%34,64	%31,73
EAJ	1.372	1.250
EH Bildu	1.278	1.479
Elkarrekin Podemos	419	-
PSE-EE	262	497
PP	105	132
Ciudadanos	26	-

NIRE USTEZ

INAXIO GARRO



Iruña-Veleiako arrastoak bila

Dagoeneko 10 urte luze igaro dira Arabako Iruña-Veleian euskaraz idatzitako aspaldiko pieza batzuk agertu zirela. Erromatarren Garaiko aurkikuntza horren aurrean, batzuek arre eta beste batzuek iso esan zuten; hau da, batzuentzat egiazkoak direla, besteentzat faltsuak.

Aurkitutakoa benetakoa balitz, euskaraz idatzitako aurreneko arrastoak aurrean egongo ginatke, baina badago, egon ere, hori guztia begien aurrean ikusi nahi ez duenik eta gaia bera asmakeria hutsa dela deritzona.

Kontxo, neuk ez dakit arrazoa nork izango duen, baina sikiera kuriozosa da erakunde publikoek eta administrazioak

balizko benetakotasuna aztertzeko eta egiaztatzeko/gezurta- tzeko traba baino ez duela jartzen, baten batzuk egiten ari diren lana galarazi eta zapuztu nahian.

Pasatu den denbora luzeegia da, eta euskarak badu behin- googatik idatzita aurkitutako kultura materialaz egia jakite- ko beharra. Agian horrek aurre- ritzi eta usteetan eraikitako ustezko egiak kolokan jarriko lituzke, eta maila teorikoan onartutako hamaika kontuk ez lukete zentzurik.

Informazio sakonagoa nahi izanez gero, bisita gidatu alter- natiboak antolatzen dira, eta udazkenerako badago baten bat edo beste aurreikusita. Ea guz- tion artean lortzen dugun atea ireki eta euskarazko 1.000 gra- fito horien inguruan egi osoa jakitea, traba barik.

"Ustezko egiak kolokan jarriko lituzke"

Hainbat lan egingo dituzte udazkenean; Txarapeako eskailera, adibidez

Eliza osteko espaloia zabalduko dute, Araba ibilbidea asfaltatu eta skate parkea egin

M.A. | ARETXABAETA

Otsailean onartutako Udal aurre- kontuan aurreikusitako hainbat lan helduko diote urtea buka- tu aurretik. Datozen egunotan esleituko dituzte, eta urria eta azaroa bitartean hasi, Unai Elkorok, alkateak, dionez.

Araba ibilbidea asfaltatuko dute batetik. "Dagoeneko egin- da egon beharko luke horrek, baina EDP enpresak gas-hodiak sartu behar zituenez atzeratu egin genuen obra", jakinarazi du Elkorok, eta gaineratu: "Bost bat enpresari bidali dizkiegu gonbidapenak eta hamabost egunen barruan jakingo dugu zeinek egingo duen; baita lanak hasi ere".

Errekarren kaletik Txarapea ibilbidea igotzeko eskailera ere egingo dute datozen hilabeteotan: "Bi metroko zaba- lera izango du eta hormigoia- rekin egin arren egur itxura ematen saiatuko dira ingurura egoki dadin". Eliza alboko espaloia zabalteko lanak ere egin- go dituzte: "Araudiak eskatzen du espaloiak bi metro izatea eta hori bermatuko dugu. Gai- nera, zaharren egoitza doto- zen erabiltzaile asko pasatzen dira hortik".

Skate parkea ere egingo dute kiroldegi aurreko zelaian: "Diru- laguntza bat jaso dugu horre- tarako, eta azaroaren 30erako bukatuta izatea da baldintza".



Asfaltatuko duten Araba ibilbidea. | M.A.

Urrian kanpai-joleak dira protagonista Arkupen

Astelehenean jarriko dute argazki erakusketa

MIRARI ALTUBE | ARETXABAETA

Kanpai-joleen argazkiekin beteko da Arkupeko erakusketa aretoa astelehenean. Argazki lehiaketa deitu zuen Arientzako kanpai-jole eskolak, Udaleko Kultura Saialaren eta mankomunitatearen laguntzarekin eta jasotako lanak jarriko dituzte ikusteko.

Mexikotik ere argazkiak

Guztira 123 lan jaso dituzte, 46 argazkilarik bidalitakoak. Horietako hainbat debagoiendarrak dira: arrasatearrak, aramaioarrak, eskoriatzarrak, antzuolarrak... Baina kanpotik ere bidali dituzte lanak: "Leku askotatik bidali ere: Madrildik, Sevillatik, Kantabriatik, Valentziatik, Ciudad Realdik, Bartzelonatik, Lleidatik, Cadiztik, Balear Uharteetatik... Baita itsasoz beste aldetik ere; Mexikotik, hain zuzen", jakinarazi du Julen Abasolok, Arientzako eskolako kideak.

Kanpaien atzean dauden lagunak ezagutzera ematea izan da lehiaketaren helburua: "Eta horixe jaso dute ia argazki guztiek. Argazkiari komentario bat gehi-



Arientzako kanpai-jole eskolako kideak Lleidan. | KANPAI-JOLE ESKOLA

zteza ere eskatu genien, eta guretzat, Arientzako kanpai-joleontzat gehigarri ederra bilakatu da", dio.

Epaiaren berri urriaren 7an

Epaimahaiko kideek -Kultura Saileko ordezkari bat, argazkilaritadituak eta kanpaien munduarekin zerikusia duten lagunak- argazkiotatik 30 bat aukeratu dituzte, eta horien artean banatu gero sariak. Epaiaren berri urriaren 7an, hurrengo egubakoitzean,

emango dute, baina sari banaketa eguna zehaztu barik daukate oraindik: "Irabazleek bertara etorri behar dute saria jasotzera, hortaz, horiekin adostuko da eguna. Edozein modutan ere urrian izango da", argitu du Abasolok, eta gaineratu: "Izan ere, lehiaketaren beste helburuetako bat Aretxabaleta jendeari ezagutaraztea da eta mapan kokatzea".

Argazkiak urria osoan egongo dira ikusgai Arkupen.

Ludotekaren ikasturtea urriaren 5ean jarriko dute abian hainbat jarduerarekin

M.A. | ARETXABAETA

Eguaztenean, urriaren 5ean, zabalduko ditu ateak Gernika plazan dagoen Algara ludotekak, eta ekintza bereziak antolatu dituzte umeak zein gurasoak hurrera daitezen; ordutegia izango da 17:30etik 19:00etara.

Eguaztenean, Haur Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailakoendako zabalduko dute, betiere, heldu baten laguntza-

rekin joanda. Eta urriaren 6an, eguenean, irekiera jaia egingo dute Arlutzeko kantxan: "Gura duten ume guztiak hurreratu ahal izango dira, heldu baten begiradapean", jakinarazi dute Udal ordezkariak. 3 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoendako Udalak eskaintzen duen zerbitzua da ludoteka: "Jolasa baliabide nagusizat erabiliz hainbat helburu lantzen dira", diote.



IDOIA ELEXPURU

Aretxartekoak nagusi dokean

Laugarrenez jokatu dute doke txapelketa sanmigeletan Basotxo, Aretxarte, UDA eta Loramendi elkarten artean, eta beste behin umore ona izan dute lagun. Aurten, gainera, Aretxarte izan da nagusi.

Erretiratuen kultura hamabostaldien barruko ekitaldia izan da, eta gaur bukatuko dute hori txokolateta hartuta eta H.Kinta.Ku taldearen doinuekin dantzan eginda; Basotxon da ekitaldia, 18:00etan.

Aparteko giroarekin, kantuan hasi eta bukatu dituzte herritarrek San Migel jaiak



Herritarrek kantuan. | AITOR AGIRIANO



Taloen masa egiten. | A.A.

M.A. | ARETXABAETA

Sei Pistols Eta Trabuko Bat taldearen inguruan 632 herritar elkartzuta hasi ziren sanmigelak joan den egubakoitzean; baita giro ederrean hasi ere: "Herritarrek gustura hartu dute leku aldaketa, Durana kaletik plazara. Eta datorren urterako mahaiak kokatzeko era aldatzea eskatu digute", jakinarazi du Joxe Migel Uribarrenek, Kultura zinegotziak.

Zapatuan, osterara, sasoi bateko azoka giroa izan zen nagusi: "Tomate mozkorren lehiaketa antolatu da lehenengoz, eta parte-hartzea

txikia izan arren produktuaren kalitatea maila altukoa izan da", dio. Sariak honako hauek jaso zituzten: Jose Lonbidek pisu handieneko tomateagatik (1.130 gramokoa) eta tomate barietate gehien aurkezteagatik; eta Marije Revueltak, tomaterik zatarragatik.

Elkartasun Bazkariak bete egin zuen Iturrigorri pilotalekua, eta Beinke Loramendi dantza saioak ere jendetza elkartzu zuen plazan.

Domekan jarraipena izan zuen jai giroak herri kirolen eskutik eta jaiei bukaera Aretxabaleta Abesbatzak eman zien: "Maila handiko emanaldia eskaini zuen beste behin, eta erantzuna ere oso ona izan zen", adierazi du, eta eskerrak eman gura izan dizkie lanean jardun zuten guztiei.

Argazki ikastaroa eguenean Ekaitz Filarmendik gidatuta

Kamera automatikokoan jarri barik argazkiak ateratzen (sentsibilitateak aldatu, abiadurak eta diafragmak erlaxatu...) erakutsiko du Filarmendi aretxabaletarrak, eguenean (18:30-20:30); hona egunak: urriak 6, 13, 20 eta 27, eta azaroak 3 eta 10. Udaltxe zaharrean izango dira eskolak eta izena aurrez eman behar da Loramendira jota: loramendielkarte@gmail.com edo 685 75 67 29. Prezioa da 10 euro bazkideendako eta 15 euro gainerakoendako.

'Erpurutxo' antzezlanak dute umeek Arkupen, urriaren 9an

Antzezlanen hilabetea izango da urria Arkupen; hiru izango dira umeendako (sarrera, 3 euro) eta beste hiru helduendako (sarrera, 4 euro).

Lehenengoa hilaren 9an da, domeka; Teatro Paraiso taldeak *Erpurutxo* eskaniko die neska-mutikoei, 17:00etan. Grimm anaiek idatzitako ipuin klasikoa eguneratuta dakar talde arabarrak.

Helduek, osterara, *La guerra del sofá* izango dute hilaren 14an, 22:00etan, Erre Produktzioak taldearen eskutik.



Joalduna artisau postuan, zapatu goizean. | AITOR AGIRIANO



Tomateen postua. | MANKOMUNITATEA



Abesbatzako kidea. | IMANOL SORIANO

Nerea Pavo | Areto futboleko atezaina

"Ordizian kirolari moduan hazteko aukera bikaina dela uste dut"

Bigarren mailako areto futboleko Ordizia taldeak fitxatu du Nerea Pavo eskoriatzarra atezain moduan

I.B | ESKORIATZA

Nerea Pavo eskoriatzarra areto futboleko atezaina da. Zortzi urte zituenetik aritu da kirol honetan, lehenengo mutilekin batera, eta ondoren, azken bi urteetan, Eskoriatzako senior mailan nesken talde berriarekin aritu da. Orain, etapa berriari ekingo dio; izan ere, bigarren mailako Ordizia taldeak fitxatu berri du.

Nola jaso zenuen Ordizia taldearen fitxaketa?

Oso pozik. Iaz probak egin nituen Ordizia taldearekin, baina lesionatu egin nintzen. Abuztuaren amaieran, eurekin jokatzeko eskaera jaso nuen eta ordutik entrenatzen izan naiz talde berriarekin.



Nerea Pavo. | GOIENA

Maila ezberdina, gogorragoa?

Eskoriatzako emakumezkoen areto futbol taldea duela bi urte sortu zen, eta oso gustura egon

naizen arren, kirolari moduan hazteko aukera bikaina dela uste dut. Seniorretan talde gutxi jokatzeko guren, eta maila ez zen oso handia; orain, aldiz, ezberdina izango da.

Atezaina izatea ez da erraza izango. Bigarren atezain moduan hasiko naiz lehenbizi. Entrenatzaileak esan zidan entrenamendu eta partiduen arabera izango ditutala minutuak. Hori espero dut. Orain dagoen atezainak urte asko daramatza, eta bere ordez jokatzeko zaila izango da.

Dagoeneko lehen jardunaldia jakatu duzue, ezta?

Bai, Zaragozan jokatu genuen lehenengo partidua eta 1-1 egin genuen. Ni aukian izan nintzen, eta ez nuen jokatzeko aukerarik izan. Hala ere, gutxika-gutxika eta pazientziak hartu beharko dut...

Faltan igarriko duzu Eskoriatza taldea?

Gertutik jarraituko ditut, eta onena opa diet. Hazten eta lanean jarraitu dezaten eskatuko nieke. Bereziki, Elaitz Iregiri; izan ere, bizi eta konpartitu ditugun momentuak asko eta onak izan dira. Urrun heltzeko aukerak ditu hala jarraitzen badu...

Hasi da Eskoriatzako Garagardo Azoka Solidarioa

I.B | ESKORIATZA

Jose Arana zaharren egoitzari laguntzeko Garagardo Azoka Solidarioa karpa atzo arratsaldean ireki zen, eta domekara arte irekita egongo da.

Herriko Plazan dagoen karpan askotariko garagardoak edateko eta Alemaniako jakiak eta oilas-

ko-izterrak jateko aukera egongo da. Gustu askotariko hamar garagardo ezberdin izango dira: alkoholduak, alkohol bakoak, garagardoa limoiarekin eta ZerB artisau garagardoak.

Jateko ere aukera zabala izango du nahi duenak: 350 ukondo, 65 kilo saltxitxa, 65 kilo oilas-

ko-izter, patata frijituak, herri-tarrek prestatutako tortilla pintxoak... izango dira.

Otarreak zozketan

Eskoriatzako merkataria eta herri-tarren laguntzarekin produktu ezberdinez osatutako otarreak zozketatuko dira aurten. Eta, bihar arratsaldean zozketatuko dira. Bestalde, gonbidapena egin nahi diete antolatzaileek herri-tarrei, bertara hurbildu eta festara animatzeko.

EAJ alderdia izan da garaile Eskoriatzan 763 botorekin

I.B | ESKORIATZA

Eskoriatzan EAJ nagusitu da, 763 botorekin, boto guztien %39,6. Bigarren EH Bildu izan da, 644 botorekin (%33,4), eta hirugarren, Elkarrekin Podemos, 241 botorekin (%12,48). Hurrengo alderdiak hauek izan dira: PSE-EE (150 boto, %7,77), PP (52 boto, %2,69), Si Se Puede-Ganemos (19 boto, %0,98), Pacma (17 boto, %0,88), Ciudadanos (13 boto, %0,67); beste alderdi batzuek 9 boto atera dituzte, 7 zuri izan dira eta 6 baliogabeak; denetara 1.925 boto eman dira, 3.144 lagunek osatutako erroldatik, hau da, %61,42ko parte-hartzea, orain lau urtekoa baino %4 txikiagoa, gutxi gorabehera.

Eskoriatzan bozkaleku bakarra egon da, kultura etxean egon dena, bi ataletan banatuta, eta atal bakoitzean bi mahai izan dira. EAJk lehenengo ataletan irabazi du, eta EH Bildu nagusi izan da bigarren ataletan.

Lau urtean kontrakoa

Orain dela lau urteko Eusko Legebiltzarrerako emaitzen kontrakoa izan da honako hau; EAJ alderdiaren eta EH Bilduren artean, hain zuzen. Izan ere, orain dela lau urte EH Bilduk 734 boto lortu zituen Eskoriatzan eta EAJk, 636; hortaz, EAJk 127 boto irabazi ditu orduz geroztik eta EH Bilduk, berriz, 90 galdu.

i25 EMAITZAK

	2016	2012
Errolda	3.144	3.169
Abstentzia	%38,58	%35,91
EAJ	763	636
EH Bildu	644	734
Elkarrekin Podemos	241	-
PSE-EE	150	407
PP	52	64
Ciudadanos	13	-

Tertulia literarioa egingo da kultura etxean

I.B | ESKORIATZA

Rafael Reig idazlearen *Lo que no esta escrito* liburuaren irakurketa egingo da tertulia moduan. Urriaren 6an, egue-nean, 18:00etan, kultura etxean izango da saioa, eta nahi duen edonork har dezake parte. Ez da derrigorrezkoa izango liburua irakurrita izatea, baina, hala gomendatzen da.

Ruben Angel Arias gasteiztarra koordinatuko du solasaldia, eta gasteiztarra saioan berak proposatutako pasarteak aztertuko dira. Dagoeneko 14 pertsonak eman dute izena, baina hala ere saio irekia izango da. Bestalde, informazio gehiago nahi duenak Bibliotekan, biblioteka@eskoriatza.eus edo 943 71 31 35 telefonora deituta lor daiteke.

Iraileko ohikoan merkataritza eta ostalaritza mintzagai

Bertso-eskolan eta gaztelekuan aurrekontuak egiterakoan aldaketak izango dira

I.B | ESKORIATZA

Aho batez onartu ziren atzoko osoko bilkuran tratatutako gai guztiak. Aipagarriena Eskoriatza merkataritza eta ostalaritza sustateko diru laguntzak emateko araudia onartzea izan zen. Baldintza aldaketa batzuk izan dira, batez ere euskararen presentzia handiagoa izateko helburuarekin.

Alde batetik, negozioetan irudi aldaketa hobetze aldera, "laguntza eskainiko zaie, eta maximoa 1.000 eurokoa izango da. Bestalde, merkataria inoiz ez du jasoko gastatu duena baino diru gehiago...", adierazi zuen Joserra Zubizarreta alkatetik, eta gaineratu: "Helburu nagusia euskarak merkataritza honetan presentzia gehiago izatea da".

Aipatzeko beste gai batzuk ere mahai gainera atera zituzten. Bertso eskolako zerbitzua esleitzea eta, bestetik, Gazteleku zerbitzuaren kontratua luza-tzea.

Bertso-eskola eta Gaztelekua

Bertso eskolaren aurrekontuan aldaketa egongo da. "Lehen, urtero egiten ziren aurrekontuak; orain aldiz, bi urteka egingo dira, kalkuluak egiteko errazagoa dela uste dugulako". Baina horrez gain, ez da aldaketarik egingo, modu berean jarraituko du funtzionatzen.

Gaztelekuan berdina gertatzen da, baina, kasu honetan, datorren urtean berriz konkurtsora eraman beharko da; izan ere, hau izango da azken luza-pena.

Kiroldegiko gastu eta orduak

Amaitzeko, galde-eskeen tartean kiroldegiko ordutegian eta kanpoko igerilekuan gastu eta herri-tarren erabilera aztertzeke eskatu zuen Aitor Zubizarreta EH Bilduko bozeramaileak. Alkateak erantzun zion datuak dituztela, baina aztertuko dutela zerbitzua hobetze aldera aldaketaren bat edo beste egin behar bada.

Erretiratuen omenaldia bikain

Helena San Vicentek eta Pablo Ganboak omenaldia jaso zuten domekan. Lore sorta eta beste hainbat opari jaso zituzten Udaleko ordezkarien partetik, bazkariaren ostean.



IMANOL SORIANO



IMANOL SORIANO

Kirol Elkarteen aurkezpena

2016-2017 denboraldiko argazkiak atera zituzten domekan Eskoriatza Kirol Elkarteko saskibaloia eta areto futbol taldeek. Emakumeen saskibaloian lau talde dira eta areto futboleko beste lau. Talde bakoitzak banaka atera ondoren, guztiek batera familia argazkia atera zuten denboraldi berrirako kamisetekin.

Kirola eta pertsonen arteko harremanak herrian sustatzeko

Abian da Antzuolako futbol eskola ofiziala; izena emateko epea zabalik dago

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Aspaldiko desioa eta ilusioa zen Antzuolan futbol eskola edukitzea. "Herrian sumatzen zen nahia eta orain posible izango da futbol eskola ofiziala edukitzea. Zaletasun handia dago, gainera", dio Ibon Gezalagak, futbol eskolako arduradunak.

150 neska-mutiko

"Helburua da gazteak txikitatik futbolekin hastea eta kirola egitera animatzea. Baina gerora jokalaria herriko taldean geratzea gura dugu". Zaletasuna egon badagoela Antzuolan dio AKEko presidente Mikel Kerexetak: "Geroz eta ume gehiago dago, gainera. Aurten, 150 gaztetxok parte hartuko dute".

"Eta noski, kirola eginez, pertsonen arteko harremanak sortzea edo euskara indartzea ere bada asmoa", argitu du Ander Arana proiektuaren egileak.

Bi maila izango ditu futbol eskolak: benjaminena eta alebina. Era berean, futbol eskolak, nesken taldea sortzea posible egingo duela uste dute. Izan ere, nesken artean kirola sustatzea ere gura dute. "Neskak kirola egitera animatu gura ditugu eta futbolaren bitartez kirola egitearen aldeko apustua egin dezaten



Astelehenean AKEk gurasoekin egindako bileraren unea. | MAIDER ARREGI

gura dugu. Eskerrak eman Matz errekarari proiektu honen %100a jartzeagatik", azpimarratu gura izan du Kerexetak. Horri esker gazteak goitik behera jantzea posible izango da eta bi lagun entrenatzaile gisa formatuko dituzte.

Zenbait baldintza

Futbol eskolako kide izateko, baina, bete beharreko baldintzak

hauek dira: AKEko bazkide izatea (35 euro urtean) etxeko kide bat, gutxienez zortzi urte edukitzea eta eskola kirolean izena emanda egotea.

Talde argazkia

Eskola osatuko duten gaztetxoekin talde argazkia astelehenean Eztalako zelaian aterako dute, 17:45ean. Eskola kiroleko jantzia eraman beharko dute gaztetxoek.

IBON GEZALAGA
ARDURADUNA



"Neska-mutiko txikie aukera bat eman nahi diegu. Modu horretan, herrian zegoen hutsunea betetzea lortuko dugu eta".

JOSU LARREA
ENTRENATZAILEA



"Konpromisoak hartu beharko dituzte gaztetxoek. Besteak beste, partiduetara joateko ardura eduki beharko dute aurrerantzean".

ANDER ARANA
PROIEKTU EGILEA



"Umeek beste herri batera alde ez egitea eta herrian futbolekin jokatzeko bidea eginda edukitzea gura izan dugu futbol eskolaren bitartez".

Jose Ramon Jauregi da EAJko zinegotzi berria

Maria Eugenia Arrizabalagak dimisioa aurkeztu du

M.A. | ANTZUOLA

Karguak bateratu ezin izanak eraman du Maria Eugenia Arrizabalaga zinegotzia dimisioa aurkezteara. "EBBko kide eta Batzar Nagusietako EAJren bozeramaile izatearen ondorioz, ezin izan naiz azaldu. Horrela ibiltzea ez da egokia, antzuolarren ordezkaritzak gehiago merezi du", dio.

"Badugu ordezkoa, egokia, gainera, eta antzuolarra: Jose Ramon Jauregi. Bai ordezkatzen dudana proiektu politikoarentzat, eta baita Antzuolako herriarentzat; aukera hobea da. Seguru

nago horretaz. Bost urtez Antzuolako zinegotzi izateko ohorea izan dut, eta ez da hitz hutsa, benetan sentitzen dudana baizik. Aurreko agintaldia amaituta, alkateak eman zidan Antzuolako bandera han daukat, etxeko salan, ohore horren lekuko".

Laugarrena zerrendan, Jauregi

Jose Ramon Jauregi (Antzuola, 1960) izango da Arrizabalaga ordezkatuko duena Udala taldean. Elayko langilea da eta urriaren 4ko, martitzeneko, osoko bilkuran abiatuko dute prozesua.

Aiherra eguna ospatzeko dena prest!

M.A. | ANTZUOLA

Bihar, zapatua, ospatuko da Antzuolan 32. Aiherra eguna. 10:30ean, ongiatorria eta hamaiketako egingo dute. 11:45ean, ibilbide gidatua trenbidean barrena Iñigo Ramirez de Okarizen gidaritzapean. 13:15ean triki-poteoa eguerdiko giroa berotzeko eta 14:30ean bazkaria, plazan. Bazkalostean, Bentazarreko Mutiko Alaiak taldearen kantu saioa izango da, eta, eguraldiak lagunduz gero, bolo-jokoaz eta umeendako ur-parkeaz gozatu ahalko da. Iluntzean agurra egingo zaie.

EH Bildu garaile 592 botorekin; EAJ bigarren 369 botorekin

M.A. | ANTZUOLA

Parte-hartzea, 2012koarekin alderatuta, bi puntu jaitsi arren, antzuolarren %73,81 botoa ematera joan dira.


Beñardo Kortabarria alkateak herriko emaitzak onak izan direla esan du. "Duela lau urteko emaitzekin alderatuta, nahiz eta ez izan alderaketa zuzena Podemos sortu delako, apur bat behera egin dugu. Baina kontuan hartu behar da botoa emateko eskubidea zuen jende kopurua txikiagoa izan dela eta abstentzioa apur bat altuagoa. Hala ere, Antzuolako botoen ia erdia EH Bildurentzat izan da, eta hori asko da. Egindako lanarekin geratzen naiz; lanean oinarritutako lasterketa da, eta helmugara pedalkadaka ailegatuko gara".

EAJko Basilio Ormazabal ere pozik da herriko emaitzare-

kin: "Antzuolan irabaztea oso zaila da, baina goraka goaz". Elkarrekin Podemosko Maolo Rodriguezek ere irakurketa positiboa egin du, testuingurua kontuan hartuta: "Ekainetik pixka bat jaitsi egin dugu; baina hasiera da eta ez dago gaizki".

i25 EMAITZAK

	2016	2012
Errola	1.653	1.692
Abstentzioa	%26,19	%24,88
EH Bildu	592	660
EAJ	369	402
Elkarrekin Podemos	118	-
PSE-EE	75	124
PP	31	24
Ciudadanos	6	-



Argazkian, botoa ematen azkena izan zen herritarra. | MAIDER ARREGI

Nagusien Nazioarteko Egunean erretiratuen eta pentsiodunen eskubideak aldarrikatuko dituzte

Bihar, urriak 1, Nagusien Nazioarteko Eguna ospatuko da. Hainbat elkarretaratze egongo dira. Baina Antzuolako Landaxoeko erretiratu eta pentsiodunek astelehenean, urriak 3, egingo dute elkarretaratzea Herriko Plazan, 19:00etan. "Herritar guztiei dei egiten diegu; izan ere, pertsona nagusiek jasaten duten bereizkeriaren gainean herritarrak kontzientziatu gura ditugu".

Antzuolako gazte txokoan hezitzaileak behar dira; izen-ematea zabalik dago urriaren 2ra arte

Aurtengo ikasturtean (azarotik apirilera bitartean), hiru hezitzaile ariko dira gazte txokoan. Bete beharreko baldintzen artean, hezitzaileek asteburuetarako eta bilerak egiteko bitartekoak izan behar dituzte. Besteak beste, esperientzia, begirale titulua edo zerikusia duen ikasketak edukitzea eta Antzuolan bizitzea baloratuko dira. Izena emateko: gazteantzuola@hotmail.es edo 943 766 065 telefonora jo beharko da. Azken eguna: urriak 2, domeka.

Hauteskundeetako emaitzen gaineko balorazioa egiteko gura du Antzuolako EH Bilduk herritarrekin

Aurrera begira jarraitu beharreko bideaz hitz egiteko eta hauteskundeetako emaitzen balorazioa egiteko batzar irekia egingo du Antzuolako EH Bilduk urriaren 5ean, eguaztena, 18:30ean, Olanen. "EH Bilduren proiektuarekin bat egiten dutenak bertan parte hartzera gonbidatu nahi ditugu; eta bide batez eskerrak eman nahi dizkiegu domekan konfiantza eman ziguten guztiei, eta adierazi auzolanean zintzo jarraitzeaz berresten gara".



Iaz, Etxaguenen jaietako irudi bat | GOIENA

Untzilla eta Etxaguen jaietan murgilduta domekara arte

Egitarau mamitsuak prestatu dituzte biek ala biek

XABI GOROSTIDI | ARAMAIO

Ez da aspertzeko tarterik izango Untzillan eta Etxaguenen gaurtik hasi eta domekara bitartean. Bi auzoek jaiak ospatuko dituzte aldi berean, eta ekintza sorta polita prestatu dute festak fun-
damentuz gozatzeko.

Untzillan bertsoak eta magoak

Gaur 19:00etan kanpai eta etxafuegoekin hasiko dituzte Untzillako 2016ko jaiak. Ondoren, bertsoak izango dira protagonista. Elkarteko mahaiaren bueltan bertso afaria egingo dute Iker Zubeldia eta Julio Soto gonbidatuekin.

Bihar, zapatua, 12:00etako mezaren ostean trikitalariak eta umeentzako puzgarriak egingo dira, eta 14:00etan auzo bazkaria egingo dute elkartean. Sabela bete ostean, mus txapelketaren txanda izango da, eta jarraian

Kidam magoaren ikuskizuna hasiko da, 17:30ean. Eguna bukatzeko, Murumendi elkartearen 34. bolo txapelketa egingo dute.

Domekan, aldiz, mendi irteera eta bermut dantza izango dira, besteak beste.

Etxaguengo San Migelak

Etxaguengoek etxafuegoen soinuekin hasiko dituzte jaiak gaur 19:00etan, eta iluntzean bertso afaria egingo dute Fredi Paiaren eta Arkaitz Estiballesen eskutik.

Zapatu goizean DJek girotutako dute txikiteoa. Arratsaldean mus txapelketa ospatuko dute eta aldi berean umeentzako puzgarriak egongo dira, eta, boro-biltzeko, sokamuturra Etxaguenen zezenen eskutik.

Domekan trikitalariek alaituko dute jubilatuen luntxa, eta ondoren mus txapelketa eta puzgarriak izango dira.

ETXAGUENGO JAIK

EGUBAKOITZA

19:00 Jaien hasiera.

21:00 Bertso afaria.

ZAPATUA

09:30 Kanpai errepikak.

12:00 Meza

13:00 Txikiteoa DJekin.

17:00 Mus txapelketa.

17:30 Umeentzat puzgarriak.

19:00 Sokamuturra.

22:30 DJ Lander.

00:30 Bolo txapelketa.

DOMEKA

10:00 Kanpai errepikak.

12:00 Meza.

12:30 Jubilatuen luntxa.

16:30 Briska txapelketa.

17:00 Umeentzako jolasak.

19:00 Sokamuturra.

UNTZILLAKO JAIK

EGUBAKOITZA

19:00 Jaien hasiera.

21:00 bertso afaria.

ZAPATUA

12:00 Meza.

14:00 Auzo bazkaria.

16:00 Mus txapelketa.

17:30 Asier Kidam magoa.

18:30 Txokolatada.

23:00 34. bolo txapelketaff.

DOMEKA

10:00 Mendi irteera.

12:00 Meza.

13:00 Bermouth dantza.

Diablues eta Bluecifer-ek itxiko du Sastiñako kontzertuen zikloa

Bost emanaldi izan dira irailean egubakoitzero eta Udalaren kultura saila pozik erantzunarekin

X.G. | ARAMAIO

Sastiñako kontzertuen zikloa gaur egingo den emanaldia-
rekin amaituko da. Berga-
rako Diablues eta Bluecifer
bikotea izango da itxiera
emango dion taldea.

Asier Elortza (gitarra) eta Mikel Etxeberria (musu-
gitarra) bluesak lotuta dau-
de eta nabaria da hori euren
musikan. Antzinako blues
akustikoan inspiratzen dira,
20ko eta 30eko hamarkada-
takoetan, batez ere. Hala
ere, Elvisen abestiak ere
moldatzera heltzen dira. Due-
la gutxi, *Dis Covers* diskoa
kaleratu dute. Bederatzi
abesti klasikok osatzen dute,
baina guztiek Diablues eta
Bluecifer filtrotik pasata.

Lan berriko lanak ekarriko
dituzte Sastiñara eta bluesa
gustuko dutenek gozatua
hartzeko hitzordua izango
dute bertan.

Balorazio gazi-goza

Aramaioiko kultura sailetik
positiboki baloratu dute aur-
tengo emanaldien zikloa,
batez ere, etorritako taldeen
kalitate mailagatik. Hala
ere, Kristina Etxenausia kul-
tura zinegotziak jendearen
erantzuna hobetu daiteke-
la uste du. "Aramaio modu-
ko herri txiki batean osti-
ralero kalitadedun zuzeneko
bat ikusteko aukera ez da
maiz egoten, eta hobeto apro-
betxatu behar dugula irudi-
tzen zait".

Beira birziklatzeko edukiontzi bat gehiago

Kultur etxe atzean jarri dute, bertan zegoena azkarregi betetzen zela ikusita

X.G. | ARAMAIO

Aramaioiko kultur etxe atzean
beira birziklatzeko edukiontzi
berria jarri du Udalak.

Aurretik bakarra zegoen,
eta, gune horretan azken urtee-
tan etxebizitzak eta tabernak
gehitu direnez, gehienetan
beteta egoten zen. Horretaz
gain, estatu mailan beira bir-
ziklatzen duen Ecevidrio enpre-
sak batze sistema aldatu berri
du. Antzina, sistematikoki

pasatzen ziren edukiontziak
batzera. Baina orain, behin
beteta dagoenean enpresara
deitu behar da batzera pasa
daitezen, eta horrek askotan
edukiontzia gainezka egotea
eragiten zuen.

Horretaz gain, papera bir-
ziklatzeko beste bi edukiontzi
jarri nahi ditu Udalak. Lehe-
na Etxaguen auzoan eta biga-
rrena Pedro Inazio Barrutia
kalean.

Jubilatuen Egunean parte hartzeko dei egin die Udalak herriko abeltzainei eta artisauei

Urtero bezala, Udalak dei berezia egin nahi die herriko artisau
eta abeltzain guztiei Jubilatuen Egunean parte hartzeko. 2016ko
edizioa urriaren 29an ospatuko da, zapatua, goizean zehar, Nar-
deaga kalean.

Horrela, egun horretan postua jartzeko interesa duen edonork
eskaera egin beharko du udaletxean, datorren urriaren 14a bai-
no lehen.

Ekaineko osoko bilkuran onartu bezala, bideetan babesak jartzeko lanak laster hasiko dira

Sebal SL enpresari esleitu zaizkio lanak eta ondorengo lekuetan
jarririko dituzte babesak: Ipurtotz baserrietik Etxaguen auzunera
jaisten den aldapan, Kruzetako bidetik Gureia auzunera doan
bidean, Arraga auzorako bidean eta Matxain kaletik Ametzu
baserrira doan bidean. Tamalez, badira bionda beharra duten
beste gune batzuk, baina, lehen fase honetan, aspalditik eskatu-
ta zeuden leku hauei eman zaie lehentasuna.

Aramaion EH Bilduk lehen indar bezala mantentzea lortu du

X.G. | ARAMAIO

Aramaion EH Bildu geratu da
lehen postuan, 2012an baino 105
boto gutxiagorekin. Lierni Altu-
na alkatearen hitzetan: "Kontuan
hartuta parte-hartzea jaitzi egin
dela eta Elkarrekin Podemos
alderdia jokoan sartu dela, ez
dira emaitza txarrak".

EAJ bigarren izan da, 2012an
baino 19 boto gehiagorekin. Elka-
rrekin Podemos hirugarren indar
bezala kontsolidatu da 77 boto-
ekin; jarraian, PSE-EE 16rekin eta
PP 5ekin. Azken biek hamar eta
hiru boto galdu dituzte, hurrenez

hurren, 2012ko emaitzekiko. Gane-
mos Euskadik 6 boto jaso ditu,
eta aipagarria dira Vox alderdiak
jasotako lau botoak. Amaitzeko,
Aulki Zuriak alderdiak eta Alder-
di Animalistak boto bana jaso
dute. Nabarmentzekoa abstent-
zioak izan duen gorakada, ia lau
puntukoa izan baita.

Datu ofizialak akatsarekin

Eusko Jaurlaritzaren datu ofi-
zialen arabera, PSE-EE alderdiak
65 boto jaso zituen Aramaion,
baina, datua Udalarekin kontras-
tatu ostean, 16 boto dira.

i25 EMAITZAK

	2016	2012
Errolda	1.191	1.119
Abstentzioa	%29,55	%25,85
EAJ	289	270
EH Bildu	434	539
PSE-EE	16	26
PP	5	8
Elkarrekin Podemos	77	-
Ganemos Euskadi	6	-
VOX	4	0
Aulki Zuriak	1	0
Alderdi Animalista	1	0

ELGETA

Urri erdialdean hasiko dituzte argiteria sarea berritzeko lanak

Gas horniketean ere aldaketa dator, Gas Naturalek erosi baititu kanalizazioak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Aelvasa enpresari esleitu dizkio Elgetako Udalak argiteria publikoa berritzeko lanak, eta urri erdialdera hasiko direla esan du Iraitz Lazkano alkateak. "Lanen aurrekontua 50.983,43 eurokoa da —BEZa kanpo—, eta aurreikusten dugu azaro bukaerarako amaituta egotea". Oraingoan, bi dirulaguntza daude baieztatuta: 8.000 euro inguru Gipuzkoako Foru Aldunditik, eta 10.646 euro Landa Garapenetik. "Energiaren Euskal Erakundetik etorriko denaren zain aurreikusten dugu aurrekontuaren erdia dirulaguntzekin ordaintzea", jakinarazi du alkateak.

Lanen helburua da argiteria publikoa LED sistemara egokitzea. Aldaketak egingo dira Katait Bergara aldera dauden kaleetan. Hala nola, Domingo Iturbe kalean, San Roke kalean, eskola

inguruan, Torrealdean, Mendizaleen eta Andra Mari plazetan, eta Salvador zein Lasao kaleetan. Farola guztiak aldatuko dituzte eta ipiniko dituzte Villa motako farolak eta Philips Town-Guide modeloko farolak. Bi salbuespen izango dira: Mendizaleen plaza eta Andra Mari plaza. Kasu bietan farolen kanpoko estruktura mantenduko dute, eta berrituko dutena barruko sistema da.

Berezitasun moduan, Bolatoko parkea argizatutako dute, eta eguzki izpien bitartez lortutako argindarrarekin argizatzen duen LED tipoko farola bat ipiniko dute hilerrri osteko parke berrian.

Gas hornitzaile aldaketa

Aldaketak datoz baita ere gas horniketean. Elkargas enpresatik baiezatu dute Repsol Gasek saldu egin dituela Elgetako gas kana-



Apurtutako farola, Elgetan. | L.Z.

lizazioak eta Gas Naturalek erosi dituela. Urriaren 10ean egingo dute kontagailuen azken irakurketa. "Herritarrek ez dute aldatarik sumatuko. Gas Naturalen asmoa da propanoa banatzen jarraitzea", esan dute.

ELGETA

Intxortako erresistentziaren 80. urteurrenean, jardunaldi bereziak

L.Z. | ELGETA

1936ko urriaren 4an tropa frankisten erasoaldia gelditu zuten Intxortako frontean, eta 80. urteurrenerako ekitaldi sorta gertatu dute Elgetan. Bihar, zapatua, hainbat kereilatako bultzatzaileak izango dira herrian; tartean, Fran-

kismoaren Krimenen Aurkako Kereilako Euskal Plataformako kide Josu Ibargutxi, Iruñeko alkate Joseba Asiron eta Bartzelonako alkateorde Jaume Asens. Mahai-ingurua egingo dute Espaloiko museoan, 10:30ean —ikus 3. orria—.

Antzeztutako bisita gidatua

Domekarako, bisita gidatu berezia iragarri dute. Antzeztutako bisita izango da, eta hogeit bat lagunek hartuko dute parte bisitariak 1936ko urriaren kokatzeko. Bost kilometroko ibilbidean, erizain postua, defentsa lerroko fusilariak, aginte karguak... agertuko dira. Taldea 10:00etan abiatuko da Espaloia kafe antzokitik. Bisita doan da, eta ez da aurrez izena eman beharrik.

LEINTZ GATZAGA

Gipuzkoa zeharkatuko dute bihar, erreleboka

Gipuzkoa Saretzen mendi martxa egingo dute, oinez

ENEKO AZURMENDI | LEINTZ GATZAGA
Gipuzkoa Saretzen mendi martxa egingo dute bihar, zapatua. Leintz Gatzagan hasi eta Donostiaraino oinez joatea da asmoa, taldeka eta erreleboka.

Haurren eta gazteen gainpisua prebenitzeko lan egiten duen Pensoi proiektuaren barruan dago egitasmoa, eta Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuaren eta Gipuzkoako Osasun Publikoaren babesa dauka. Modu honetan, bizimodu eta elikadura osasuntsuak, kirola eta talde-lana sustatu nahi dituzte.

Leintz Gatzaga da Donostiatik urrutien dagoen Gipuzkoako herria, eta bihar, zapatua, bertatik irtengo da mendi martxa. Hain zuzen, ibilaldia 07:30ean hasiko da Gatz Museoan, eta Donostiako Arzak jatetxean

amaitu. Helmuga postua 20:30ak arte egongo da irekita; bertan, Elena Arzakek jasoko du lekukoa. Esan bezala, parte-hartzea taldekakoa izango da, eta hiru ibilbide ezberdin egongo dira hautatzeko.

Ibilbideak ez dira markatuta egongo, baina *track*-ak oinez ibiltzeko bideak diseinatu eta sustatzen dituen *Mugibili* webgunean egongo dira eskuragarri.

Gaur, egubakoitza, bilera informatiboa egongo da, 19:00etan, Gatz Museoan, martxari buruzko nondik norako guztiak azaltzeko.

Taldeek mistoak eta adin askotarikoak izan beharko dute, 4-6 pertsona bitartekoak. Talde bakoitzak errelebo kantitatea eta hauetan egin beharreko distantzia erabakiko du.

LEINTZ GATZAGA

EH Bildu nagusitu da berriz ere hauteskundeetan

E.A. | LEINTZ GATZAGA

EH Bilduk irabazi ditu Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak, 80 botorekin. Bigarren indarra EAJ izan da, 39 botorekin, eta atzetik Elkarrekin Podemos geratu da, 9rekin. Ganemos Euskadi Si Se Pudek (GESSP) boto bakarra lortu du eta PSE-EEk eta PPK, berriz, bat ere ez.

i25 EMAITZAK		
	2016	2012
Errolda	189	200
Abstentzioa	%30,16	%39
EH Bildu	80	79
EAJ	39	38
Elkarrekin Podemos	9	—
GESSP	1	—
PSE-EE	—	1
PP	—	—

ELGETA

Elgetan EH Bildu izan da indar bozkatuena 286 botorekin

Domekan egindako Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan EH Bilduk eskuratu du boto gehien Elgetan; hain zuzen ere, 286 boto (%46,20). Bigarren indarra EAJ izan da 227 botorekin (%36,67). Bilakaerari erreparatuta, EAJk murriztu egin du dela lau urteko hauteskundeetan zegoen aldea.

i25 EMAITZAK		
	2016	2012
Errolda	865	874
Abstentzioa	%28,44	%23,57
EH Bildu	286	333
EAJ	227	254
Elkarrekin Podemos	58	—
PSE-EE	21	17
PP	11	14

ELGETA

Euskararen Sokak izandako harrera ona eskertu dute Goibeko Euskaltzaleen Topagunetik

"Eskerrak eman gura dizkiegu Euskararen Sokara gerturatu ziren lagunei. Animatu gura ditugu plazan irakurritako agirian esan moduan bakoitzak ditugun joerak eta inertzia astindu eta egunerokoan euskaraz bizitzera", adierazi dute Goibekotik.

ELGETA

Zabalik da gaztelekuan izena emateko epea; urriaren 8an emango diote hasiera ikasturteari

Nerea Villa izango da, aurtan, gaztelekuko dinamizatzailea, eta zerbitzuak urriaren 8an zabalduko ditu ateak. 11 urtetik gorako gazteendako zerbitzua da edo ikasturte honetan betetzen dituztenendako. Izena emateko edo argibideetarako, udaletxera jo.

OHARRAK

GU ERE KONTALARI

Gaur, barikua, umeek egindako ipuin kontalari saioa liburutegian, 17:00etan. Sarrera irekia.

AZKEN BARIKUA

Hileko azken barikua izanik, euskal presoek eskubideak aldarrikatzeko elkarretaratze isila, gaur, 20:00etan, herriko plazan.

PENTSIOPEN ALDE

Erretiratuen Xalbadorpe elkarrekin deituta, astelehenean, 19:00etan, pentsio duinak eskatzeko elkarretaratzea plazan.

PILOTA TXAPELKETA

Zabalik da Gabonetako pilota txapelketan izena emateko epea. Izen-emateak, udaletxean, urriaren 5a baino lehen.

LEINTZ GATZAGA

San Milixanerako izen-ematea zabalik

Eskaerak aurkezteko azken eguna urriaren 15a da

E.A. | LEINTZ GATZAGA

Azaroaren 13an, domeka, ospatuko da San Milixan azoka eta bertan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago jada.

Parte hartzeko oinarri orokorra ondorengoa da: erakusgai edo salgai egongo diren produktuen egilea artisaua bera izatea derrigorrezkoa izango da. Bestalde, eskaeran gehitu beharreko informazioa da: parte hartzeko eskaera behar bezala beteta eta izenpetuta; dagokion herrialdean artisauen erregistroan alta emanda dagoela egiaztatuko duen ziurtagiri eguneratua; zergadunaren Jarduera Ekonomikoaren ziurtagiri eguneratua —Foru Ogasuna—; autonomoetako azkenengo 2 ordainagiriaren fotokopia; erakusgai

egongo diren produktuen 2 argazki eta aurrez muntatutako *stand*-aren argazki bat eta curriculum xehe bat.

Eskaerak, udaletxean

Azokan parte hartzeko eskaerak udaletxera bidali beharko dira behar bezala beteta.

Tailer herrikoia

Egun berean, tailer herrikoia ere egingo da, frontoi ondoko lokalean. Adin guztietakoei zuzenduta egongo da eta 10-15 pertsonako taldeetan hartu beharko da parte.

Bestalde, 150 euroko dietak izango dira tailerreko parte-hartzaileentzat, eta azokan parte hartzen dutenentzat, berriz, 50 eurokoa izango da dieta hori.

FUTBOLA

2012ko derbiko irudian Etxabe baloiarekin; orduan UDAk 1-0 irabazi zuen. | GOIENA

Liga ederto hasi duen UDAk Aloña Mendi hartuko du etzi

Aretxabaletak ez du partidurik galdu, eta oñatiarrak ez dira gura moduan hasi; Mondrak ere etxean jokatu du

XABIER URZELAI | ARRASATE

"Badakigu kategoriako talde onenetako baten zelaira joango gara la jokatzera, horregatik, talde moduan jokatzera joango gara, partidu gogorra planteatuta", adierazi zuen Aloña Mendiko kapitain Joseba Irizarrek *Har-mailatik* saioan, astelehenean. Izan ere, UDAk orain arte ez du bakarrenean barkatu, jokatu

hiru partiduak irabazi dituzte, eta dagoeneko -aurreikuspenak beteta- Inigo Velezen mutilik ligako oilarretako bat bilakatu dira.

Oñatiko taldeak, berriz, ez du denboraldia gura moduan hasi -puntu bat batu dute- baina emaitzek lagundu ez badiete ere, pozik daude egiten dabilen lanarekin: "Taldea gaztea dugu baina bagoaz

geroago eta hobeto lan egiten. Gainera, luzera begirako lan espezifikoa egiten gabilta, etorriko dira emaitzak", aitortu zuen kapitainak Mondraren kontra 0-0 egin berrian.

Aretxabaleta, esandako moduan, aurreikuspenak betetzen dabil. Hirugarren Mailan lehiatu ostean taldeari eutsi diote, eta ondo indartu dira. Eta, hasiera-

ESANAK

"Zelai gogorra da; lehia gogorra planteatuko dugu guk ere"

JOSEBA IRIZAR | ALOÑA KOKALARIA

tik ikusi dira emaitzak: Beti Gazte, Elgoibar eta Ordizia menperatu dituzte, eta horrekin batera Velezen mutilek gol bakarra jaso dute. Domekan, 16:30ean jokatu dute UDAk eta Aloña Mendik.

Mondra ere ondo

Arrasateko taldeak partidu guztiak irabazi dituzten multzoa utzi du, joan den astean Azkoain gainen berdindu egin zuelako (0-0), baina Zubiaren mutilek sentsazio ona utzi zuten, oñatiarren atea zulatuz ez bazuten ere hainbat aukera izan zituztelako, eta bi taldeek intentsitatez jokatu zuten. Hala, Arrasateko taldeak Ostadar hartuko du Mojategin (zapatua, 16:30).

Erregional preferentean

Bergarak 1-1 egin zuen joan den astean Zumaian, eta bihar ere kanpoan jokatu dute, Eibarren, Urkoren kontra (17:30). Aretxabaletako eta Mondrako bigarren taldeek ere kanpoan jokatu dute zapatuan, lehenengoek bigarren doazen Tolosako zelaian (15:30), eta Arrasatekoek Beasainen (16:00).

Antzuola, lider

Lehen erregionalean lider dago Antzuola, eta bihar Urki hartuko dute Estalan (16:30). Bergarak eta Arizmendik, ostera, derbia jokatu dute Ipintzan (18:00).

San Migel txapelketako finalak jokatu dituzte etzi

Domeka arratsaldean, 17:00etan hasita, jokatu dituzte 34. San Migel Txapelketako finalak, kadete eta gazte mailetan. Kadeteetan Muruak eta Gartzia Agirremalloa eta Ibarloza izango dituzte aurrean, eta gazte mailan Biainek eta Irazustabarrenak Uriberen eta Gasqueren kontra jokatu dute.

Ford Mugarrik kanpoan eta Izarraitz Aloña Mendik atsedena

Euskadiko Txapelketako bigarren jardunaldia jokatu du gaur, egubakoitza, Ford Mugarri Arrasatek (20:15, Escolapios). Izarraitz Aloña Mendiko mutilek, berriz, San Migel jaiak tarteko atsedena izango dute. Joan den astean etxetik kanpora arrasatearrek berdindu egin zuten Pulporen kantxan (26-26), eta oñatiarrek garaipen ona ekarri zuten Tolosatik (22-25).

Euskal Ligan txapelketa hasiko dute UDAk eta Eskoriatzak

Eskoriatzak etxean jokatu du lehen partidua, Batzarrerren kontra (zapatua, 18:00), eta Aretxabaleta-UDAk, berriz, Basaurira egingo du bidaiara, Scaliburren kontra jokatzeko (16:15). Gipuzkoako ligan, ostera, Mondrak 3-4 irabazi zuen joan den asteko estreinekoan, eta bihar 18:00etan Lauburu Ibarra izango da kontrarioa, Musakolan.

MENDI BIZIKLETA

Inguruko parajeek aukera ederra ematen dute mendiko bizikletan ibiltzeko. | I.S.

"Bailara aitzindaria izan da bizikleta irteerak antolatzen"

Asteburuan egingo dute Mondranbike, eta Aretxabaletako lehenengo martxa

X.U. | ARRASATE

Zapatuan Arrasaten (09:00, Musakolan) eta domekan Aretxabaletan (09:00, Herriko plazan), asteburuan aukera bikotiz izango da mendiko bizikletan ibiltzeko. Mondranbike martxak azken urteotako arrakas-

ta errepikatu gura du, jakinda zabaldu dituzten bidezidor berrietan dagoela arrakastaren gakoa. Hala, antolatzaile lanetan dabilen Mikel Bergarak azpimarratu du martxak azken urteotan asko aldatu direla: "Garai batean martxen

gogortasunari garrantzi handiagoa ematen zitzaion, kilometro asko eta desnibel handia zuten, baina bidea bera ez zen kontuan hartzen, gehienak pistak ziren. Gaur egun, ostera, antolatzaileek bide jostagarriak bilatzen dituzte, bidezidor zainduak, akaso lehen baino teknikoagoak, baina ez horren gogorak. Eta, eboluzio horretan balaran egiten diren martxak aitzindariak izan dira".

Ibilbideari dagokionez, luzeak 33 kilometro izango ditu (1.300 metroko desnibela) eta motzak 28 kilometro (900 metro). Tarte batzuetan jaitsiera endureroak aurrekusi dituzte, baina lasaiago jaitsi gura dutenei beste aukera bat emanda.

Aretxabaletan UDA lanean

Domekan Aretxabaletako martxak osagai antzerakoak izango ditu, ibilbide entrenigarria prestatu dute -luzeak 33 kilometro izango ditu, 1.800 metroko desnibelarekin- eta berritasuna da ibilbide motza (10km) familiei zuzendutakoa dela, hau da, Aretxabaletatik Urkulura igoko dira, eta urtegiari itzulita egin eta gero Herriko Plazara jaitsiko dira ostera ere.

ERRUGBIA

ARTk Gaztediren kontra hasiko du liga, etxean

X.U. | ARRASATE

Arrasate Errugbi Taldeak bihar, zapatua (16:30, Mojategi), hasiko du denboraldia, Gaztediren kontra. Taldearen gidaritzan Igor Isasik jarraituko du, eta talde lehiakorra osatzeko lanean ibili dira; horretarako beterranoak eta jende gaztea batu dituzte.

Bi partidu jokatu dituzte

Abuztu amaieran ekin zieten entrenamenduei Arrasate Errugbi Taldeko talde gehienek, tartean senior mailako mutilek. Eta, entrenamenduekin batera lagunarteko bi partidu jokatu dituzte. Lehenengoan, Hernaniren kontra jokatuak arrasatearrak esku hutsik itzuli ziren, baina bigarrenetan, joan den astean, zuri-moreek 14-24 hartu zuten mendean Elorrio.

Hala, Euskal Ligako 2. mailan, Gaztedi B, Nerbioi, Funes, Bera Bera B, Uribealdea B, La Unica B, Uni Bilbo B, Zaisa Txin-

gudi, Hernani C, Elorrio eta Zornotzako izango dira Kanpazarr Arrasateren kontrarioak. Denboraldiko lehenengo faseak itzuli bakarrenean izango du, hau da, sarrailegileek orotara 12 partidu jokatu dituzte. Eta, lehenengo lau sailkatuak A faseako sailkatuko dira, igorera jokoan egongo den fasea, alegia.



Bustu jaurtiketa egiteko gertu. | I.S.

KROSA

Arrasate-Oñati lasterketako izen-emate epea zabalik

IBON CARMONA | ARRASATE

Urriaren 8an egingo duten Arrasate-Oñati herri lasterketarako gero eta gutxiago falta da. Izen-ematea oraindik irekita dago, eta horrela segituko du lasterketa baino egun bat lehenago arte; interesatuek www.herrikrosa.eus webgunean eman beharko dute izena. Webguneaz gain, parte hartu nahi dutenek Arrasateko eta Zumarragako Intersport Loramendi kirol dendetan izena emateko aukera izango dute.

Urtero bezala, ibilbideak 12 kilometro izango ditu; irteera Arrasateko Garibai etorbidean eta helmuga Oñatiko plazan kokatuko dira. Lasterketa arratsaldeko bostetan hasiko da, eta, korrikalariez gain, patinatzaileek ere parte hartu ahal izango dute.

Azaroan Antxintxika krosa

Lasterketa egiteko hilabete baino gehiago geratzen da, baina 12. Antxintxika krosak ere zabalik dauka izen-emate epea, azaroaren 3ra arte. Parte hartu nahi dutenek www.kirolprobak.com webgunean eman beharko dute izena.

Krosa azaroaren 5ean izango da, eta, korrikalariez gain, patinatzaileek eta gurgil aulkian daudenek ere daukate parte hartzeko aukera. Sorazuzetik Bergararaino joango den lasterketak 10 kilometro izango ditu.



Realekoekin talde argazkia; besteak beste, Arconada, Gorriz, De Pedro, Lopez Ufarte, Idigoras eta Kodro daude. | M. ARREGI



Gindi eta haren emazte Pili Kortazar, Expositorekin, Arconadarekin eta Gorrizekin.



Jabi Ibarra, Gindiri elastikoa emanda.

Realeko iraganeko izar mordoa 'Gindi'-ri egindako omenaldian

Bergarako eta talde txuri-urdineko beteranoen lagunarteko partidua aitzakia ederra izan zen aspaldiko jokalaria ezagunak Agorrosinen batzeko

XABIER URZELAI | BERGARA

"Ez dakit halakorik merezi dudana, baina nire omenalditik harago jendea ondo pasatzera etorri da hona, aspaldiko lagunak eta eza-

gunak agurtzera, eta futboleko jokatzera", adierazi zuen etxera opariz beteta joan zen Jesus Mari Larrañaga Gindik, zapatuan egin zioten omenaldian. Eguna anto-

latzen ibili ziren Gindiren Lagunak taldekoak, Realeko beteranoak, Eibarko futbol taldekoak eta Bergarako Kirol Elkartekoak, hau da, bere kirol bizitzan, joka-

lari edo entrenatzaile moduan harremana izan duten taldeak batu ziren. Eta tartean, talde txuri-urdinean urrezko aroa bizi izan zuten jokalaria historikoak: "Jende ezagun asko etorri da; akaso, Arconada bera da ezagunena, baina asko daude, eta ni oso pozik nago horiek guztiak hemen ikusteaz". Arconadarekin batera, baina, Javier Exposito, Jose Mari Martinez, Elkorro, Uranga, Gorriz, Periko Alonso, Lopez Ufarte, Gajate, Idigoras, Olaizola, Iriarte, Uralde eta Guruzeta izan ziren.

Realekoak irabazle (1-5)

Aipatutako horiek, baina, ikusle moduan gozatu zuten partidua. Izan ere, A Ze Flaxa! Bergarako beteranoen kontra jokatu zuten talde txuri-urdineko batzuek izan ziren Xanti Bakero, Orbeago, Fuentes, Loinaz, Uria, Kodro, Iturrino, De Pedro, Luis Perez edota Dueñas -arrasatearra-.

"Giro ona genuen gure artean"

Horrenbeste beterano batu ostean, ezinbestekoa zen Gindi-ri garai haietako kontuen gainean galdezteza: "Ederto moldatzen ginen, eta horren erakusle da gaur zenbat lagun batu garen. Horregatik diot nire omenaldia aitzakia baino izan ez dela, aspaldiko lagunak berriro ere elkartzeko aitzakia. Dena dela, nahiz eta harreman oso ona izaten genuen aste barruko entrenamenduetan ez zen txantxarrik egoten, serio egiten genuen lan. Eguaztenetako entrenamendu saioan partidua jokatzeko genuen, eta partidua ofizialekin bezain serio jokatzeko genuen gure artean, han ez zegoen bromarik, asteburuan nork jokatu zuen erabakitzen zutelako hor".

Partiduen ostean bazkaria egin zuten Seminarioko karpan. 230 lagun inguru batu ziren.

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otorra Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

GARRAILAN

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@uribesalgo.es



Kooperarock egitasmoan parte hartzen duten erakundeen ordezkariak martitzeneko aurkezpenean. | IBON CARMONA

Arteak eta kooperatibismoak bat egiten duten proiektua

Kooperarock-ek kooperatibismoaren balioak artearen bitartez zabaltzea dauka helburu

IBON CARMONA | ESKORIATZA

Kooperarock proiektua pasa den martitzenean aurkeztu zuten Huheziko fakultateko areto nagusian. Bertan, proiektuan parte hartu duten erakundeetako ordezkariak egon ziren; besteak beste: Bixente Atxa, Mondragon Unibertsitateko errektorea; Xabier Paya, Donostia 2016ren kultur programako zuzendaria; Saioa Torre, Bizitzaren Itsasargia programako arduraduna; Igor Ortega, Lanki Kooperatibagintza Ikertegiko zuzendaria; eta Pilar Lopez, Teatro Paraisoko zuzendaria.

"Kooperatigintzaren balio eta ezagutzak zabaltzea nahi dira.

Dibulgazioaren bitartez, alde batetik, baina, beste alde batetik, kontuan izanez Europako Kultura Hiriburua garela, kultura eta artea horretara bideratuz". Horrela azaldu zuen Xabier Payak egitasmoaren xedea.

Asmo horrekin, kooperatibagintzak azken hamarkadetan lan, ekonomia eta hezkuntza antolamenduan izan duen eragina aztertu nahi da, artearen bidez hura gizartera zabaltuz. Donostia 2016 kultur programako zuzendariaren esanetan, proiektua urte hasieran jarri zen martxan, eta bi fase nagusitan banatu da. Aurkezpenean, lehen faseari amaiera eta bigarrenari hasiera eman zitzaion.

Lehenbizi, azterketa fasea

Proiektua Mondragon Unibertsitateko Lanki ikertegiak abiatu zuen, hausnarketa prozesu baten bitartez. Urtarrila ezkerko kooperatibismoaren ezinbesteko balioak aztertzen jardun dute. Horretarako, Euskal Herriko Unibertsitatearen, OlatuKoopen eta Arro-sa irrati sarearen kolaborazioa izan dute. Lanki ikertegiko Igor Ortégak azaldu du lau balioengand jarri nahi izan dutela bereziki azpimarra: "Batetik, hezkuntzaren balioan, lana ulertzeko moduetan, elkartasunaren balioan eta guretzako ere garrantzitsua den eraldaketa sozialaren balio nagusi horretan".

Halaber, urriaren 5ean *Kooperarock*, *Belaunaldien arteko elkarrizketak* dokumentala aurkeztuko da Huheziren Aretxabaletako campusean. Lan honek adin desberdinetako jendea kooperatibismoari buruz solasean erakusten du. Ikus-entzunezkoaren aurkezpenarekin batera, mahai-inguru bat egingo da, dokumentalean parte hartu duten generazio ezberdinetako hiru gizon eta hiru emakume bilduko dituen.

Teatro Paraisok lekukoa hartu.

Lankik buruturiko hausnarketa prozesuaren ostean, Teatro Paraiso Antzerkiak proiektuaren bigarren faseari eman dio hasiera, sorkuntza eta bitartekaritza artistikoan oinarritzen dena. Arabako konpainiak 40 urteko ibilbidea dauka, eta hurrei zuzenduriko antzerkiaren erreferente nazional eta internazional bilakatu da. Bere jardura nagusia sorkuntza eta hedatze eszenikoan datza eta publikoa erakartzeko helburua duten proiektuak garatzen ditu, lan egiteko era asko eskainita.

Teatro Paraisoren ekarpena ezberdinak baina aldi berean elkarren osagarri diren bi ardatzetan oinarritzen da: bitartekaritza artistikoaren lanketa eta antzezlan baten kreazioa. "Honek guztionek artea eskoletara gerturatzeko dauka helburu, horretarako, kooperazioa erreminta bezala erabilita. Gainera, kooperatibismoaren ideia sorkuntzaren bitartez nahi da sozializatu", adierazi du Pilar Lopezek, konpainiako zuzendariak.

Mediazio artistikoa Euskal Herriko bost ikastetxetan ari da lantzen, eta tartean Arizmendi Ikastola dago. Neska-mutikoen ekarpenak jasota eta Lankik landutako hausnarketa prozesuaren ondorioekin, konpainiak antzezlan bat sortuko du, 7 eta 12 urte bitarteko hurrei zuzendua. Antzezlanaren aurrestreinaldia Arrasaten egingo da abendu erdialdean eta estreinaldi ofiziala Donostian abenduaren 27an.

Iker Sanz eta Ane Urruzola onenak dantza soltean

I.C | BERGARA


Bergarako Musika eta Dantza Eskolak antolatutako 31. Dantza Solte Txapelketa Lezo eta Villabona aldera joan zen. Iker Sanz eta Ane Urruzola izan ziren garaikur nagusia eraman zutenak. Bigarren postua pasa den urteko irabazleentzat izan zen, Xabier Artola (Irura) eta Idoia Besadarentzat (Pasaia), hain zuzen. Hirugarren postua, berriz, Amets Amubieta eta Larraitz Larrañaga bikote azpeitiarrentzat izan zen.

Bergararentzat zorterik ez

Hamasei urtetik gorako zazpi bikote lehiatu ziren; eta horien artean zeuden Bergarako bikote bakarra osatu zuten Saioa Galarraga eta Julen Murgiondo. Bergararentzako lehenengo aldia zen herriko txapelketako helduen kategorian parte hartzen zutela, eta, sariarik eskuratu ez bazuten ere, gustura ziren egindako lanarekin. "Hasiberriak izanda, oso zaila da lehen postuekin lehiatzea, baina gustura geratu gara egin ditugun bi dantzekin", gaineratu du Saioak.



Iker Sanz eta Ane Urruzola. | A.A.



Imanol Urbieta Argizaiola saria jasotzen 2010ean. | GEREDIAGA ELKARTEA

Imanol Urbieta musikari eta irakaslea hil da 82 urte zituela

Ume belaunaldi askorendako oso abesti ezagunen egilea izan da

I.C | ZARAUTZ

Eguaztenean, irailak 28, hil zen Imanol Urbieta Beristain, musikari eta irakasle zarautarra. Euskal Herriko ume belaunaldi askorendako oso abesti ezagunen egilea izan da. Horren adibide, *Txoria nintzela*, *Mack Mikel* edota *Txiki txiki txikia* kantuak dira.

Musikari eskainitako bizitza

Gehienbat, hurrei zuzenduriko musika egin izan du bere ibilbidean zehar. Musika egitearekin batera, ikastolen alde-

ko defendatzaile sutsua zen; bere abestiak ezinbestekoak izan ziren euskararen erabilera haurren artean hedatzeko.

Teologia eta Letretan lizentziaduna zen. Lizentziatura ostean musika ikasketak egin zituen Euskal Herriko eta Europako zenbait herrialdetan; Bordelen eta Estrasburgon, besteak beste.

1967an *Haur kantariak* diskoa grabatu zuen, haurrentzat euskaraz eginiko lehena. Geroztik 30 disko inguru argitaratu ditu, eta haurren hezkuntzan

zegoen hutsunea betetzeko sortu zituen hainbat kantu Euskal Herriko hainbat eskolatan ezagunak dira oraindik.

1984an Txirula Mirula zentroa sortu zuen, non teknika abangoardista ezberdinen bitartez solfeo eta musikoterapia eskolak eman zituen.

Konpositore zarautzarrak hainbat sari jaso zituen; horien artean, Zarauzko Udalaren Kultur Merezimenduen Domina (1996) eta Durangoko Azokaren Argizaiola saria (2010).

Cielo Raso konpainiako dantzari bat *Tormenta* ikuskizunean. | CIELO RASO

Cielo Raso konpainiak 'Tormenta' dantza garaikide ikuskizuna aurkeztuko du

Konpainia donostiarraren ikuskizuna bihar izango da (19:30) eta sarrerak Amaia antzokian eta Arrasateko Udaleko webgunean egongo dira salgai

IBON CARMONA | ARRASATE

Cielo Raso dantza garaikide konpainiak emanaldia eskainiko du bihar Amaia antzokian. Konpainiak bere azken lana aurkeztuko du: *Tormenta*. Igor Calongek zuzentzen du obra, sorkuntza garaikidearen panoraman finkatu den donostiarra, eta Espainiako Areto Alternatiboen Sarean sartua dago; gainera, Estatu eta Europa mailako hainbat jaialditan hartu du parte.

Ikuskizuna 19:30ean hasiko da eta sarrerak 10 euroko prezioa izango dute; hauek Amaia antzokiko leihatilan eta Udalaren webgunean egongo dira eskuragarri.

Emozioak hizpide

Ikuskizunaren gaia emozioen hauskortasuna da; izan ere, erauntsi emozionalek ekaitzak sortzen dituzte zenbaitetan; hortik *Tormenta* izena. "Emozioekin egiten

dugu lan, eszena ezberdinen bitartez ikusleen hunkiberatasuna bereganatuz. Obrak bi alde ditu, hauskortasuna eta sendotasuna. Hauen arabera, gainerako guztia hitzik gabeko mugimenduak dira, eta, hitzik gabe, nork bere konklusioa atera dezake", adierazi du Igor Calongek.

Amaia Udal Antzokiko taula gainean hiru dantzari arituko dira: Leire Otamendi, Gorka Gurrutxaga eta Marti Guell, hain zuzen ere. Hauek Johann Paul von Westhoff konpositore alemanaren pasarte musikakal dantza-tuko dituzte, besteak beste, elkarren arteko eszena ezberdinak interpretatuta. Eszenografiari dagokionez, Calongerren beste obra batzuekin alderatuz, material fisikoa ez da hain ugaria izango; dantzariak erabiliko duten objektu bakarra edalontziak izango dira.

Mugalariek programaren parte

Espektakuluaren sortze-prozesuak Donostia Kulturak eta Donostia 2016k antolatutako Mugalariek proiektuaren bigarren edizioan hartu zuen parte. Proiektu honen bitartez, Hego Euskal Herriko eta Akitaniako antzoki eta kultur zentroek ateak irekitzen dituzte, sorkuntza-fasean dauden dantza zein antzerki proiektuak barrutik ezagutzeko.

Tormenta-ren kasuan, sortze-prozesua Hendaiako Mendi Solan kultur zentroan eta Donostiako Gazteszenaren garatu zen. "Bi hilabetez, ikusleak produkzio fasea modu aktibo batean jarraitzeko aukera izan zuen. Jendearen erantzuna oso ona izan zen, bi tokietan ikusle komunitateak izan genituen eta. Hauek ikuskizunaren prozesu guztian zehar egon direla esan daiteke", gehitu du zuzendariak.

Aitor Osuna oñatiarrak 'Thrill' diskoa kaleratu du

I. C. | OÑATI

Duela bi urte *Unfit* diskoa atera eta gero, lan berri batekin dator musikagile oñatiarra. CD berriaren izenburua *Thrill* da eta 12 kantaz osatua dago. Pop independentea da kantetan nabarmentzen den estilo nagusia, baina rhythm and blues, pop-rock, rap, elektronika, dance eta funk ukietuekin. "Orokorrean, ingelesez abesten dut, eta batzuetan gazteleraz. Kantek gai ezberdinen inguruan hitz egiten dute; besteak beste, gizarte-kritikaz, sexuaz, amodioaz, gorrotoaz eta hegan egiteko nahiaz", aipatu du Osunak.

Disko osoa autoekoiztua da; etxean grabatu du, errekurto oso gutxi zituela. Hala ere, kolaborazioetarako momentuan ez da bakarrik egon: "Lagash taldeko gitarra-lagundua dit nahasketekin. *Era* abestian Txileko bi abeslarirekin kantatzen dut, Max Moralesekin eta Joaquín Jauregirekin, hain zuzen. *Just How We Do* kantuan, berriz, New Yorkeko DKMTR raperoak konposizioan lagundu dit". Masterizazio lanak Doctor Master estudioak egin ditu eta Rock CDk, berriz, diskoaren fabrikazio eta distribuzioa digitala.

Ongin eta Oñatin salgai

Oraindik segurua ez den arren, CDaren aurkezpena urriaren 21ean izango da, Txanda egunean. "Kontzertuak bakarrik egiten ditut, base instrumental batekin eta zuzeneko ahots eta pianoarekin", esan du Osunak. Diskoa kontzertuan aurkeztu ez den arren, jada Oñatiko Ongi eta Oñati tabernetan salgai dago 5 euroren truke.

Señor No taldeak hasiko ditu Kooltur Ostegunak

I. C. | ARRASATE

Aurten talde indartsu batek emango dio hasiera Kooltur Ostegunen zazpigarren zikloari. Señor No talde donostiarra Arrasateko Gaztetxe taula gainean arituko da bere rock-and-roll basatia eskainiz.

Joan den urtean ere ostegunetako emanaldietan hartu zuten parte; kontzertu hartan *A veces no* singlea aurkeztu zuen laukoteak. Datorren egueneko emanaldian, single hori jasotzen duen *No cambies siempre* diskoa aurkeztuko dute, pasa den abenduan argitaratu zutena.

Arrasaten eta Debagoieanean, orokorrean, zale asko dituzte, eta, horregatik, antolatzaileei proposa iruditu zaie taldea berriz ekartzea. Suedian izan berri dira biran; Stockholm-en eta inguruetan zenbait kontzertu eskaini dituzte.

Ibilbide luzea

Señor No taldeak hogeitau urte baino gehiagoko ibilbidea dauka, eta momentu arte sei disko argitaratu ditu. 1993ko udaberrian, Donostiako Buenavista eraikinean zeukaten lokalean hasi ziren jotzen; gaur egun, Xabi Garre gitarrak jole eta ahotsa da sorreratik irauten duen taldekide bakarra. Taldearen influentziak ugariak dira, baina, batez ere, 70eko hamarkadako rock gogorra eta 77ko punka dira.

Egitura bera

Kooltur Ekintza taldeak azken urteetako egitura berari eutsiko dio; beraz, kontzertuak egun gauetan izango dira (22:00), sarrera bost euro kostako da eta talde bakarraren emanaldia izango da.

Zorionak denoi!

Hauek dira Goiena Klubeko iraileko zozketetako irabazleak



TELEBISTA

Ana Maria Ruiz Santos (Eskoriatza)

LIBURU SORTA

Mikel Orobengoa Kruzalaegi (Arrasate)

ARRIKRUTZ KOBETARAKO BINA SARRERA

Aitziber Askasibar Agirre (Elgeta)
Ramon Aperribai Larrañaga (Arrasate)
Maria Eugenia Aranburu Arregi (Oñati)

HARREMAN DENDAKO OTARREA

Miren Elisabet Txintxurreta Etxezarreta (Arrasate)

GARDEN IKUSKIZUNERAKO BINA SARRERA

Nerea Mendizabal Urreta (Bergara)
Jon Belastegi Aranzabal (Bergara)

GOIKO BENTA JATETXEAN BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

Ekaitz Osa Zabaleta (Oñati)

SANTA ANA JATETXEAN BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

Andoni Elkoro Mantzizidor (Bergara)

MENDIOLA JATETXEAN BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

Iker Ugarte Burgos (Aretxabaleta)

LASA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

Mikel Urrutia Zumelaga (Arrasate)

ETXEAUNDI JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

Dorleta Elkorobarrutia Pagoaga (Leintz-Gatzaga)



DEMASA: KILOMETROETAKO ARROPA SORTA

Onintza Belategi Unzueta (Bergara)
Iratxe Muxika Olasagasti (Eskoriatza)
Naiara Arrizabalaga Elorza (Aramaio)

Saria jasotzeko jo zuzenean, Kilometroetako dendara.
Bidekurutzeta 14 - BERGARA
10:00-13:00 / 17:00-20:00

SARIAK JASOTZEKO:

Arrikrutzeko sarrerak Goiena klubeko txartela erakutsita, bina sarrera izango dituzue Arrikrutzeko txarteldegian. Sarrerak 3 hilabete epe muga izango dute. **ARRIKRUTZ KOBAK**, Araoz Auza, OÑATI, 943 08 20 00. Orduetgia: Asteartetik Igandera 10:00 - 17:00 (Aurrez deitu hitzordua egiteko) **Harreman dendako otarrea** Otarra jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin, Harreman dendara. Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendara. **Beste sariak**. Zetoz, GOIENAREN egoitzara. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da. GOIENA Otolara Lizentziaduna, Arrasate, 943 25 05 05. Orduetgia: Asteleheneetik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzean: 08:00 - 14:00.

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Bergara. Bilogeladun 70 metro koadroko etxebizitza salgai Martokuan. Igogailua eta trasteleku handiarekin. Berritua. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 635 20 08 16

103. ERRENTAN EMAN

Bergara. Atiko duplexa ematen da errentan erdigunean. Arruaga kalean. 56 metro koadro. Denak pora begirakoa. Igogailua eta berokuntzaren. Jantzia. 600 36 81 37

Eskoriatza. Etxebizitza guztiz jantzia ematen da errentan Eduardo Gorosari enparantzan. Sukaldea, bi bainu, egongela eta hiru logela. Garajearekin. 605 77 51 65

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Bi edo hiru logelako etxebizitza behar dut errentan hartzeko. 659 90 85 13

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Logela ematen da errentan Biteri etorbidean, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. 618 82 02 41

Arrasate. Unibertsitatetik gertu. San Andresen, etxebizitza osatzeko jende bila nabil. Hiru logela daude eta momentuz pertsona bakarra dago. 631 46 56 98

Oñati. Etxebizitza osatzeko etxekide bila. Orain gutxi eraberritutako etxebizitza da. Erdigunean dago. Logela zabal. 658 86 98 38 (Mikel)

2. GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Garaje itxia saldu edo errentan ematen da Bizkaia etorbideko garajearen erakinean. Lehenengo solairuan dago. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 627 26 94 29 (Dolores)

204. ERRENTAN HARTU

Bergara. Garaje irekia errentan hartuko nuke lbargarai kalearen inguruan. 618 30 27 57

4. LANA

401. ESKAINTZAK

BERGARA

Sukalde laguntzailea behar da. 652 73 18 96

Antzuola. Antzuolako edo Bergarako emakume edo neska bat behar dugu 6 urteko bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Ordelegia: 7:15etik 10:15era. astelehenetik ostiralera. 606 27 87 47 edo 606 26 71 53

Bergara. Arratsaldetan, 17:00etatik 19:00etara, bi ume zaintzeko neska edo emakume euskalduna behar da. Interesatuok deitu telefono hauetara: 659 03 85 29 edo 661 96 62 70

Eskoriatza. Emakumea behar da umeak zaintzeko. Orduka izateko komeni zaigu. 617 88 96 81

402. ESKAERAK

Arrasate, Bergara eta Oñati. Gizonezko erizain laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko. San Juan de Diosen eta Aita Mennin lan egindakoa. 943 78 62 19 edo 639 66 57 88

Arrasate. 57 urteko emakume arrasatearra nagusi edo umeak zaintzen eta etxeko lanak egiten aritzeko gertu. 688 66 76 91

Arrasate. Emakume gertu emakume nagusiak paseoa laguntzeko edota ume bat zaintzeko. 695 58 88 63

Arrasate. Mutila gertu txakurrak kalera ateratzeko. 615 50 54 18

ZURE IRAGARKIAK

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguztareneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu. Hortik aurrera, ez da onartuko aldaketarik edo iragarkia bertan behera uzterik. GOIENAK ez du iragarkien ondoko operazioen erantzukizunik.

Arrasate. Nagusiak zaintzen lan egiteko nuke orduka. Goizetan zein arratsaldetan, astelehenetik ostiralera bitartean. Baita garbiketarako egiten ere. 622 24 86 64

Arrasate. Neska arduratsua eta langilea gertu nagusiak zaindu, etxeko lanak eta garbiketarako egiten, edota orduka laguntzeko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 663 87 83 89

Bergara. Haur Hezkuntzako gradua duen neska gazte bat naiz. Haurrak zaintzeko prest nago. 695 75 11 97

Bergara. Kaixo! Irakasle ikasketak dituen neska euskalduna naiz eta haurrak zaintzeko prest nago. Goizez zein arratsaldean. Esperientziaduna. 659 29 14 63

Bergara. Magisteritzako ikasketak dituen neska euskalduna gertu. Orduka zaintza lanak egin, zerbitzari, dendaria edota garraiolari. Autora daukat. 632 21 30 64

Debagoiena. Mutil arduratsua, esperientziaduna, lanerako gertu. Orduka zaintza lanak egin, zerbitzari, dendaria edota garraiolari. Autora daukat. 632 21 30 64

Debagoiena. Prest nago garbiketarako egiteko, umeak zaintzeko, adinekoak zaintzeko eta abarretarako. 685 64 85 64

Debagoiena. 9:00etatik 16:00ak bitartean orduka lan egiteko nuke, nagusi edo umeak zaintzen, garbiketarako, mandatuak egiten eta abarretarako. 634 26 10 92

Debagoiena. Asteburuetan nagusiak zaindu edota garbiketarako lanak egiteko gertu nago. 647 51 48 07 (Keenya)

Debagoiena. Asteburuetan nagusiak zaintzen lan egiteko nuke. 659 90 85 13

Debagoiena. Asteburuetan nagusiak zaintzen lan egiteko nuke. Astelehenera bitartean orduka ere bai. 631 28 02 98

Debagoiena. Asteleheneratik egubakoitzera, orduka, garbiketarako egiten eta nagusiak zaintzen lan egiteko gertu. Esperientzia dut. 602 11 68 20

Debagoiena. Asteleheneratik egubakoitzera, orduka, garbiketarako egiten eta nagusiak zaintzen lan egiteko gertu. Esperientzia dut. 602 11 68 20

Debagoiena. Emakume gertu nagusiak eta umeak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 672 57 73 03

Debagoiena. Erizain laguntzailea ikasketak dituen neska nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko gertu. Esperientzia dut. 620 23 58 15

Debagoiena. Esperientziadun neska lanerako gertu. Nagusi edo umeak zaintzen, garbiketarako eta abarretarako. Etxean bertan bizi izaten, orduka edota baita gauetan ere. 681 37 60 13

Debagoiena. Esperientziadun neska lanerako gertu. Nagusi edo umeak zaintzen, garbiketarako eta abarretarako. Etxean bertan bizi izaten, orduka edota baita gauetan ere. 696 30 19 10

Debagoiena. Esperientziadun sukalderia eskaintzen da lanerako. 602 11 68 20

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edota orduka lan egiteko nuke. Esperientzia eta erreferentzia onak. 631 14 27 02

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten, orduka edota aste-

buruetan lan egiteko nuke. Sukaldean ondo moldatzen naiz eta lege paperak ditut. Bederatzi urteko esperientzia dut. 677 20 82 30

Debagoiena. Geriatria titulua duen neska arratsaldetan lan egiteko gertu. Eskarmentuduna. Autoa daukat. 600 00 51 60

Debagoiena. Gizona eskaintzen da pertsonak zaindu edota laguntza emateko. 602 11 68 20

Debagoiena. Gizona lanerako gertu. Garbiketarako, peoi lanetan eta abarretarako. 609 63 38 21

Debagoiena. Goizetan nagusiak zaindu edota garbiketarako egiteko gertu nago. 655 15 36 59 (Alejandra)

Debagoiena. Lan bila nabil. Esperientzia dut umeak zaintzen, garbiketarako, gaixo eta nagusiak zaintzen, lantegian eta 13 urtez jatetxeko sukaldean. 647 10 58 72 edo 943 79 96 25

Debagoiena. Mutil arduratsua, erabateko prestutasunarekin, zerbitzari zein dendaria lanetan aritzeko gertu. 605 52 88 43 edo 698 23 89 87

Debagoiena. Mutil euskalduna, jatorria eta indartsua, pertsona nagusiei laguntza emateko gertu. Autoa daukat, mandatuak egiteko edo laguntzeko. 679 74 00 61

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzen lan egiteko. Esperientzia daukat. Sukaldean ondo moldatzen naiz. Autoarekin. 660 90 51 50 (Argelis)

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Esperientzia daukat eta sukaldean ere ondo moldatzen naiz. Autoa

daukat. Gidari edo banatzaile moduan ere lan egin dezaket. 647 01 74 66 (Cristino)

Debagoiena. Mutila zaintza lanerako gertu. Orduka, etxean bertan bizi izaten edota baita asteburuetan ere. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 602 63 68 14

Debagoiena. Nagusiak zaindu eta garbiketarako lan egiteko gertu nago. 679 30 12 37 (Arelis)

Debagoiena. Neska arduratsua lan bila. Etxean bertan bizi izaten, egunez edo orduka. Etxeko lanak egiten eta ume zein nagusiak zaintzean esperientzia dut. 603 89 31 38

Debagoiena. Neska arduratsua, erabateko prestutasunarekin, etxeko lanak egin, nagusiak zaindu eta zerbitzari zein dendaria lanetan aritzeko gertu. 605 52 88 43 edo 698 23 89 87

Debagoiena. Neska euskalduna gertu nagusiak zaintzeko. 17 urteko esperientzia dut lan horretan. Asteleheneratik ostiralera lan egiteko nuke orduka. Autoa daukat. 607 72 75 61 (Bego)

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaindu, garbiketarako eta abarretarako. 695 40 56 65

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaindu, garbiketarako eta abarretarako. Legezko paperak ditut. 675 61 78 92

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaindu, garbiketarako eta abarretarako. Legezko paperak ditut. 603 64 98 53

Debagoiena. Orduka lan egiteko nuke nagusiak zaintzen, baita

asteburuan ere. 603 29 94 29

Debagoiena. Sukalde laguntzaile moduan lan egiteko nuke. Esperientzia eta elikagaiekin lan egiteko titulua daukat. Motoa ere bai. Denetarik garbiketarako egiteko ere gertu nago. 625 28 38 11

Debagoiena. Zaintza lanetan zein denetarik garbiketarako egiten lan egiteko gertu nago. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 688 86 22 08

Debagoiena. Zaintza lanetan zein denetarik garbiketarako egiten lan egiteko gertu nago. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 608 49 89 95

Jostuna prest. Jostuna naiz eta alor honetako edozein lan egiteko prest nago. 631 00 36 34

Oñati, Arrasate edo Bergara. Haur Hezkuntzako ikasketak ditut eta arratsaldetan edo orduka haurrak zaintzeko edo garbiketarako lan egiteko prest nago. Autoa daukat. 664 53 28 56

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Emakume nagusi batek euskaraz idazten ikasleko eskolak hartuko lituzke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 653 73 98 70 edo 943 03 87 43

502. EMAN

Bergara. Partikularrak ematen ditut Lehen Hezkuntza, DBH1 eta DBH2 mailetan. 6 urteko esperientzia dut eta irakasle graduatua naiz. 615 73 70 88 edo 943 76 52 05

Ingeles eskolak Bergaran. Maila guztiak. Talde

txikiak. Hizkuntz Eskola Ofizialeko eta Cambridge-ko azterketak prestatzeko ere bai. 618 91 32 89

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katakumea. Katakume emea ematen dugu opari. Kolorez, zuria da. 615 73 68 07 edo 606 65 66 61

Katakumeak. Lau katakume ematen dira opari. Interesatuok deitu zerbaki honetara, ingelesez mesedez: 638 15 81 14

8. DENETARIK

807. AURKITU

Giltzak Irimon. Domekan, irailaren 11n, Irimo inguruan giltza sorta aurkitu nuen. Zurea bada, deitu zerbaki honetara: 649 84 67 09

9. HARREMANAK

903. DEIAK

Alemana praktikatzeko Bergaran. Alemana praktikatu ahal izateko, taldea sortu dugu Bergaran. Oraingoan, egubakoitzero elkartzeko gara 18:30etik aurrera. Facebooken taldea daukagu, "Deutsch Üben in Bergara". Bestela telefonoz edo e-posta erabil ditzakezu. 663 65 76 06 edo maitemugica@yahoo.es

Hizkuntza trukea Bergaran. Mintzapraktika trukea egin gura nuke Bergaran. Nik ingeleza eta hungariera dakizkit eta trukean gaztelera jaso gura nuke. Interesatuok deitu zerbaki honetara, ingelesez mesedez: 608 26 13 76



Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:

- Aranerrea, 90 m², 3 log. igogailua, trasteleku eta garaje itxia. 175.000€.
- Simon Arrieta, 78 m², 2 log. berritua. Bizitzera sartzeko. 130.000€. AUKERA ONA.
